

# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2013-06-28  
EGUBAKOITZA  
559. ZENBAKIA  
13. URTEA  
DOAKOA  
GOIENA.NET  
TOKIKOM

"Kontzertu ekonomikoa ez da pribilegioa, ituna da"

Mari Carmen Gallastegi

EHUko Ekonomia katedraduna eta doktorea | 8



Telefonoarena, bitxikeriaz jositako iraultza

Europako sare aurreratuenetakoa izan zen Gipuzkoan | 2

HEMEN DIRA SANPEDROAK!  
Eskoriatzako jaietako ekitaldiak | 19



Frankismo osteko lehen ikurrina jaso zuena hil da | 5



Arrasateko Amaia antzokia bete egingo da Leo Harlem entzuteko | 33



## BERGARAKO SAN PEDRO GERTU INAUGURAZIORAKO

Begarako Koro Parrokialak 11:30ean egingo du kontzertua. 19:00etan, berriz, Oñatiko Abesbatzak eta Bergarako Orfeoia Mozarten *Requiem* interpretatuko dute | 18

Paco Lazkano elizako laguntzaileak bi aste eman ditu San Pedroko harriak garbitzen. | JAGOBA DOMINGO



JOKIN BEREZIARTUA

Aramaion etxe kaleratzeak ekiditeko, denak elkarrekin | 27

## Kalea agertoki eta eskaintza aberatsa

Udan kultura eskaintza kalera ateratzen dute Debagoiengan, atzerriko eta bertako gonbidatuekin | 32



OIHANA ELORTZA

Astehenetik aurrera, Oñatin hondakinak atez ate | 10

SINADURAK



ANDONI URZELAI | 6



LEIRE KORTABARRÍA | 40



AGURNE BARRUSO | 40

DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 | HERRIAK 10 | KIROLA 30 | KULTURA 32 | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38

# Telefonoarena, bitxikeriaz jositako iraultza

Europako telefono-sare aurreratuenetako bat izan zuen Gipuzkoak, baita Debagoienak ere

**LEIRE KORTABARRIA** | ARRASATE  
Gipuzkoa kasu berezia izan zen telefonoari dagokionez. XX. mendeko lehenengo hamarkadan, Gipuzkoa txikiak, lur aldetik bihurriak, ezaugarri guztiak zituen telefonoa arrakastaz inplantatzeko, eta halaxe izan zen. Gipuzkoaren ekonomia, industria eta merkataritza bultzatzen erabateko garrantzia izan zuen telefonoak, orduan hain berritzailea zen asmakizun hark. 1908. urte aldera, Donostiako Udalak hiriburuko sarearen titulartasuna lortu zuen, eta Gipuzkoako Diputazio Probintzialak lurraldeko herriak telefono bidez lotzeko eskubidea lortu zuen. Hego Euskal Herriko kasu bakarra izan zen, eta Espainiako diputazioen artean ere ez zen halakorik izan; horietan guztietan, Espainiako Compañía Telefónica Nacional de España zen telefonoa instalatzeko eta berau mantentzeko arduraduna. Gipuzkoaren egoera pribilegiatu horrek 50eko hamarkadara arte iraun zuen; urte horretan, Telefonicari eskualdatu zizkioten esplotazio eta mantenu eskubideak. Baina Gipuzkoan beste inon baino azkarrago jarrai-

tu zuen garatzen teknologia berriak, eta, 1953. urtean, Hego Euskal Herrian eta Espainian, Gipuzkoa zen herri arteko komunikazio automatizatua zeukan lurralde bakarra.

Garai hartan, telefono-zentral bitartez funtzionatzen zuten telefonozko komunikazioek. Debagoienean, Bergaran ipini zen zentral nagusia, eta 1917an haren mendean zeuden Angiozar, Antzuola, Arantzazu, Araotz, Aretxabaleta, Elgeta, Eskoriatza, Arrasate, Oñati, Leintz Gatzaga, San Pedro, Santa Ageda, Bergarako tren-estaziotikoa, Zubillagakoa eta beste estazio batzuk. Telefonistek konektatzen zituzten lineak, eta dei guztiak haien bidez egiten ziren; ez zegoen beste modurik. 1908an oposaketa bidez aukeratu ziren Gipuzkoako lehenengo telefonistak, denak emakumeak: 69. Gaztelaniz eta euskaraz ondo moldatu behar zuten.

**Enpresek bere linea zuten**  
Debagoienaren industriarendako oso garrantzitsua izan zen telefonoa. Orduko enpresa handien artean zegoen Vergarajauregi, Resusta y Cia, Arrasaten, Bergaran eta Aretxabaletan, gero Union Cerrajera izango zena; Oñatin, iltzegintzan 200 langile zebiltzan, eta Garay poxpolo-lantegian, 300. Zerrajeraren barruko lineak, Arrasate eta Bergarako lantegiak

## Mende Erdiko historia

**1908** Gipuzkoako Diputazioak herriak telefonoz lotzeko eskubidea lortu zuen.

**1917** Hainbat zentral ipini ziren Gipuzkoan; eskualdeko zentral nagusia Bergaran zegoen.

**1924** Urbia auzoan lokutorioa instalatu zen. Lorpen handia izan zen Gipuzkoako arduradunendako.

**1950** Gipuzkoako sare Telefonticaren esku geratu zen.



30eko hamarkadako telefono bat, Lorentzo Laskurain bergararrak etxean duena. | L.K.

## ESANAK

**"Enpresako biltegiari aparailu bat geneukan eta bulegoetan, beste bi"**

**"Telefonoa oso garrantzitsua zen; bestela, postaz egin behar izaten zen dena"**

LORENTZO LASKURAIN  
BERGARARRA

konektatzen zituena, 80ko hamarkadara arte iraun zuen, Josemari Velez de Mendizabal historialariak gogoan duenez.

Lorentzo Laskurain Josu Ore-giren enpresan lan egindakoa da eta etxean dauka biltegiako telefonoa, 30eko hamarkadako. Bergaran telefonoak zela funtzionatzen zuten azaltzen digu: "Dei guzti-guztiak Bergarako zentraletik pasatzen ziren. Mizpildi kalean zegoen. Guk enpresan, biltegiari geneukan aparailu bat eta bulegoetan beste bi; zentralita ere bageneukan. Ahotsetik ezagutu egiten genituen telefonistak". Deia egiteko, "konferentzia eskatu behar zen, eta 10 minutu, 15 minutu... behar izaten zen konektatzeko. Batzuk haserretu egiten ziren itxoiteagatik", esaten du Lorentzo Laskurainek.

Enpresendako eta jendearendako ere, "oso garrantzitsua" zen



Kaskoa funtsezkoa da. Istripuan, buruko zaurien arriskua %85 murriztu dezake.




Ikusi bideoa:  
[goiena.net/gaia/errespetatu](http://goiena.net/gaia/errespetatu)

**Errespetatu dezagun. Errespetatu gaitzazu.**



Primo de Rivera Oñatin, 1927an; telefono-konexio berezia egin zen. | EUSKOMEDIA



Telefonistak Donostian, 1909an. | EUSKOMEDIA

Sistema hori zeukaten Bedoñan, Angiozarren, Udalan...auzo gehienetan.

Oso esanguratsua da Urbiaren kasua. 1924an ipini zuen han telefonoa Diputazioak, udan artzainek erabil zezaten. 1.200 metroko altuera dauka auzoak, eta han telefonoa ipini nahi izan zuen Diputazioak, halako leku baten egin ahal bazen, edozein bazterretan egin zitekeela erakusteko. Maria Luisa Ibasate historialariak *La telefonía en Gipuzkoa* tesian idazten duenez, 65 poste sartu zituzten eta burdinazko 4.300 metroko zirkuitua instalatu zuten, dena lau egunean. Urbiako fondako Aritz Altubek esaten duenez, "fondaren gaineko antzinako iragarki batek telefonoa zeukala nabarmentzen du, gauza berezi moduan". Bilboko mendi elkarte batera egin ei zuten lehen deia. *Urbiatik deitzen dut*, esan zioten hartzaileari; *Hara ze amerikana!* erantzun eta eskegi, hark.


Oñatin bertan, beste momentu esanguratsu bat Primo de Rivera generalak, Espainiako Ministroen Batzordeko presidentek Arantzazuko Santutegia bisitatu zuteneko izan zen, 1927ko irailaren 9an, Arantzazuko Amaren egunean. Bisita horretarako propio, Gipuzkoako probintzia-sareko ardura-dunek Arantzazu-Oñati eta Oñati-Donostia lineekin zirkuitua osatu zuen eta sare automatikoarekin konektatu zuen. Airez 69 kilometroko konexioa zen. Gipuzkoako telefono sarea Europako onenen artean ipintzeko Diputazioaren

telefonoa. "Bestela, postaz egin behar izaten zen dena: bezeroekin harremana, eskaerak...".

#### "Hara ze amerikana!"

Hasieran, etxean jende gutxi zeukan telefonoa. Auzoetan, batez

ere, lokutorioak ipini ziren: familia batek telefonoa izateko ardura hartzen zuen eta, deia zegoen bakoitzean, zegoionari abisatzeko ardura ere bazeukan. Inork dei egin nahi izanez gero, hitz egin ondoren ordaindu behar zion.



Etxaide ingeniaria. | EUSKOMEDIA

## Ingeniari baten bisioa

Ignacio Maria Etxaide Lizasoain (1884-1962) ingeniari industrial donostiarra zen. 1909tik 1949ra arte, Gipuzkoako Probintzia-Sare Telefonikoko zuzendaria izan zen. Aitor Anduagak idazten duenez, herriak elkarren artean telefonoz lotu zitezen telefono-sarea sortu behar zela konturatu zen, eta hura finantzatzeko konbentzitu zuen Diputazioa. 1921ean, 1.457 km kable zegoen instalatuta, eta 100 km<sup>2</sup> bakoitzeko 216 abonatu zegoen Gipuzkoan, munduan seigarren dentsitate handiena, Danimarka, Herbehereak, Suitza, Alemania eta Erreinu Batuen atzetik.

ahaleginaren erakuslea da instalazio berezi hori.

Oñatiko lehenengo telefono-zentrala Kale Zaharreko 1. zenbakian (orduan, Alzaa kalea, 3) zegoen, Jerardo Elortzak kontatzen digunez. Lehenengo telefonistak Agirre ahizpak izan ziren, eta Dionisio Korkostegi alde batetik bestera ibiltzen zen, deia zuenari erreka-dua eroaten.

#### Zenbaki bat 100 etxerako

Angiozarren, hiru lekutan egon izan da auzoko lokutorioa: Azulena etxean, goiko tabernan gero, eta Kamiñerokua etxean. 1990ean lortu zuten auzotarrek telefonoa etxeetan prezio onean ipintzea.

Jose Angel Mikeo auzotarrak gogoratzen duenez, "auzoko 100 etxe inguruk 943 76 16 19 zenbakia zeukaten emanda; hori zen auzoko zenbakia". Horregatik, norberaren etxean telefonoa ipintzeko obrek iraun zuten bitartean, zenbaki hori liburutegian ipini zuten, erantzungailu automatikoarekin, eta liburuzainak pasatzen zuen abisua deia zegoenean.

Auzoko telefono horretatik ere ezin izaten zen zuzenean edozein lekutara deitu; zentralita Azpeitian zegoen eta dei guztiak handik pasatzen ziren. Telefonistari linea eskatu behar zitzaion, eta zenbakia eskatu; adibidez, Elgetan bizi zen medikuari deitzeko, Elgetako halako zenbakiarekin konektatzeko eskatu behar zitzaion. Gaurko telefonia eta komunikazioak ikusita, oso antzinako kontuak dirudite, baina ez dira hain aspaldikoak.

**SIMS**  
**SERVIMASA**  
Sukaldeko altzariak eta osagarriak




**BERGARA**  
Aitziturri 4, 193 posta-kutxa  
Tel.: 943 76 19 95 Faxe: 943 76 07 49  
E-posta: [bergara@servimasa.com](mailto:bergara@servimasa.com)  
**LEZO**  
103 industria poligonoa  
Tel: 943 52 05 00 Faxe: 943 515757  
[www.servimasa.com](http://www.servimasa.com)




**Renove  
Plana 2013**  
Aprobetxa ezazu.



**375 €-rainoko  
dirulaguntzak!**



**Birziklatzeko erraztasunak ematen dizkizugu.**



**Zatoz eta informa zaitez!**



# AHTren zubiaren zutabeak eraikitzen dihardute AP-1 autobidearen gainean

Abuztu-irailean igarriko dugu obra horren eragin handiagoa errepidean; zirkulazioa eten egin beharko dute zenbait momentutan

UBANE MADERA | BERGARA

Abuztua. Horixe da Abiadura Handiko Trenaren obren Bergarako zatian kontuan hartu beharreko datarik gertukoena. Halaxe da, Deba ibaia eta GI-627 errepidea zeharkatuko duen trenbidearen zubi erraldoiaren zatirik ikusgarriena (tableroa) eraiki ahal izateko autozinbra izeneko sistema orduantxe hasiko direlako muntatzen.

Azalpenetan sartuta, tableroa da trenbidearen beraren pasabidea, eta autozinbra da eraikuntzan erabiltzen duten sistema bat. Hura erabilia posible da tableroa eraikitzea lurrean egon barik. Autozinbra, berriz, habe metaliko batzuen gainean eraikitzen da eta habe horiek bao edo kofadura baten pilare edo zutabeetan. Eta hain zuzen, abuztuaren hasiko dira autozinbra muntatzen eta irailean lehen bao edo kofadura egiten.

## 83 metroko zutabeak

Tableroari berari dagokionez, berriz, hegoaldeko iparralderako noranzkoan hasiko dira eraikitzen; hala, AP-1 autobidearen gainetik pasatzen den zatia izango da eraikiko duten azkena. Horrela jakinarazi du Manu Ruedak, trenbidearen lanon jarraipena egiten diharduen Euskal Trenbide Sareko ordezkaririk.

"Deba ibaiaren gainetik joango den zubia 900 metro luze izango da eta 13 zutabe izango ditu; haien artean altuenak izango dira Deba ibai bazterrean eraikiko direnak, 83 metroko garaiera izango dute, hain zuzen. Zutabeen arteko bao (distantzia) nagusia 80 metrokoa izango da, AP-1 autobidearen gaineko pasabidea gainditu ahal izateko. Zutabeak hormigoi armatuz egindakoak izango dira eta enkofratu bitartez exekutatu dira", zehaztu du Ruedak. "Tableroa, berriz, 14 metro zabal izango da", gaineratu du.

Gaur egun hegoaldeko zutabeak daude eraikitzen; bestela esanda, Bergara-Antzuola arteko



Trenbidearen lanak Bergarako zatian, AP-1 autobidea beheko aldetik pasatzen dela. | ETS



GI-627 errepide ondoko obrak, atzo, eguena. | IBAN MORALES

loturari dagozkionak. Eta horrekin batera, errepidearen beste aldean ingurua egokitzen dihardute, geroko lanetarako.

## Zirkulazio eteteak

GI-627 errepidea bertatik pasatzen denez, pentsatzekoa da tren las-

terraren obrek zirkulazioan ere eragina izango dutela, orain dutena baino handiagoa, alegia. Eta halaxe izango dela baieztatu du ETSko ordezkaririk: "Babeseko portikoak ipintzeko beharrezkoa izango da zirkulazioa etetea. Table-roaren beheko aldean ipintzen

dira portiko horiek, errepidearen gainera hormigoi hondarrak eta bestelako objektu txikiak jaus ez daitezten, hain zuzen ere. Dena dela, egingo diren zirkulazio eteteak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta trafikozuzendaritzarekin koordinazioan egingo dira, eta behar den moduan jakinaraziko ditugu".

## 2014ko amaieran

Obren zati horren epeei buruz galdetuta, berriz, Manu Ruedak adierazi du "zubia aurtan eta datorren urtean bitartean" eraikiko dela, "amaiera 2014ko bukararako aurreikusita izanik".

900 metroko biaduktuaz gainera, Abiadura Handiko Trenbidearen zati horrek bi tunel txiki ere izango ditu, 246 eta 240 metrokoak. "Oraindik ez dira hasi egiten. Hori bai, dagoeneko eraikita daude trenaren ibilbide zati hori osatzen duten gainontzeko hiru zubiak".

## Sua piztu zen atzo, eguena, Bergarako etxe batean

GOIATZ ARANA | BERGARA

Bergaran sustoa izan zuten atzo, eguena. Izan ere, udalerriko alde zaharreko etxe batean sutea izan zen, arratsaldean.

Hain zuzen ere, Bidekurtzeta kaleko zazpigarren zenbakian piztu zen sua. Udal-tzaingotik adierazi zuten, 14:45ak inguruan jaso zuten sutearen gaineko abisua eta, 10 minutura, bertan ziren suhiltzaileak. Badaezpada, gainera, lau pabost kamioi bertaratu ziren.

## Bizilagunak etxetik kanpora

Segurtasun kontuengatik, etxeko bizilagunak etxetatik atera zituzten, eta kalea moztu egin zuten erabat, lan egin ahal izateko.

Zorionez, dena den, 15:35erako sua kontrolpean zuten, kerik ia ez zen ikusten. Eta kalte pertsonalik ere ez zuten eragin. Guztiz konfirmatu ezin izan duten arren, badi-rudi ganbara batean piztu zela sua, zirkuitulabur batek eragina.



Suhiltzaileak lanean. | JON BEREZIBAR

## Emilio Olabarriak (EAJ) pentsioen gainean jardungo du Arrasaten

*Mehatxatuta daude gure pentsioak?* Izenburu horrekin egingo du berbaldia Espainiako Kongresuko diputatu Emilio Olabarria jeltzaleak Arrasaten. Astelehenean, uztailaren 1ean, da hitzaldia, 17:30ean, Kulturateko areto nagusian. Gipuzkoako Jubilatuta eta Pentsiodunen elkar-teak antolatu du, "elkarteko afiliatuak informatzeko" helburuarekin. Hain zuzen ere, gure ibarreko erretiratuaren ordezkariei zuzendutako hitzaldia da Olabarriak egingo duena, "gero haiek tokian tokiko elkarteetara" informazioa eraman dezaten. Hori horrela, beharrezkoa izango dute gonbidapena eskuratzea hitzaldira sartzeko. Elkarteetan emango dituzte.

## Obraren ezaugarri orokorrak

Euskal Trenbide Saretik bidalitako muntaiak erakusten du zela geratuko den Antzuola-Bergara trenbide zatia, obrak bukatuta. Erreferentzia moduan, beheko partean azaltzen den etxea Olako etxea da, eta haren ondoan azaltzen den hurrengo biaduktuaz, berriz, AP-1 autobideari dagokiona. Antzuolatik dator AHTren trenbide zatia eta Angiozar auzoa zeharkatuta (bertako trenbide zatiak eginda daude) segituko du Arrasaterako bidea. Antzuolatik Bergarako bidean, berriz, goiko argazki handiak erakusten duen moduan, tunel bat eraikitzen dihardute. Kortatxo-Sakon izena ipini diote hari, 3.700 metro ditu eta gaur egun haren estaldura exekuzio fasean dago. Bergara aurreko trenbide zatiak Adifi (Estatuko trenbide sareari) dagozkio eta hasi barik daude.



Trenbidea zela geratuko den erakusten duen muntaia. | ETS



Antonio Irazola, Elkoroaren argazkiaren ondoan, 2010ean. | GOIENA

## Lehen ikurrina jaso zuen zinegotzi bergararra hil da

Antonio Irazola 'Saizabal' 88 urterekin hil zen, Bergarako bere etxean, joan den astean

G.A./U.M. | BERGARA

Bergararra izan arren, Bergarako mugak gainditu egiten ditu Antonio Saizabal-en oihartzunak. Bereziki, Euskal Herrian oso esanguratsua izan zen egiteko bategatik: frankismoaren osteko lehen ikurrina jaso zuen hark.

Hain justu ere, Bergarako udaletzeko balkoian ipini zen lehen aldiz ofizialki ikurrina, 1977ko urtarrilaren 19an, San Sebastian egunaren bezperan, Jose Luis Elkoro alkate zela; Elkoro lideratutako alkateen mugimendua berebiziko garrantzia izan zuen trantsizio garaian, ikurrina legezbatzearen auzian, besteak beste.

### Hiru arlotan aitzindari

Ikurrina ipintzen aitzindari izateaz gainera, Antonio Saizabal (hala esaten zioten lagunak) beste bi arlotan ere aitzindari izan zela azpimarratu dute haren gertukoek: lan munduan eta sektore ofizialari aurre egiteko 60ko

hamarkadan gure udaletan sartu zen korrontean.

### Langileen lagun

Lan munduan egindako ibilbideari dagokionez, Saizabal sindikatu demokratikoen aitzindari moduan deskribatu dute. 1963an Maycen egiten zuen lan, grebak debekatuta zeuden sasoi batean. Hala ere, greba batean parte hartu zuen bultzatzaile moduan eta horren ondorioz, bota egin zuten enpresatik. "Orduan sindikaturik ere ez zegoen; beraz, esan daiteke sindikalista klandestinoa izan zela", adierazi dute.

### Sektore ofizialari aurre egiten

Bestalde, 1965-66an Arrasaten korrante bat sortu zen kooperatiba mundutik eta Lanbide Heziketako Eskolako irakasleengandik. Korrante horretan erabaki zuten udaletan parte hartu egin behar zutela. Kontuan hartu behar da orduko udalak frankistak zirela, eta herritarrek ez zutela ber-

tan parte hartu nahi. Bada, korrante hori kontrakoa zen; eta Arrasaten sortu arren, berehala zabaldu zen ingurura, Oñatira eta Bergarara, besteak beste. Horrekin batera, sasoi berean aukera izan zen hauteskunderarako zinegotziak aurkezteko eta Bergaran talde bat sortu zen. Irazola taldeko kide zen. "Logikak eskatzen zuen sindikatuen kandidatura joan behar zuela hark, baina sindikatuak oso kontrolatuta zeuden, eta erabaki zuen beste bide batetik sartzea. Ikusi zuen errazagoa litzatekeela tertzio familiarretik sartzea, eta hala sartu zen, 1966an. Posizio ofizialei aurre egitea eta udaletan parte hartzea zen planteamendua. Haien atzetik beste batzuk etorri ziren, eta 1976an, Espainiako lehen presidente Arias Navarrok legea atera zuen 10.000 biztanle baino gehiagoko herrietan aukera emanez zinegotziak alkate izateko. Eta 1976an gehiago zirela, Bergaran aukeratu zuten Jose Luis Elkoro izendatzea alkate. Beraz, Antonio Irazola zentzu horretan ere aitzindari izan zen", kontatu dute.

### Bergarako Udal Gobernua

Astelehenean, hilak 24, Bergarako osoko bilkuran, Jesus Elortzak -egun hartan utzi zuen alkate kargua- ere gogoan izan zuen Antonio Saizabal: "Zinegotzi abertzalea izan zen, Francoren garaian, eta lan handia egin zuen Bergararengatik eta Euskal Herriarengatik. Galera handia izan da haren heriotza", esan zuen Elortzak, eta doluminak eman zizkien haren senitartekoei, Udal Gobernu Taldearen ize-nean.

Antonio Irazola Altuna Saizabal Bergarako Aritzeta auzoko Sagastizabal baserrian jaio zen 1924. urtean.

**Aitzindaritzat dute 'Saizabal', lan munduan, udaletan eta ikurrina jasotzen**

## Lehen sektorea berpizten laguntzeko mahaia osatu dute Debagoieneran

Debagoieneko Mankomunitatearen bitartez osatu da mahaia, hil honetan bertan

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

"Lan txukuna egin zen Saiolanen bitartez eskualdeko ehun industrialaren gainean, eta lan horretako ondorioen artean zehaztu zen antzerako zerbait egin behar zela lehenengo sektoreari begira (nekazaritza) eta baita hirugarren edo zerbitzu sektoreari begira".

Hori abiapuntu moduan hartuta eratu dute lehen sektorea berpizten laguntzeko mahaia. Eta industria arloarekin egin zen moduan, nekazaritza berpizteko mahaiaren osaketa Debagoieneko Mankomunitatearen bitartez egin da. Hala jakinarazi du Josu Lizarralde, Mankomunitateko Garapen Agentziako batzordeburua.

Hark, era berean, argi utzi gura izan du, baina, mahai horren osaketan Bagara Herri-gintza taldeak zeresan handia duela: "Lehen sektorearekin lotuta bide handia eginda du, eta horregatik Bagararekin egin genuen hasierako batzar bat. Han, lehen sektorea, ikastetxeak, jantokiak (hemen produzitu hemen kontsumitu filosofia abiapuntu moduan hartuta) eta bailaran arlo horretan dauden bestelako elkarteak-eta aztertu genituen eta haiek gonbidatu genituen lehen sektorea berpizteko lehen batzarrera; Leintz Gatzagan egin zen".

### Irailean, bigarren batzarra

Bukatzea doan hilabete honetan egin dute lehen batzar hori. Ekimen berri baten hasiera besterik ez da izan. "Landa Garapen Elkarteak, Jakion, Bagara, udaletako arloko zinegotzi edo alkateak, teknikariak, Jaki-

berri... izan ziren; eta gerora gehiago erakartzea da asmoa. Baina hasiera batean indarrak batu eta lehen sektoreari begira ze proiektu egin daitezkeen aztertzea da helburua", esan du Lizarralde. "Nekazaritzaren inguruan lanean dabilenak edo beste edozeinek lehen sektorearekin lotutako ideiak baldin baditu, harremanetan jar daitezke Garapen Agentziarekin, eta mahai horretara eramango ditugu dauden ideiak", gaineratu du hark.

Hain justu ere, nekazaritza berpizteko mahaiaren bigarren batzarra irailean egingo dute.

### Industria mahairako, dirua

Bestalde, industriaren gaineko mahaiari edo foroari dagokionez, berri, uztailan hitzordu garrantzitsua dute: Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batzarra. "Proiektuen garapenerako diru-kopuru jakin bat du Diputazioak, eta hitzarmena gura dugu sinatu Diputazioa eta Landa Garapen Agentziaren artean, diru hori dauden ideia edo proiektuak finantzatzera bideratzeko", dio Lizarralde.

Zeregin horretarako 850.000 euro ditu Diputazioak poltsan. "Gipuzkoako guztirako da. Lehen deialdian 450.000 euro banatuko ditu, eta bigarrenean, 400.000. Eskualdeko banatuko du dirua, eskualde bakoitzari kopuru finko bat emango dio, gehi biztanleko beste kopuru bat. Orain, foroa deitu beharko dugu (industria mahaia), eta han eztabaidatu dauden proposamenen artean zeri eman lehentasuna finantzazio horri emateko", azaldu du Lizarralde.

## Arazo barik, preso eta iheslarien eskubideen aldeko manifestazioa

Asteleheneko deialdia debekatuta geratu ostean egin zuten martitzenekoa

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

San Juan egunerako aurreikusita zegoen euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko kalejira debekatuta geratu ostean, Txosna Batzordeak martitzenekoa deitu zuen manifestazioan ez zen arazorik egon. 18:30ak pasata zirela irten zen Seber Altube plazatik, Txosnagunean amaitzeko. Jende askotxok egin zuen bat deialdiarekin; Garikoitz Lopez de Munain Txosna Batzordeko kideak esan digunez, erantzuna "zabala" izan zen: "Jakinda

jaiak direla-eta batzuk ez direla agertu, jendeak ondo erantzundu. Horrek adierazten du haserrea badagoela eta indarrak dauden bitartean horri eutsiko diogu". Hark zera ere gaineratu zuen: "Debeku guztien gainetik salaketa irmo" bat egitea zen aldarrikapenaren helburua: "Eurek oztopoak planteatzen dituzte etengabe eta gure jarrera da borrokan jarraitzea. Esaten duguna, jaiak bai, borroka ere bai. Arrazoiak ditugun bitartean borrokan jarraituko dugu".

Euskal presoekin zein iheslarien aldeko oihuak entzun ziren etengabe protesta ekitaldian.

### "Salbuespen neurriak"

Hain justu ere, ekimenaren deitzaileek adierazi zuten "oso kezkatu" daudela "euskal preso eta iheslari politikoek jasaten duten egoerarengatik". Gogora ekarri zuten, besteak beste, Jesus Mari Zabarte arrasatearrak 29 urte daramatzala espetxean eta "bizi arteko zigorraren doktrina" aplikatu diotela.




Manifestazioa Iturrietz kaletik barrena. | JOKIN BEREZIARTUA

"Gainontzeko 11 presoak dispersaturik aurkitzen dira Espainiar zein Frantziar estatuetako espetxeetan gure herritik ehunka kilometrotara", salatu zuten, Arrasateko presoekin gainean.

Eta "salbuespen neurrietan oinarritzen den espetxe politikaren desaktibazioa" eta preso gaixoen etxeratzea, "biziarteko zigorraren desaktibazioa" eta "presoekin herriratzea" eskatu zuten.

## ZABALIK

ANDONI URZELAI  
http://goiena.net/iritzia/



## "Be cool, my friend"

Markel du izena. 39 urte ditu. Anbulatorioarantz doa. Bizkarreko minez dabil. Balkoietan eskegitako zabor poltsa beltzei bota die begiratua. Berean ez du jarri, baina gustura esekiko luke berak ere. Kontu, ekologizatza dauka bere burua. Maite ditu Pirinioak, mendiko arropak eta sinpatia die urrutiko itsasotan baleen alde dabiltzanai. Tarteka birziklatzen ditu paper eta kristalak, baina norbere kaka guztiak norberak kudeatu beharra askotxo iruditzen zaio, gehiegikeria hutsa! Arduratu dadila udala horretaz!

Bidean *El Diario Vasco* erosi du. Euskalduna da, baina apenas kontsumitzen du ezer euskaraz. Ohitura faltagatik edo, gaitza egiten zaio euskaraz irakurtzea, neketsua. Musika edo zinema euskaldunak ere ez du kontsumitzen, baldarra iruditzen baitzaio. Gainera, ze demonio! Errealaren berri *Diario Vasco*-k ematen du ondoen. Ezkertiarra ere bada Markel. Solidarioa Hego Amerikako emantzipazio mugimenduekin eta sentibera Afrikako haur koitaduekin. Hala ere, mesfidantzaz behatu ditu anbulatorioan atzeritarrak, berari dagokion zerbait lapurtzera etorri balira bezala, horixe pentsatzen baitu isilpean: banpiroak lez zurruputzen dituztela etorkinek gizarte-laguntzak. Doazela, ba, norbere herrietara, dedio!

Egunkaria zabaldu du. Deskalabruak (politiko-ekonomiakoak) ez du amaierarik. Ez du ulertzen nola ez dauden kaleak sutan, nahiz eta, egia esan, berak ere ez duen protestetan parte hartzen. Utikan! Zertarako? Bilboko budista batek beste bi emakume hil dituela irakurri du. Hasperen egin du Markelek, emakumeen kontrako jazarpenak (fisiko, psikiko, ideologikoak) nazka ematen baitio. Hala ere, sarri erabiltzen ditu lagunartean "golfilla" eta "guarrilla" bezalako hitz inofentsiboak, gauza ezberdina baita matxote rola antzeztea eta matxista izatea. Gainontzean, txapela buruan daroala dabil munduan Markel, Basque Countryko beste biztanle *cool* bat delakoan.

### "Ohitura faltagatik edo, gaitza egiten zaio euskaraz irakurtzea"

## USTEAK USTE

LEIRE KORTABARRIA | lkortabarria@goiena.com

## Emigrante diruduna

A durra dariola dago prentsa, futbol entrenatzaile famatu batek, Alemanian, bere buruaren aurkezpenean, alemanez berba egin zuelako. Txaloka, zelako ederki egin zuen alemanez herrialde horretan bakarrik lau hilabetean egonda. Esan dute egunean lauzpabost ordu ematen diola hizkuntza ikasteari entrenatzaile dirudunak, beretako bakarrik daukan irakaslearekin. Ez dakit zer irudituko zaien laudorio hori guztia Alemaniara gogoz kontra garai baten zein bestean emigratu behar izan duten guztiak. Haiek bai ikasi behar izan dutela presaka hizkuntza berria, irakasle partikular barik eta dagoeneko lanean hasita, zero askoko txekerik gabe, etxera noiz bueltatuko diren jakin gabe.

## MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | http://goiena.net/iritzia/



## HANDIK ETA HEMENDIK

## Lo, txikia, lo. Elkarrekin?

Nahia Alkorta  
argia.com/blogak/nahia-alkorta/

Badirudi geroz eta gizarte "aurreratuagoa" izan, geroz eta urrunago izan behar ditugula gure haurrak. Hemen ere, ugaztun izaera albo batera utzi nahia agerian geratzen da. Akaso ikusi al duzu inoiz bere kumeak urrun lotan uzten dituen ugaztunik? Kumeak basoaren ertz batean lo utzi eta handik 20-30 metrora lo egitera joaten denik?

Pentsaezina litzateke naturan. Pentsaezina eta oso arriskutsua. Gure kumeak ez dira gai euren burua defendatzeko, eta berehala edozein animalia goseturen afari bilakatuko lirateke. Orduan, zergatik utzi haurrak sehaska batean, bakarrik, guregandik urrun dagoen gelan? Noski, zoragarri eta polit-polit dagoen gela da, gure mimo eta diruz prestaturikoa. Baina haurra gosez, hotzez, beldurrez edo jolasteko gogoz esnatzen denean jarriko al da guk paretan margoturiko iratxoari begira?

Ez. Haurtxoek gu behar gaituzte. Ez gehiago ez

gutxiago. Gu. Hortaz, ez al da errazagoa gurekin izatea? Haurrek "mikroesnatzeak" izaten dituzte, helduok bezala, baina une horietan amaren bularra bilatzen dute normalean. Amaren taupadak gertu-gertu sentitzearekin soilik lasaituko dira maiz, beste askotan bularra hartu nahiko dute, unetxo batez, hor gaudela eta ziur daudela jakiteko soilik. Esne produkzioa mantentzen laguntzeko. Atxikimendua errazteko. Elkarren arteko harremana indartzeko.

Mikroesnatze horietan, behar dutena gertu ez badute, guztiz esnatu eta antsietatez negarrez hasten dira haurrak, eta orduan lasaitzen lagundu beharko diogu, eta berriro lokartu dadin lortu beharko dugu. Horretarako haurraren negarrak esnatu beharko gaitu, gure ohetik altxa, eta bera dagoen gelaraino joan. Haurra lasaitu, bularra behar badu eman eta lokartzean berriro gure ohera bueltatzeko.

Ez al da askoz errazagoa gurekin ohean sartzea? Ez al da naturalagoa elkarrekin lo egitea?

Aurrerago hitz egingo dut ohe partekatzeaz sakonago, baina bitartean, gazteleraz dagoen arren, Ibone Olzaren (haur psikiatra ezaguna)

blogeko sarrera hau zuentzat opari: *Dormid con ellos.*

## Kristo martxa de aki

Erramun Turutarena  
blogak.goiena.net/turutene/

Sarri gaintitzen gaituzte lanek, betebeharrekin, asteari lapurtu ezin diezaizkiogun orduak, nahi dugun guztiak irribarre ezin eskaintzeak.

Sarritan gaintitzen gaitu une batek, ezin erantzunak, zer esan ez jakiteak, barruak hitzetan azaldu ezinakin. Sarri gaintitzen gaitu gure giza baldintzak, guztiak, telebistak, merkatuak, lagunek, nagusiak, internetek, jainko nahi gaituztenen: ahalguztidun eta nonahiko. Orojakile eta plan zerutiar baten jarraitzaile.

Ez dakit zer pasatzen den azken aldi honetan, baina guk, jainkoa sakon lurperatu genuen haragizko jainko-nahiok, robot baten itxurazko irudikatutako dugu dibinitate postmodernoa, gu geu berau bihurtu nahi izateraino. Eta robotikaren legeek ez gaituzte dagoeneko gure buruaz babesten.

Anbotoko leize-zulotik ihes egiteko bafle bila nabil.

goiena  
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte  
E05 Basabe Poligonoa,  
20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Aitor Izagire

Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Zuzendaria Eneko Azkarate

Erredaktore burua Ubane Madera

Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo

Argazkilaria Imanol Soriano

Publizitatea Mireia Larrañaga,  
Amaia Mundifano, Zierza Martin,  
Imanol Elortza

Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa Maria Leturia.

Administrazioa Agurtzane Gaintzarain,  
Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA

ARRASATE 20500:

Utalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA

ARETXABALETA 20550:  
E05 Basabe Poligonoa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550

E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05

Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550

E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05

harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: NA-3329/2000

ISSN: 2174-369X

Tirada: 20.100 ale

Difusioa: 19.951 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia

Arrasateko Udala

Bergarako Udala

Oñatiko Udala

Arexabaletako Udala

Eskoriatzako Udala

Antzuolako Udala

Aramaioako Udala

Elgetako Udala

Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritza  
diruz lagundutako  
aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## GUTUNAK

Euskalduntzea  
lanlekuetanJoxemari Muxika  
Arrasate

Leire Kortabarriak *Berrikuntza soziala euskaraz, Emun-en eskutik* (Goiena 2013-06-21) artikuluan dio: "Hala, euskara plana izan zuen lehenengo enpresa Antzuolako Elay izan zen, 1991. urtean, Eusko Jaurlaritzaren eta Elhuyar aholkularitzaren eskutik. 1996. urtean, Arrasaten Euskalan sortu zen, lana eta enpresa bateratzeko elkarte. 1997an, Emun jaio zen. 1999. urtea mugarri bat izan zen: urte horretarako, Fagor Ederlan ere horretan hasia zegoen. Beste enpresa batzuk euren kabuz pauso batzuk ematen hasiak ziren, baina Emun eta atzeko beste enpresa batzuk sortzeak baliabideak, laguntza, aholkularitza eta metodologiak eman zizkien enpresei".

Paragrafo horretan, besteak beste, esaten da "enpresa batzuk euren kabuz pauso batzuk ematen hasiak ziren". Eta egia da. Horixe argitzeko osagarria izango delakoan hauxe erantsi nahi dut.

Lanlekuak euskalduntzeko mugimendua 1986tik Arrasaten bazen. Euskalan lantaldeak baziren hainbat lanlekuetan eta gutxienez hauetan: JMA, Ikerlan, Fagor Etxetresnak-eko negozio ezberdinak eta Fagor Arrasate.

Guztiak AEDren inguruko ekimen militantez hasiak, lanlekuetako iruditegia euskaraz jarri, Kooperatibetako Barne Erregelamenduetan euskara ofiziala ezarri, hainbat lanpostu betetzeko behar zen perfilak landu eta ildo horretako jarduerak egiten ari ziren. Emun-ek hori guztia bizkortu, hedatu eta kudeaketa metodo hobekin egiten jarraitu du.

Euskalenen izate juridikoari buruz, esan behar da AEDren ekimenak indarra hartzen zihozten neurrian bata bestearen atzetik nortasun juridikoa hartuz joan direla.

Horrela sortu ziren: ARKO (geroago Goiena), Txatxilipurdi, Ekin Emakumeak eta Euskalan. Guztiak izate juridiko propioekin.

Euskalan izenari dagokionez. 1978 inguruan gaurko Fagor Taldea eta orduko Ularco Taldeko kooperatibetarako argitaratzen zen eskuorri baten izenburua izan zen.

Garai hartan bi-hiru urtez, 1983ko krisia sartu arte, hainbat ekimen baziren Ularco lanlekuetan, euskalduntze ikastaroak egiten ziren eta euskarak kooperatiban izan behar zuen tratamendua garai hartako kudeaketa planetan jasoa dago.

'Alkatia eta  
pregonerua'Iñider Solupe  
Arrasate

[Gure kolaboratzaile Iñider Solupek bidali digu ipuin hau, eta egokia iruditu zaigu gutunetan atalean sartzea. Bukaeran duzue egilea]

Lehenengo pasarte (I):  
Sonatua zan inguru guzian Mendiondoko alkatearen ostatu; bera zan herrikoetxe edo kontzejua, alondeia, ikastetxea, kartzela, ardantegia, bizartegia, gauza guziak saltzen ziran denda, eta Urteberri egunetik aurrera baita ere korreoko aministrazioa; hitz batean, gauza guzien tegia, edo gaurko eguneko erdalzaleak esango luketen bezela, zentralizazioa. Beragatik zan ere oso sonatua Mendiondoko alkatea, beste akatsik gabea, baizik erdalzalea izatea; baino bat edo bat erdalzalea izatea ere ondo zan herrian, zer gerta ere.

Bigarren pasarte (II):  
-Anton: orra orain enpleo ona; eta ikusiko degu nola portatzen zeran.

-Alkate jauna, egon bedi ardura gabe; nik ondratuko det beori nere enpleo berrian.

-Gaur pregonatu behar dezu nola nere etxean jarri degun buzoia.

-Zer da putz-ohia? Orain atera dan ohe berriren bat?

-Ez, gizona, ez: korreoko kartak botatzeko lekua; ara, begira ezazu gure atera.

-A! ondo da, jauna; eta nola nahi du? Erderaz ala euskeraz pregonatzia?

-Hobeko dezu bietara egitea, esamesarik izan ez dedin, zu eta ni baino beste erdaldunik ez badago ere herrian. Lehenengo egingo dezu erderaz bigarren euskeraz eta hirugarrenean nahi dezun bezela.

Hirugarren pasarte (III):  
Badijoa pregoia jotzera. Pozik bera eta pozik herriko jente guzia, batez ere alkatea, gauza berri bezela, pregoia aditzeko. Pozaren pozaz ahaztu zitzaion Antoni laister, nekez ikasitako izen buzoia; baina horregatik etzan makaldu; bada arrada luzea atabalean jota, herri guzia inguratu zanean, deadar egin zuen:

-Abiso al plúuubiko. En la postdata (posada) de Señor Alcalde está... está... karta-bujero.

-Ez; ez uan hori horrela, esan zuan alkateak, baino nahikoa dek lehenengorako.

Gainerakoak, nola erderarik etzekiten, han gelditu ziran aho zabalik, beste munduko gauzaren bat esan balu bezela. Anton berriz pabo-erriala baino arroago gelditu zan.

Aditu dezagun orain bigarren pregoia:

-Nere herritar maiteak: gaurtik aurrera korreoko kartak botako dituzute... alkate... jaunaren... zuloan.

Hemen jendeak barre askotxo egin zuen, eta alkatea berriz betozkodun jarri zan. Gainera alkatearen ondoan zegoan atso batek bota zion honi, pregoia aditzean, jaka-poltsiko edo sakelera eskutitz edo karta bat sillu ta guzikoa eta honek gehitu zituen jendearen barreak, baino baita ere alkatearen betozkoa.

-Baino zer gertatzen da? zioan Antonek bere buruari. Badakit, esan zuen; alkatearen etxeak bi ate ditu, bat aurrean

Eliz-kalera begira, eta bestea atzean enparantza edo plaza-txikira begira, eta karta-zuloa atzeko atean dago; bai, atzekoan, atzekoan; etzat ahaztuko, ez; atzekoan, atzekoan eta beti aatzekeooooaan.

Demontre!

Aditu dezagun orain azkeneko pregoia:

-Nere jendeak: gaurtik aurrera botako dituzute korreoko kartak... Alk... atearen... atzeko... zuloan.

Asi ziran txaloka guziak eta Antonek uste izan zuen lehen egindako okerra ondoegi ere zuzendu zuela. "Or, or! Ler egin arte" esaten zion bere buruari txalo-jotzaileagatik. Gauzak honela esaten dira: argi eta garbi.

Laugarren pasarte (IV):

Agauste pavor con presentarse en mi delante en mañana domeka goiz en las diez, para dar algún sastipasion á mi ondra que está abajao en los tres prebones.

A Dios; guarduste muchos años=Mendiondo á uno de Enero de 1.000. 8 sientos 90 y siete=Alcalde=Simon Bapoeta=Señor Don Anton Zorozkarro=Prebonero.

Bosgarren pasarte (V):  
Bigaramonean han zeuden bildurik herriko zortzi gizon (juradua) eta alkatea, beren aurrez-aurre Anton, aulki batean jarrita, zutela.

-Anton: zergatik etzenden esan buzoia izena pregoia jotzean? Ahaztu egin zitzaizun?

-Ahaztu neri, alkate jauna? Ez, ez; baino buzoia esan banu, putz-ohia edo pozoia usteko zuen jendeak zala, eta orduan nora zijoan berorren ostatuaren pama?

-Arrazoi haundia du Antonek, erantzun zuen juraduak.

-Eta Anton...

-Zer nahi du, alkate jauna?

-Zergatik esan dezu, botatzeko kartak alkatearen zuloan?

-Ara, jauna: etxea bedorrena da; beragatik atea ere bai; eta alaxe da ere berorrena atearen zuloa, eta

han botatzea, da berorren edo alkatearen zuloan botatzea.

-Arrazoi du Antonek, esan zuen berriz ere juraduak.

-Eta, Anton...

-Agindu beza, alkate jauna.

-Zergatik esan zenduen ba, kartak botatzeko alkatearen atzeko zuloan?

-Berorrek artarako libertatea eman ziralako.

-Nik? En el ombre del Padre!...

-Bai, jauna; esan zidan berorrek, lehenengo pregoia egiteko erderaz; bigarrena, euskeraz eta hirugarrena, neronek nahi nuen bezela.

Alaxe bada nahi izan nuen.

-Arrazoi haundia baino haundiago du Antonek, esan zuen juraduak; eta hasi zan zurrumuru bat, hobe izango zala Anton alkate jartzea. Alkateak igarri zion, eta guziak beldurtzeko, zut-zutik jarrita, deadar egin zuen: "Abajo errebolusion!". Baino alperrik zan; zurrumuruak geroago ta indar gehiago artzen zuen, eta orduan artu zuen alkateak beste asmo bat. Ekarri zuen bera zegoen lekura zagi bat ardo, eta esan zuen: "Jaunak, egin dezagun abroka".

Eta Antonek erantzun zuen: Egin dezagun abroka / Nahiz eta gero joan alboka / Edo bestela arrolka / Bazterrak hor-hemen joka.

Goiz alderaino iraun zuen batzar artako abrokak, eta egiaz alboka, arrolka bazterjoka, eta barrukoak botaka joan behar izan zuten beren etxeetara, bideetan seinale edo ezagungarriak utzia.

Bigaramonean atsoak zer esan asko zebiltzen batzar honen gainean. Bazebiltzen ere ixilka-mixilka batak besteari esanez beste zerbait, baino inori ez esateko.

Laster jakin zan herri guztian. Batzarra egin zan gizategiko leioak idikitzera joan zanean neskamea, aurkitu zituen mahai-pean bi gizon: alkatea ta pregonaria.

[Pedro Miguel Urruzunok *Euskalzale* aldizkarian 1899ko urtarrilaren 12an argitaratutako ipuina]

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

## SANJUANAK

GOIENA TELEBISTA | JAIK: SAN JUANAK 2013, ARRASATEKO JAIK

EGUBAKOITZA, EKAINAK 28, 22:30

BABESLEA: CITROËN CHAPIME



**Mari Carmen Gallastegi** | EHUko Ekonomia katedraduna eta doktorea

# "Ezin ditzakegu eduki alemaniarren soldatak, baina Txinarekiko lehiakorrak izan gaitezke"

- ▶ Eusko Ikaskuntza saria jasoko du ekonomialari eta Jakiundeko kide bergararak urrian
- ▶ "Jakiunderendako eta Bergararendako ona da Jakiunderen egoitza Bergaran egotea"

ENEKO AZKARATE | BILBO

Mari Carmen Gallastegi Zulaika (Bergara, 1945) Jakiundeko kideetako bat da. Teoria Ekonomikoan katedraduna eta Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Ekonomia Publikorako Institututuko Ingurumen Ekonomia Unitateko zuzendaria da. Aurtengo Eusko Ikaskuntzako saria jasoko du udazkenean.

**Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa saria eman dizue. Pozik hartu duzu berria?**

Bai, ilusio handia egin dit, bi erakunde handi daudelako sari horren atzean eta epai-mahaian euskal unibertsitate guztietako ordezkariak daudelako. Niretako ustekabea izan da.

**Eusko Jaurlaritzako sailburu izan zinen 1991n, Ardanzarekin, EAren izenean. Hura ere ez zen koiuntura oso ona ekonomiarendako, ezta?**

Oso denbora laburrean egon nintzen Jaurlaritzan; izan ere, EAJ, EA eta EE ginen koalizioan eta ezegonkor samarra zen egoera politikoa, edo koalizioko kideen artekoa. Eta, bai, koiuntura ezberdina zen hura. Krisian geunden eta gure ekonomia ez zegoen ondo. Bereziki, petrolioaren igoerarengatik. Gure teknologia zaharkituta geratu zen. Teknologikoki, gure industria ez zen lehiakorra, petrolioak kostuak asko garestitu zituelako. Txarto pasa genuen 90eko lehen bost urtekoan. %25eko langabezia tasa geneukan. Industria krisia izan zen hura. Sektore jakin batena. Industria asko desagertu zen. Euskadi beti izan da kanpoan saltzekoa eta ezin genuen lehiatu. Horrek ekarri zituen enpresak ixtea, birmoldaketak, langabezia... Latza izan zen.

**Oso kritikatuak izan dira krisitik irteerako Europak hartu dituen neurriak. Zer irizten diozu?**

Gertatu da krisiak harrapatu gaituela Europa ondo eraiki barik dagoela. Eta denok gaudenez Europan barruan... Europan sartu aurretik baliabide gehiago genituen krisiari aurre egiteko: monetaren debaluazioa, politika ekonomikoak aldatzeko gerri handiagoa... Orain ez daukagu hori eta Europa askotarikoa da, asimetrikoa. Iparraldeko eta erdialdeko herrialde aberatsak, alde batetik, eta erditik hegoalderakoak, bestetik. Eta batzuekiko ona dena, besteendako txarra da. Eta alderantziz. Batzuen eta besteen arteko lehiari aberatsak nagusitu dira, komeni izan zaien politika ekonomikoa ezarri dutelarik.

**Eurotik irteera da irtenbidea?**

Eurotik aterako bagina, uste dut, oro har, galtzen aterako ginate-

keela. Oso urte txarrak igaroko genituzke. Eta gauza on asko, gaur egun baloratzen ez ditugunak, baina baditugunak, faltan botako genituzke: merkatu komuna; herrialdez herrialde libreki, nahi dugunean, mugitzeko aukera; gure seme-alabek han edo hemen lan egiteko aukera... Hortaz, Euroaren aurka daudenak, uste dut ez dituztela egiten kalkulu guztiak, onura ekonomiko eta sozial guztiak ez dituzte aintzat hartzen. Azkenean, uste dut, krisi hau ikasgai ona izan beharko litzatekeela etorkizuneko oinarriak zehazteko, Euroa guztiondako ona izan dadin eta ez diezaion inori kalterik egin. Eta moneta politika herrialde guztien interesendako onuragarria izan dadin.

**Alemaniak bere garaian egiturazko erreformak egin zituen moduan geuk ere hemen garaiz, oparaldian, egin izan bagenitu orain hobeto geundekela diote batzuek. Zer diozu?**

Egia da Alemaniak urte txarrak pasa zituela, batez ere bi Alemaniaren batetik. Eta aberatsenak, bereziki, ahalegin berezia egin behar izan zuten. Euren zergekin finantzatu behar izan zelako batetik. Sakrifizio handia izan zen haiendako. Eta, hura egiterakoan aprobetxatu zuten hainbat erreforma egiteko: lan-erreformak, pentsioak, enpresendako laguntzak e.a. Estatu, ekonomia eta jendarte beste era batera antolatzea behartuta egon ziren. Eta ondo egin zuten. Baina ez guk eta ezta Europako beste herrialde batzuek ere, ez genuen premia hori izan. Hortaz, alemaniarrek behin eta berriro gogorarazten saiatu dira bere garaian ezinbestez egin zuten esfortzu hori. Puztuta daude alemaniarrek. Eta tinko eutsi diote euren ikuspuntuari. Errealitatea modu gordin-gordinean aztertu dute.

**Lehiakortasuna da hitz magikoa, gakoa. Zela izan gaitezke lehiakorrak, soldatak jaisten?**

Gure ekonomia txikia da eta kanpoan saltzen dugu asko. Hortaz, hemengo soldaten eta gurekin lehiari dauden beste leku batzuetako arteko oreka beharrezkoa da. Hori ala da. Baina, hori esanda, soldatari dagokionez, gurekiko lehiakorrak izan daitezkeen beste herrialde batzuetatik datozen produktuak ez dira horren lehiakorrak. Edo beste arazo batzuk dituzte ekonomia haiek: jendarte ez delako oso egonkorra, ez eta euren estatu egitura edo ekonomia ere, edo estatu diktatorialak direlako... Niri, jendarte eta ekonomia



Mari Carmen Gallastegi. | EUSKO IKASKUNTZA

**"Produktibitatea da gakoa, ez soldata: gauza onak eta ondo egitea"**

**"Bergarak beti aurkitu du zirrikitu bat, bide bat, lan oportunitate bat"**

**"Kontzertua ez da pribilegioa. Ituna da. Erantzukizuneko hitzarmena"**

haiek, ez dizkidate beldurrik ematen. Ulertzen diet enpresaburuei haiekin lehiatu behar direlako, baina soldata baxuz gain zer beste zer daukate gurekin lehiatzeko? Haiei ere etorriko zaie krisia. Soldata ez da aldagai bakarra. Bai, egia da, ezin ditzakegu eduki alemaniarrek edo austriarrek baino soldata handiagoak, baina Txinarekiko lehiakorrak izan gaitezke. Garatze bidean daude, baina beste baldintza batzuk ere badaude jokoan. Bestalde, gure soldatak jaitsi beharrean, alemaniarrenak igotzea izan daiteke beste irtenbide bat. Gauzak ondo ekoizten baditugu aurrera egingo dugu. Produktua da gakoa, balio erantsiduna izatea, eta produktibitatea ere bai: berrikuntza, jakintza...

**Bergarra zara, nahiz eta urteetan jaioterrik kanpo bizi. Azkeneko urteetan Bergarak galdu egin du industria ehuna eta merkataritza ere ez dago unerik onenetan; gainbeheran dago Bergaran. Ze etorkizun dauka Bergarak?**

Unibertsitatera ikastera joan nintzanetik bizi naiz jaioterrik kanpo, baina oso bergararra naiz, oso bergarar zalea. Nire aita eta ama ere baziren eta haiengandik jaso nuen hori. Baina 16-17 urte nitueanean, nire lagunak, mutilek..., gehienak, Arrastera zihoazen kooperatibetan lan egitera. Orduan ere hala zen. Eta Bergararen etorkizunaz kezkatuta geunden. Baina Bergarak kultura eta enpresa tradizio indartsua zuela esaten zigten gure gurasoek eta Bergarak beti aurkitzen zuela zirrikitu bat, bide bat, bizi eta lan oportunitate bat. Eta uste dut hori gertatu dela azkeneko hamarkadetan. Baikorra naiz. Jendea serioa eta langilea bada, erantzuten duen erakundeak baditu..., aurrera ateratzen da Herri bat. Kulturari, hezkuntzari, pertsonari, erakundeetara... garrantzia ematen dien Herriak aurrera egiten du. Horiexek dira benetako altxorrak.

**Jakiundeko kide ere bazara eta Jakiunderen egoitza Bergaran egoteak garrantzia berezia dauka zuretzeko?**

Bergarak oso kokagune ona dauka. Hori bada guretzeko indargune eta aukera. Eta Jakiunde iruditzen zait dela Bergararen nortasunaren parte. Bergara herri ekintzailea izan da. Jakiunderendako eta Bergararendako ona da Jakiunderen egoitza Bergaran egotea.

**Egunotan Kontzertu Ekonomikoa auzitan izan da Pere Navarro PSCko buruaren berbak direla-eta. Kolokan dago Kontzertu Ekonomikoa?**

A ze ahoberoa Navarro hori! Kontzertu Ekonomikoaren gaineko ezjakintasunetik dator guztia. Asko amorrarazten nau. Eta ez dakit zergatik diguten horrelako inbidia. Kontzertua ez da pribilegioa. Ituna da. Erantzukizuneko hitzarmena. Izan ere, geure gain hartzen dugu ardura bat, konpromiso bat, arriskuak hartzen ditugu. Eta hori bete egin behar da. Gauzak ondo doazenean eta txarto doazenean. Orain, gauzak txarto doazenean, zeini eskatzen diote laguntza katalanek? Madrili, ezta? Guk ezin dugu. Horrek egiten du Herri bat arduratsua.

**Ze iritzi daukazu LOMCE legeari buruz.**

Inposatu barik eta sektoreko jendearekin eta agintariekin egin behar dira erreformak eta Wert ez dago sintonia horretan.

Elkarrizketa osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.







## Agorrosin ostalaritza

Boni Laskurain 21 / BERGARA  
Tel.: 943 77 70 30

### Eskaintza

- Eguneko menua astelehenetik ostiralera 9 €.
- Asteburuko menua 15 €.
- Bazkariak eta afariak, ostiraletan, larunbatetan eta igandeetan. (Jaiegunetan ere bai).
- Gosariak, ogitartekoak, pintxoak.
- Bazkari eta afariak terrazan emateko aukera.

**Plater konbinatuak: ostiral gauean**  
**Ordaindu 1, eraman 2**



## Iturrieta

Arraga auzoa / ARAMAIO  
945 44 53 85 / 685 72 15 93  
[iturrietasagardotegia.blogspot.com](http://iturrietasagardotegia.blogspot.com)

### Eskaintza

- Eguneetik domekara irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 90 lagunendako lekua.
- Etxeko sukaldaritza bailarako produktuekin.
- Karta zabala. Menu bereziak.
- Bertako sagardoa Eusko Labelarekin.



## Garaia jatetxea

Garaia Berrikuntza Gunea  
Goiru kalea 1  
ARRASATE  
943 71 02 28  
647 83 23 86  
[ostalaritza@grupogureak.com](mailto:ostalaritza@grupogureak.com)

### Eskaintza

- Self-service bazkari merkeak.
- Urtebetetzeak.
- Taldeentzako eta ospakizunentzako bazkari eta afariak.
- 160 pertsonarentzako jangela.
- Aparkalekua eta terraza.



## Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 35. / BERGARA  
Tel.: 943 76 10 55 / [www.restaurantelasa.es](http://www.restaurantelasa.es)

### Eskaintza

- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauean 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona min).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera(eguardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.

**Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria**  
**Mas Gastronomía 2009.**



## Santa Ana Hotela

Uribarri auzoa 37 (Udalara bidean) / ARRASATE  
943 79 49 39  
[www.santaanamondragon.com](http://www.santaanamondragon.com)

### Eskaintza

- Familiako bazkariak eta kinto bazkariak dantzaldiarekin.
- 100 pertsonarentzako jangela, menu berezia eta karta.
- Terraza eta jangela: ogitartekoak, etxeko hamburgesak eta plater konbinatuak.
- Kafe eta pasten catering-a, era askotariko tortillak eta pintxoak.



## Wok Sheng Xing Yuan

Mugarrieta industrialdea 10, C-B pab. / San Andres auzoa  
ARRASATE  
943 79 90 29 / 629 41 59 58

### Eskaintza

- Itsaski-janak.
- Frijituak.
- Plantxa.
- Sushia.
- Parrilladak.
- Menua, postrea barne.

**10 menu hartuta, 1 DOAN.**

# HERRIAK

ONATI

## Astelehenetik aurrera, hondakinak atez ate

- ▶ Astelehenean estreinatuko dute sistema, paperarekin eta kartoiarekin
- ▶ Aste bukaera honetan bertan edukiontzi berdeak kenduko dituzte

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Oñatin datorren astelehenean hasiko dira hiri hondakin, hondakin komertzialen eta industria hondakin bilketarako atez ateko sistema erabiltzen. Egun horretatik aurrera, atez ateko hondakin bilketa sistema aplikatuko duen Debagoieneko bigarren herria izango da Oñati, Antzuolaren atzetik. Udal Gobernu Taldetik igorritako oharrean azaltzen dutenez, "parte-hartze prozesuetan adostutako ordutegi, maiztasun eta bilketa moduekin" abiaraziko dute sistema berria.

### Gogoz edo kezkatuta

Gaiak herrian ika-mika piztu duen arren, herritarrek "sistema berriarekin hasteko gogoz" ikusten dituela dio Mikel Biain alkateak, eta egitasmoa inoiz arriskuan ikusi duten galdetuta, Biainek dio ezetz, bai Udaletik bai Zero Zabor taldeak "lanketa handia" egin dutelako. Horren harira, Lourdes Idoiaga EAJko bozemaileak hauxe dio: "Eurek ilusioa nabarmendu dute, baina ni harrituta nago kezkatuta zenbat jende dagoen ikusita. Batez ere, jende nagusia dago kezkatuta. 'Ipini egingo dute, ezta?', diote, edo 'Zorratu gura baldin bagintuzten, oraintxe izorratuko gaituzte'."

"Epe laburrean hondakinak ondo sailkatzearen poztasuna

izango dugu eta epe luzera onura ekonomikoak ere izango ditugu", azaldu du alkateak. Biainek dio helburuak izan behar duela euren hondakinak ondo kudeatzen dituzten herriei hondakin tasak kudeaketa horretara egokitzea.

### Estreinaldia paperarekin

Sistema berria lasai hartzeko dei egin die alkateak herrikideei, eta gaineratu du informazio bulegoak, hasiera baten, urte amaierara arte zabalik egongo direla eta zalantzak dituztenak bulegoetara edo udaletxera joan daitezkeela laguntza bila. Idoiak dio EAJ-ren aldetik "esandakoak esanda" daudela. Dei egin die oñatiarrei aurrerantzean ere orain arte bezain arduratsu izaten jarraitzeko.

Astelehenean paperarekin eta kartoiarekin estreinatuko dute oñatiarrek atez atekoa, 20:00etik aurrera. Egunero, ordu horretatik aurrera atera ahal izango dituzte egutegiaren arabera zehaztutako hondakinak. Konpresa eta pixoihalak, berriz, egunero atera ahal izango dituzte.

Zintzilikarioetara atera behar dira: organikoak, edukiontzi marroian zuzenean edo poltsa konpostagarriak erabilia; ontzi arinak, plastikozko poltsan; papera eta kartoiak, esekitokira ontzi txikian edo behe-barruko edu-



Kubo urdina San Lorentzon, Aloña mendia atzean ikusten dela. | OIHANA ELORTZA

kiontzi handira; errefusa, ontzi grisean. Hondakin horien bilketa 23:00etan hasiko da, eta herritarrek hurrengo goizean jaso behar dituzte ontziak, ahalik eta azkarren.

Komertzio, taberna eta jatetxe eta lantegiei dagokienez, horiek ere egutegiaren arabera zehaztutako hondakinak atera behar dituzte egun bakoitzean, baina, kasu horretan, goizean egingo da bilketa; 09:00etan, lehendabiziko kasuan; eta 08:00etan, industriaren kasuan.

### Landa-guneetako bizilagunak

Landa-guneetako bizilagunak auzorik auzo Udalak egokitu dituen minigune eta ekarpen-guneetara eraman behar dituzte hondakinak; kolore ezberdinetako edukiontziak egongo dira horietan. Miniguneak Zumeltze, Jaumendi, Zañartu, Murgia, Urrintxo, Madalena, Berezaio, Larraña, Araotz, Migelena, Soraluze, Arantzazu eta Urribarrin egongo dira; eta ekarpen-guneak, ETEO, Garagaltza, Olabarrieta eta San Pedron (azken hauek etxola handiagoak izango dira, baina funtzio bera izango dute). Lau ekarpen-gunetatik bik, gainera, Eteokoak eta Garagaltza-koak, larrialdi-gune moduan funtzionatuko dute.

Gaikako sistema martxan jartzean kenduko dituzte orain arteko edukiontziak; asteburuan bertan edukiontzi berdea edo errefusarena; eta datorren astean zehar, gainontzekoak. Hala ere, beira, olio, pilak eta oihalak jasotzen dituztenak mantendu egingo dituzte.

Bolumen handiko hondakinak nahiz kutsakorrek direnak Urrutxuko garbigunera eraman ahal izango dituzte herritarrek, astelehenetik egubakoitzera, goiz eta arratsalde; eta zapatuan, goizez bakarrik. Etxeko hondakin handiak egunetan ere atera daitezke, aurrez Mankomunitatean abisatuta (943 79 33 99).

### Bi larrialdi-gune izango dira

Eteoko eta Garagaltzako ekarpen-guneak larrialdi-gune ere izango dira, herritarrek ezohiko kasuetan erabiltzeko. Horiek erabiltzeko, Udaltzainguan eskatu eta entregatu behar da giltza; udaltzainek egunero eskainiko dute zerbitzua, 09:30etik 21:30era. Asmoa da uda ondoren sistema aldatzea; giltza bidez izan beharrean kode bidez sartzea larrialdi-guneetara. Telefonoz emango dute udaltzainek kodea, ez da haiengana joan beharrik izango.



Eteon dagoen ekarpen-gunea. | O.E.

### HONDAKINEN EGUTEGIA

**Astelehenean**  
Papera eta kartoiak

**Martitzenean**  
Organikoa

**Eguaztenean**  
Ontzi arinak

**Egunean**  
Errefusa

**Egubakoitzean**  
Organikoa

**Zapatuan**  
Ontzi arinak

**Domekan**  
Organikoa

### ESANAK

**"Epe luzera onura ekonomikoak ekarriko ditu sistema berriak"**

MIKEL BIAIN | OÑATIKO ALKATEA

**"Eurek 'ilusioa' diote, baina nik jendea kezkatuta ikusten dut"**

LOURDES IDOIAGA | OÑATIKO EAJ



Iñigo Arregi, Bartzelonan ipini duen erakusketan. | IÑIGO ARREGI

# Iñigo Arregi eskultorearen lanak Bartzelonan ikusgai

Arregiren erakusketa Victor Lope galerian dago ikusgai uztailaren 17ra arte

## ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Iñigo Arregi artista arrasatearra bi arrazoigatik da albiste azkenaldian: batetik, *Norabide batean* izenburua duen erakusketa ireki duelako Bartzelonan; eta bestetik, Jose Luis Merino arte kritikorearen liburu batean agertu delako.

## Eskultura eta erliebeak

"Oso ondo geratu da Bartzelonako erakusketa. Eskulturak eraman ditut, baina baita erliebeak ere; 30 guztira. Kontzeptuak lotzen ditu biak, eta, ondorioz, obra bakarra da niretzako". Bere esanetan, erakusketa identifikagarria ipini du arte garaikidea jasotzen duen Victor Lope galerian. "Lehen begiradan badakizu nik egindako lanak direla".

Azken zazpi urteetan arte galeria horrekin lan egin du arrasatearra. "Askotan joan izan naiz eurekin azoketara: Alemaniara, Suitzara, Austriara... bai-

na galerian bertan bakarkako erakusketa ipintzen dudan lehenengo aldia da". Bi metro dituen egurrezko lan bat eraman du Katalunia aldera Arregik, eta besteak altzairuzkoak dira. Guztiek Arregiren obren ezaugarria den kontzeptu arkitektoniko zehatza jarraitzen dute, hau da, "denak dira muntagarriak".

Ekainaren 13an ireki eta uztailaren 17ra arte egongo da ikusgai Bartzelonako erakuske-



ta. Arregiren esanetan, harrera ona eduki du hasieratik. "Inaugurazio ekitaldia oso polita izan zen, jende asko etorri zen, toki ezberdinetakoak, gainera. Bitxikeria moduan, Poloniatik zein Errusiatik joandako pertsonak egon zirela".

## Arregi bera, liburu batean

Bestalde, Jose Luis Merino arte kritikorearen *Hablan los artistas* liburuan bere tokitxoak dauka arrasatearrak. Azken 30 urteetan egindako elkarrizketak jasotzen dituen liburua da.

Izen handiko artistekin edukitako solasaldien emaitza da Merinoren liburua, eta, besteak beste, Oteitza eta Txillida ere agertzen dira bertan. "Duela urtebete jarri zen nirekin harremanetan autorea eta proposamena egin zidan. Lan mardula dela esango nuke, eta egunen batean erreferente bihur daiteke".

## Herriko industriari keinua egin eta biribilguneak itxura berriaz

### Z.V.D.M. | ARRASATE

Herriko bi biribilgune Arrasateko industria tradizioaren erakusgarri bilakatu dituzte, eta, ondorioz, itxura berrituta agertu dira.

Hain zuzen ere, tornu batekin apaindu berri dute Eroski pareko biribilgunea. Horrez gain, Markulete aldean ere beste industria-pieza bat jarri dute; prentsa bat, zehatzago esanda.

### Pieza handiak

Ez da nolanhiko lana izan egin dutena; izan ere, ipini dituzten bi piezak tamaina handikoak dira.

Eroskikoak zabaleran toki handia hartzen baldin badu, Markuleteko biribilgunean ipinitakoa handiagoa da altuerari dagokionez. Ez dira ohar-

kabeen pasatzen. Hain zuzen, Frixi eraikuntza enpresari esleitu zion Arrasateko Udalak lanak egiteko ardura. Bestalde, eta garraio berezia behar zenez, Usabiaga Elevacion enpresa izan da tornua Eroskiko biribilgunera eraman duena.

### Maiatzeko erabakia

Lanak ekainean egin arren, maiatzean onartu zuen Tokiko Gobernu Batzarrak bi biribilguneak apaintzea. Eta beharrezko lanak eginda, Arrasateren industria ondarearen adierazle diren apaingarriz jantzi dituzte bi biribilguneak. Hala ere, ez dira herrian dauden bakarrak; esate baterako, Nafarroa etorbidean, Mankomunitatearen eraikinaren alboko biribilguneak badauka berea aspalditik.



Apaingarrria Eroski pareko biribilgunean. | Z.V.D.M.



Markuleteko biribilgunean ere ipini dute apaingarrria. | Z.V.D.M.

## Gotzon Urtzelai bergararra izango da Mondrako entrenatzaile berria

### JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Gotzon Urtzelai bergararra izango da 2013-2014 denboraldirako Mondrako entrenatzailea, zuzendaritza taldeak asteon baieztatu duenez.

### Mondra ezagun

Urtzelaik badaki zer den Mondran jokatzea; euskarri moduan lan ederra egin zuen, adibidez, 2006-2007 denboraldian.

Geroago, 2009an, Igor Gordobilek UDARA eraman zuen Bergarako jokalaria, Aretxabaletako taldea Hirugarren Mailara igo zenean. Mondran eta UDAn jokatu aurretik, baina, Bergaran egin zituen hainbat urte.

### Helburu nagusia, igoera

Jaitsi berri diren talde guztien antzera, Erregional Preferentetik Ohorezko Erregional Mailara igozea izango da denboraldiko helburua.

### Omenaldia Mondrari

Bestalde, Gipuzkoako Futbol Federazioak Arrasaten egingo du urteko batzar orokorra. Gaur izango da ekimena, Amaia antzokian, 19:00etan hasita.

Bertan, gai ugari izango dituzte eskuartean federazioko ordezkariak. Gainera, ehungarren urteurrena dela-eta, oroigarria emango diote Mondra futbol taldeari.



Urtzelai, Mondraren elastikoaz. | GOIENA

## Ekaineko azken egubakoitza denez, Herrirak deituta kontzentrazioa egingo dute gaur Herriko Plazan

Iritsi da hilabeteko azken egubakoitza, eta, azken urteetan egin duten moduan, gaur, ekainak 28, Herrirak deituta kontzentrazioa egingo dute. Agerraldia Herriko Plazan izango da eta 19:30ean hasiko da. Hain zuzen ere, *Giza eskubideak. Irtenbideak. Bakea* lelopean elkartuko dira, beste behin ere. Arrasatear guztiei deialdiarekin bat egin, plazara irten eta euskal preso eta iheslarien aldeko mobilizazioan parte hartzeko dei egin diete Herrirako kideek.

## Lehenengo aldiz Txalaparta Festa egingo dute bihar, zapatua, Ttakun taldearen eskutik

Ttakun txalaparta taldeak Txalaparta Festa antolatuko du biharko, zapatua. Saio libreak, herri bazkaria eta Bergarako, Aramaioko, Aretxabaletako eta Urretxuko txalapartarien bisita eta saioak iragarri dituzte. 10:00etan hasiko da Txalaparta Festa Goikobaluko gaztelu zaharretik diana eginda. Saio libreak egingo dituzte ondoren eta 13:00etan irrintzilariak egingo dira Herriko Plazan. Herri bazkaria egingo dute 14:30ean Udalpen eta 18:00etatik aurrera tabernetan txalaparta saioak eskainiko dituzte.

# Geratu direnek festarako gose barik amaitu dute

San Juan eguneko lasaitasunaren ostean, hilaren 25ean berriro ere eztanda egin zuen kaleko giroak

**GALLEGO / BEREZIARTUA** | ARRASATE  
Zeruari begira hasi ziren San Juan jaiak, eta, lehen egunetan zirimirri fin batek festa ilunduko zuela zirudien arren, euriak atzera egin eta festak aurrera egin zuen. Arrasaten herriko jaiak kanpoan pasatzeko ohitura handia dago, eta, aurtengo eskaintza zabalak, tamalez, ez du joera hori apurtu. Antolatutako ekintzek harrera ona izan duten arren, jendea falta zela igarri da. "Aurtun lekua errazago topatu dugu", zioen errementari-dantza ikustera joandako herritar batek.

Gazteek *exodorako* joera hori bukatu nahi izan dute, eta, aurtengo leloari utsiz *-sanjuanetan egiSU!*, jaietan euren presentzia oso nabarmena izan da. Dragoi Jana, *Zeuk in zeuk jan* herri bazkaria, makala jasotzea... Eta noski, *gaupasarerorik* ez da falta izan; bereziki, asteleheneko eta eguazteneko entzierroetan hainbat ikusi genituen. Asteburuko eta San Juan bezperako eztanda-aren ostean, parrandarako giro beroena hilaren 25ean egon zen.

Gauean, Vendettak eta Gosek txosnagunea goraino bete zuten. Gauak luze jo zuen txosnagunean; ia eguerdira arte parrandak ez zuen deskantsurik izan.

### Eguzkilaru, haurren idolo

Gazteen ostean etxeko txikiaren algarak izan dira jaietako protagonista. Martitzenean, Eguzkilaruren etorrerari esker, goizean Biteri plaza, Zaldibar eta Jokin Zaitegi jolasparke erraldoi bihurtu ziren. Karaokea, eskulanak, apar festa... Arratsaldean, nola ez, Pirritx, Porrotx eta Marimototsek Monterron bete zuten. Azken egunean, kulturartekotasun azokak, esaterako, jende askotxo erakarri zuen. Zenbait atzerritarrekin egin genuen berba eta harrigarria bezain ereduagarria iruditu zitzaigun euskaraz egiteko erakutsi zuten erraztasuna.

**Bideoak eta argazkiak ikusteko:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Alkatearen ohorezko aureskua.



Inoiz baino danbor-jotzaile gehiagok bete zuten Herriko Plaza.



Kiliki eta erraldoien konpartsak alaitu zuen San Juan eguna.



Korporazioari egindako aureskua eta zortzikoa.



Boulder txapelketa Ferrerriaren.



Astelehenean Arrasate Musikalek kontzertua eskaini zuen Monterronen.



**HAIZEA APELLANIZ**  
ARRASATE

"San Juan jaiak asko gustatzen zaizkit. Egun osoa lagunekin pasatzen dut; herriko jaietan ez dago aspertzeko tokirik eta astirik".



**ALEX ARANBURU**  
ARRASATE

"Fresko egin duenez egun bat gaixo pasa dudan arren, ez naiz etxean geratu eta oso ondo pasatu dut aurten San Juan jaietan".



**ANA RODRIGEZ**  
ARRASATE

"Ekintza guztietan egon naiz. Orain bi alaba ditut, eta, eurei esker, egun osoa sistan eman beharrean jaietan murgilduta igarotzen dut".



Pailazoak, Eguzkilaru eta Txatxilipurdikoak, Monterronen. | ARGAZKIAK: BEREZIARTUA, GORDO, OLIDEN, DOMINGEZ, AZKARATE, GALLEGU

**Yael**  
LEGARGAIN 1 ETXABEA • ARRASATE • 943 04 47 30  
yael\_legargain1@hotmail.es

ARROPA ETA OINETAKOETAN

**21** tipitapa

Txartel hau ekarrita.

Oparitzen den produktua merkeena izango da.

Baliagarria uztailearen 5era arte.

- Oinetakoak
- Arropa
- Jostailu hezigarriak

Otalora Lizentziaduna 25  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 17 47  
tipitapa@hotmail.es

**UGARTE**  
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

**ARROZTEGIA**  
San Juan 1a  
Tel.: 943 76 54 91

**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 03 46 30

**BERGARA**



Llodio eta Sebastian Astola omenduak.



Bigantzek susto bat baino gehiago eman zuten.



Mondrako betaranoek omenaldia jaso zuten.



Era askotako platerak Zeuk iñ zeuk jan herri bazkarian.



Kulturartekotasun azoka, plazan.



Murumenditik su artifizialei ateratako argazki ikusgarria.



eta buruhandiak, jaietan lagun.



Txosnagunea lepo bete zuen Vendetta taldeak.

## Arrasateko AUTOBERRIn erraztasun ugari UZTAILEKO ESKAINTZA BEREZIAK

Renault Latitude  
Expresión 2-0 dCi



17.900 €

Renault Megane  
Sport Tour Dynamic 1.5 D



14.850€

Renault Twingo  
Dynamic 1.5 DCI



8.450 €

Renault Laguna Grand Tour  
Dynamic Tom Tom 2.0 d



19.500 €

Renault Kangoo  
Combi Autentic 1.5 DCI



10.800 €

Eskaintza baliagarriak, akats tipografikorik ez dagoen neurrian.

# Oñatiko abentura raid-a uztailaren 6an egingo dute

Gipuzkoan egiten den era horretako lehen proba izango da datorren astekoa

GUREN AUZMENDI | OÑATI

Lehenengoz egingo dute aurten abentura raida herrian. Orientazio-lasterketa horiek bikoteka egiten dira; parte hartzen dutenek bizikletan ibili eta korrika egiteaz aparte, proba bereziak egin behar dituzte. Gipuzkoan egiten den aurrenekoa izango da Oñatiko I. abentura raida.

Uztailaren seiko lasterketa-rako, guztira, lau atal prestatu dituzte antolatzaileek. Parte hartzen dutenek era guztietako egitekoak izango dituzte. Herrian bertan izango da lehenengoa; aspaldiko kondairekin lotuta egongo da eta memoria lantzeko prestatu dute. Bigarrena uretan izango da: urpeko orientazioa beharko dute kirolariak. Korrika egin beharko dute hirugarrenean. Eta bukatzeko, bizikletan ibiltzeaz gain, koba barrura sartu eta eskalatu egin beharko dute. Irteeran, 10:00etan, parte-hartzaileek mapa bat jasoko dute; hark amaiera-puntua eta kontrolguneak baino ez ditu irudikatuko. Bikote bakoitzak pentsatu beharko du zenbat proba eta puntutara iristeak merezi duen. Horixe izaten baita era horretako lasterketen helburua: sasoi onean egon, baina tentuz jokatu. Aitor Otamendi antolatzaileak gogorarazi duenez, lasterketa horietan puntu gehien lortzen duenak irabazten du; baldintza bakarra dago: garaiz iristea helmugara. Datorren zapatuan zazpi orduan bukatu beharko dute. Horregatik, jendeari animatzeko eskatu dio antolatzaileak: "Ikusten duzu sarean atal bakoitzaren luzera eta desnibela eta beldurtu egiten zara. Baina horiek gehienekoak dira; bikoteek burua erabili eta laburbideak hartuta, asko murriztu dezakete bidea".



Aitor Otamendi, raidaren kartelarekin eskuetan. | GUREN AUZMENDI

Aurtengoa aurreneko urtea izanda, nolako erantzuna izango duen ez dakite arduradunek. Horretarako, izen-ematean beherapenak egin dizkiete garaiz ibili direnei. Bikoteak neskenak, mutilenak edo nahastuta egin daitezte. Gaienera, raid handiarekin jendeak atzera egin ez dezan, arduradunek proba motzago bat ere prestatu dute, *easy raid* era-koa, hain zuzen.

## Gipuzkoako lehendabizikoa

Orientazio-lasterketak egiten orain hiru urte hasi zen Otamendi; ordutik hona, Urretxuko eta Zumarragako taldearekin egin ditu. Konturatzen ziren, ordea, Gipuzkoan ez zela horrelako lasterketarik eta gogoz zeuden bat prestatzeko. Iazko urtearen amaieran

Oñatin egin ote zitekeen begira hasi ziren. Poliki-poliki, uztailko lehiaketak forma hartu duen arte. 2013ko Columbia Raid Series-en (euskal liga) sartuta dago Oñatiko proba; urteko laugarrena izango da. Otamendik berak esan digu lan handia egin behar izan dutela. Bideak pentsatu, oinez eta bizikletaz egin, probak prestatu... Dena den, hark aitortu duenez, "mapak egitea izan da gogorrena: hartu ordenagailua, sartu GPSaren informazioa eta orduak sartu". Egunean bertan ere lan handia izango dute: irteeran, helmugan, kontrol-puntuetan, proba berezietan... Hala ere, raida gertatzen ibili direnek ingurukoengana jo dute boluntario bila, eta eurekin moldatuko direla esan digu Otamendik.

# San Martingo babes ofizialeko etxebizitzan azken zozketa egin dute

JULEN IRIONDO | OÑATI

Azken urteotan babes ofizialeko ehunka etxebizitza zozketatu eta gero, Oñatin ez da denbora baten, behintzat, halako gehiago izango. Astelehenean egin zuten azken zozketa: San Martingo auzoko sei etxebizitza.

Jende gutxi batu zen udaletxean egindako San Martingo auzoko 6. zenbakiko etxeen zozketan, eta osoko bilkuren aretoan egon zen herritarretako bati ere ez zitzaion egokitu. Bada, zortea izan duen inork atzera egiten ote duen zain egon beharko dute.

San Martingo sei etxebizitzok ez ziren hasiera batean babes ofizialeko gisa zozketatzeko; Udalak erabilera sozialerako zituen etxebizitzak dira. Azkenean, baina, aldatu egin zen hasierako asmoa eta bertatik jasotako dirua erabilera sozialerako eraikin baten inbertitu-

## SAN MARTIN 6 ETXEEN ZOZKETA

ADJUDIKAZIODUNAK	ETXEBIZITZA
Angel Irizar	6-behea-A
Beñat Madariaga	6-behea-B
Mikel Galarza	6-behea-C
Andoni Cantabrana	6-behea-D
Kizkitza Aranzabal	6-behea-E
Maria Isabel Semper	6-1-A

ko dute. Alkateak dio bakarra behar bi helburu bete dituztela horrela: sei lagun gehiagori babes ofizialeko etxebizitza baterako aukera ematea eta salmentatik aterako den diruarekin erabilera sozialerako eraikin osoa egitea.



Udaletxeko osoko bilkuren aretoan egin zuten zozketa. | JULEN IRIONDO

# San Migel jaietarako programaren azala aukeratzeko lehiaketa

18 urtetik gorako edonork har dezake parte eta lan saritua herritarren botoekin aukeratu dute

AMAI TXINTXURRETA | OÑATI

Berrikuntzekin dator aurtengo San Migel eta Errosarixo jaietako programaren azala aukeratzeko lehiaketa. Egitarauaren azaleko irudiari garrantzia eman nahi diote, eta, horregatik, lehiaketa edonongo artistei irekitzea erabaki du Udalak. Saria iaz 350 euro izan zen eta aurten, berriz, 500 euroa igo dute, eta herritarrek aukeratu dute lan saritua; izan ere, aurkezten diren lanak Santa Ana aretoaren sarreran jarriko dituzte uztailaren 15etik 19ra eta herritarrek botoa emateko aukera izango dute.

Bestetik, 18 urtetik gorakoei zuzendutako lehiaketa nagusi

horretaz gain, haur eta gazteen partaidetza sustatzeko asmoz, aparteko deialdia egin dute, 18 urtera bitarteko artistei zuzendutakoa.

## Oinarriak

Teknika librea izango da, baina derrigorrez Oñatiko jaixak 2013 testua agertu beharko da idatzita. Lanok uztailaren 12ko 13:00ak baino lehen entregatu beharko dira kultura etxean.

## Jai batzordea

Bestalde, jaiak antolatzeko batzordea antolatuko dute eta uztailaren 1ean izango da lehenengo bilera, 18:30ean, kultura etxean.



ROBERTO ALTUNA

**Euskaltegiak agurtu dute aurtengo ikasturtea**

Oñatiko Udal Euskaltegiak kurtso amaierako afaria egin zuen joan den egubakoitzean, hilaren 21ean. Hain zuzen ere, ikasturte honetan euskaltegian ibili direnak batu ziren, eta, giro ederrean, Soraluze ostatuan afaria egin zuten guztiak batera. Eskola orduetatik kanpo euskaraz hitz egiteko aukera izan zuten modu horretan, eta, horrekin, amaiera eman zioten aurtengo ikasturteari.



Udalekuekiko umeak koloretako bisera eta banderekin. | GOIENA

## Udalekuekin 'Milakolorez blai' jarriko dituzte kale eta txokoak

Adina kontuan hartuta, programazio "aberatsa" osatu dute beste urte batez

AMAI TXINTXURRETA | OÑATI

Astlehenean, uztailearen 1ean, hasiko dituzte udalekuak herriko 350 gaztetxok. Eta haiek zaintzen, 35 begirale, bi laguntzaile, errefortzu bat eta praktiketako bi lagun ibiliko dira.

Gurasoek San Lorentzon, Eteon, utzi eta jaso beharko dituzte umeak, eta uztailearen 26ra arte iraungo dute udalekuek. 10:00etatik 13:00etara izango dira, eta, azken urteetan bezala, zain-tza zerbitzua ere egongo da, 07:30etik 10:00etara, lana eta familia uzartu ahal izateko.

### Koloreak protagonista

Bada, aurreko urteetan moduan, koloreak izango dira protagonista aurtengo udalekueetan ere. Leloa *Milakolorez blai* da eta, hain zuzen ere, umeen adin tar-te bakoitzak kolore bat izango du: 3-4 urtekoek horia, 4-5ekoek berdea, 5-6koek laranja, 6-7koek

urdina, 7-8koek gorria eta 8-9-10ekoek beltza.

### Programazio "aberatsa"

Umeak hiru multzotan banatuta egongo dira adinari dagokionez eta multzo bakoitzari egokitutako programazio oso "aberatsa" izango dutela azaldu du Lukene Igartuak, udalekuekiko koordinatzaileetako batek. Sanfermi-

netako entzierroa plazan egingo dute uztailearen 8an eta Uraren Eguna ere egongo da, besteak beste.

### Kontuan hartu beharrekoak

Igartuak zenbait kontu azpimarratu nahi izan ditu: ordutegiak errespetatzeko, umei Eteoko euren geletaraino laguntzeko, umeak jasotzeko orduan geletaraino joateko, arropa eta oinetako erosoekin eramateko, eguzkitako krema etxetik emanda eramateko eta Eteoko sarreran egongo den panel informatiboan azaldutakoak edo gaztetxoek etxera eramango dituzten paper-txoetan esaten dena kontuan hartzeko. Begiraleen lana errespetatzeko ere azpimarratu du Igartuak; izan ere, "herriko txokoetan egiten diren ekintzetan etxeok umearengana gerturatzaren badira, umea, askotan, endredatu egiten da".

DATUA
<b>350</b>
UME
2003-2009 urte bitartean jaiotako 4 eta 10 urte arteko 350 gaztetxo ibiliko dira aurtengo udalekueetan.

## Gaztetxeko barra zabalik egongo da asteburuetan



Gaztetxeko kideak Antixeneko barran. | G.A.

GUREN AUZMENDI | OÑATI

Egubakoitz, zapatu eta domeketan gaztetxeko taberna irekita egongo da aurrerantzean. 18:00etatik 00:00etara egongo da zabalik. Domeketan, 22:00ak arte.

Gaztetxeko arduradunek gazteentzako topaleku lasai eta eroso eratu nahi izan dute. Ahalik eta giro irekiena lortzeko, barran herriko kuadrillak ibiliko dira, txandaka. "Lan egin nahi dutenek hemendik pasa besterik ez dute", diote. Jokin Arroyo gaztetxeko kideak esan du tabernan lan egiten dutenek nahi dituzten ekintzak egin ditzaketela: bideo-emanaldiak, kantaldiak, afariak... Asanbladakoen asmoa, dirua ateratzeaz gainera, gazteen arteko harremanak indartzea da. Beste kide batek argi dio: "Denentzako tokia da, baina jarrera sexistak ez ditugu onartuko".

## Futbol saileko batzarra egin eta trebeenei sariak banatu zizkieten

G.A. | OÑATI

Joan den ostiralean egin zuten Aloña Mendiko futbol sailekoek denboraldiaren balorazioa. Batzarra bukatu eta gero, nabarmendutako jokalariek saritu zituzten.

Bileran, ohorezko mailako taldeak egin duen jokoa azpimarratu zuten: etxeko jokalariekin mailari eustea lortu du. Baita Enara Agirre psikologoak taldea batzeko egindako lana ere. Nesken gazte-mailako taldearen denboraldi amaiera polita ere azpimarratu zuten; adin askotariko jokalariek osatu dute aurtengoa. Gainerako zortzi taldeek jokalariek gazteak prestatzeko balio izan dutela

gehitu zuten. Bukatzeko, diru-kontuen balantze orekatua aurkeztu zuen batzordeak.

### Aipamen bereziak

Aurtengoa nabarmendu diren futbolariak saritu zituzten afalostean. Mutilen talde nagusian Unai Uribeetxerriak golea-tzaile nagusiarena jaso zuen eta Iker Olalde, erregulartasunarena. Kiroltasunaren saria, besteak beste, Aritz Garmendiak, Miren Zubiak, Iñigo Anduagak, Mikel Blazquezek, Nagore Elorzak eta Auritz Larreak jaso zuten. Bukatzeko, Aitor Orue-ta eta Xabier Agirre entrena-tzaileei aipamen berezia egin zieten bazkideek.

## Egitarau zabalarekin datoz Zubillagako eta Torreauzoko jaiak, gaurtik domekara

G.A. | OÑATI

Asteburuan dira Zubillagako eta Torreauzoko jaiak. Auzokoentzako eta hurbiltzen direnentzako egitarauak prestatu dituzte.

Gaur arratsaldean etxafuegoekin hasiko dituzte jaiak bi tokietan. Zubillagan, 19:30ean, kaletik bizikletan joandakoei

harrera egingo diete. Bihar, 16:30ean, Irrien Lagunekin haur-parkea izango da eta etzi, domeka, Ganbararen kontzertua elizan, 19:00etan. Torreauzon, aldiz, zapatuan erromeria egongo da, 19:30ean, herriko soinu-joleekin, eta domekan 16. herri-lasterketa egingo dute. Goizean izango da hori, 11:00etan.

## Udako kirol kanpainan lekua dago: uztaileko bigarren txandan eta abuztuko ekintzetan

Oraindik tokia dago gaztetxoentzako udako kirol ekintzetan. Bigarren txandako ekintzak uztailearen 8tik 19ra izango dira; hala nahi dutenek era askotako kirolak egiteko aukera dute: tenisa, irristaketa, mendi-bizikleta, eskalada, pilota, zaldiketa... Kiroldegitik gogorarazi dute uztailearen 3ra arte izen-emateak jarraitu egingo duela. Abuztuko txandan ere bada lekurik; kasu horretan, tenisa, zaldiketa eta igeriketaz gain, ur-jolasak egiteko aukera ere badute izena ematen dutenek.

## Fitness jai bihar Zubikoa kiroldegian: gimnasia harmonikoa, bossu-tonifikazioa eta fit bikea

Kurtso bukaerako jaialdia izango da bihar, ekainaren 29an, Zubikoa kiroldegian. Fitness zerbitzuko erabiltzaileentzat izango da; aurrez izena eman behar da kiroldegian bertan. Goizeko hamaiketan hasiko dira, gimnasia harmonikoarekin; ordubeteko saioa egingo dute. Horren ostean, bossu-tonifikazioa, beste ordu-betez. Bukatzeko, fit bike ekinaldia izango dute parte hartzen dutenek. Azkeneko saioa ordu eta erdikoa izango da.

## MENUAK

Astegunetan  
Eguneko menua:  
11,10€ + BEZa

Asteburuko menu berezia  
sasoiko produktuekin egina  
Berezitasuna: arraina  
23€ + BEZa

Egunero: Karta zerbitzua.

**URTIAGAIÑ** JATETXEA



Uribarri auzoa 33. Arantzazuko bidea. OÑATI  
943 78 08 14 - 943 78 31 35

## Egun osoko festa izango da domekan San Martzialen

O.E. | BERGARA

San Martzial egunez, domekan, egingo da aurten Bergarako San Martzialeko erromeria eguna; egun osoko festa izango da aurten ere. Erromeria, dantzak, kantuak, herri jolasak, bertsolariak... egongo dira, besteak beste. Baita letania ere. 07:30ean igoko da, Santa Marinatik; gurdia, berriz, 10:00etan San Martin plazatik. Aurten, 126 mahai eta 1.048 aulki alokatu dizkie Udalak herritarrei. Zapatuan, bihar, arratsaldean igoko dituzte, eta domekan jasoko dituzte berriro, 19:00etatik aurrera, San Martzialen egongo den kamioian, betiko moduan. Egoera onean entregatuz gero, fidantzan emandako 100 euroak berreskuratuko dituzte.

Kantina San Martin ikas-tetxeko Agorrosin Guraso Elkarteak kudeatuko du eta txosna, Beti Bustik.

### Autobus zerbitzua

Herribus zerbitzua 09:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 20:30era egongo da; Oxirondon eta San Martzialen izango dira geltokiak. Bestalde, San Martzialera joango direnek bete beharreko arautegia egin du Udalak, ingurunea babesteko helburuarekin. Arautegian jasotakoa betetzen ez bada, kalteak konpontzearen kostuak erreklamatu egingo ditu Udalak eta, hain zuzen, isunak jarri ahal izango ditu.



San Martzialen, 2012an. | GOIENA



Opari bana jaso zuten Elexpuruk eta Elortzak Gobernuako kideen partetik; haritz-adaxka bana. | O.E.

# Eskerrak emanenez joan dira Elortza eta Elexpuru

Uztaileko ezohiko osokoan egingo dituzte Joseba Monux eta Jaione Isazelaiaren izendapenak

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Jesus Elortza alkateak eta Justina Elexpuru Aralarko zinegotziak euren karguak utzi zituzten San Juan egunean egin zuten osoko bilkuran. Udal Gobernuan egon diren bi urte hauetan izandako laguntza eskertu zuten biek. EAJ eta PSE-EE alderdiek ere eskerrak eman zizkieten biei. Udal Gobernuak, berriz, Gernikako Arbolako adaxka bana oparitu zien.

### Udala ezagutzeko aukera

Gai zerrendako puntu guztiak eztabaidatu ostean egin zioten karguari uko. Justina Elexpuru izan zen hitza hartzen lehena. "Agur esan eta eskerrak eman nahi dizkizuet bi urte hauetan lagundu didazuen guztioi. Eskerrak, Jaione Isazelaia lagunari, Jesus Elortzari eta Udal Gobernu osoari. Beste etapa bat hasiko dut orain", adierazi zuen. EAJko Maite Barrenak hitz egin zuen ondoren: "Zurekin hiru batzordetan egoteko aukera izan dut, eta oso gustura egon naiz, bene-

### ESANAK

**"Aurrerantzean ere laguntzeko eta berba egiteko prest egongo naiz"**

JESUS ELORTZA | ALKATEA

**"Bi urte egin ditut eta bukatu da; beste etapa bat hasiko dut"**

JUSTINA ELEXPURU | ZINEGOTZIA

ere laguntzeko prest izango naiz", gehitu zuen.

Osoko aretoan zeudenen txaloak jaso ostean, Aintzane Oiarbidek hitz egin zuen EAJren izenean: "Ezberdintasun politikoak izan arren, eskerrak eman gura dizkizugu pertsona bezala, Jesus Elortza bezala, errespetatu egin gaituzulako. Hemen gaude nahi duzunerako. Osasunean hobera egitea opa dizugu eta bizitza lasaigoan ere disfruta dezazula". "Eskerrik asko, Aintzane, kalean elkartuko gara. Berba egiteko beti prest izango nauzu", erantzun zion Elortzak.

Alderdi sozialistako Mari Karmen Barrenetxeak ere eskerrak eman zizkion: "Guk ere baditugu gure ezberdintasun politikoak, baina uste dut duela bi urte baino gertuago gaudela". Eta Elortzaren erantzuna, hauxe: "Kalean ikusiko dugu elkar, hemen ibiliko naiz ni-eta". Herritarren txaloak entzun ziren segidan.

Udal Gobernuaren izenean, Jaione Isazelaia hitz egin zuen: "Gobernuko taldearen izenean, eskerrik asko, bioi, lan egiteko gogoz eta ilusioz egin dituzuelako udal jarduneko bi urte hauek. Ereindako haziak zaintzen jarraituko dugu guk". Segidan, opari bana eman zieten Elortzari eta Elexpururi: Gernikako Arbolako hartiz-adaxka bana.

Gobernuak izango dituen aldaketei begira, Isazelaia lehengo alkateordearen kargua hartu zuen eta Belastegik, bigarrenarena. Eta aurrerantzean Arianne Kareaga ere liberatuta egongo dela jakinarazi zuen Gobernuak; hiru pertsonaren liberazioa lautuan egongo da banatuta. EAJk esan zuen horren beharrik ez duela Bergarako Udalak.

## Hondakinen Partzuergoaren gaineko eztabaida

O.E. | BERGARA

Txingudiko Mankomunitatea Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoan sartzearen aldeko mozioa aurkeztu zuten EAJ eta PSE-EE alderdiek, elkarrekin, udalbatzak astelehenan egin zuen ekaineko ohiko osoko bilkuran.

Mozioa ez zen onartu. Aldeko bost boto izan zituen, (EAJ eta PSE-EE) eta kontrako zortzi, (Bildu eta Aralar). Mozioa bozkatu zen unean, 17 zinegotzitik 13 zeuden osokoan bilkuran. Falta ziren: Bilduko Maider Arregi eta Piti Madariaga, Aralarko Juanje Amasorrain (geroago agertu zen) eta EAJko Rafael Amasorrain.

### Arazoi eskean

"Ez dugu onartzen Bilduk kontrako botoa ematea. Gipuzkoako mankomunitate guztiek dute aukera Hondakinen Partzuergoan parte hartzeko, eta ezin dugu ulertu zuen kontrako botoa. Zergatik ez duzue nahi Txingudik parte hartzea?", galdetu zien Bilduko kideei EAJko Aintzane Oiarbidek. Hari erantzuteko, Ingu-rumen zinegotzi Leire Iruinek hartu zuen hitza, eta hauxe izan zen emandako erantzuna: "Otsaileko osokoan aurkeztutako mozio bera da; orduan ezet esan genuen eta horri eusten diogu. Tratamenduei buruzko eztabaida beste toki batean egin behar da".

## Hondakinen Mahaia eratu dute eta lanean dihardu

O.E. | BERGARA

Hondakinen Mahaia eratu dute. Duela hiru aste hasi zen lanean, eta horrela jarraitzen du. Lau alderdik eta bi plataformak hartzen dute parte mahai horretan: Bildu, Aralar, EAJ eta PSE-EE alderdi politikoek eta Bergara Zer Zabor eta Bergara Garbia plataformek, hain zuzen ere. Duela hiru astetik hona, astero elkartzen dira mahaia osatzen duten sei eragileetako ordezkariak; hurrengo bilera datorren martitzenean egingo dute.

Hondakinen Mahaiaren helburua da hondakinen bilketari buruz helburuak finkatzea eta helburu horiek lortzeko bideak guztien artean adostea. Apirileko osoko bilkura ezkerreko saiatu dira mahaia osatzen.

**SUBIJAI**

0 eta 16 urte bitarteko neska-mutilentzat arropa

DESKONTUA **30%** eta **50%** DESKONTUA

confetti paz  
3pommes QUIKSILVER Timberland ELSY

Irizar Pasealekua 1 - BERGARA - Tel.: 943 76 42 41



# San Martzial eguna, Lokatzako porra egiteko azken aukera

Ziklismo Eskolak hamaikagarren urtez egingo du Tourraren gaineko porra

XABIER URZELAI | BERGARA

Iaz ia 500 apustu jaso zituzten (492) Lokatza Ziklismo Eskolako lagunek, eta aurten kopuru hori gaintzeko lanetan dabilta. Izan ere, zenbat eta apustu gehiago, orduan eta sari potoloagoak eta, neurri berean, klubarendako diru-sarrera handixeagoa; izan ere, batzen duten %10 ziklismo eskolari laguntzeko da.

Hala, porraren 10. edizioan Lokatzako lagunek 9.000 euro banatu zituzten saritan –Sebas Fernandez irabazleak 4.920 eraman

zituena Arrasate aldera–. Eta aurten diru gehiago banatu nahi dute. Tourra, baina, hastear da, eta porra egiteko azken egunak dira hauek.

## Domekan, San Martzialen

Zapatuan, hilak 29, hasiko da Tourra, Korsikan. Hala, bihar hasita, 22 taldetako 198 txirrindularik osatutako tropela izango da Porto Vecchioko irteera puntuan. Baina lehenengo eta laugarren etapak –taldekako erlojupekoa– ez dira porrarako pun-

tuagarriak izango. Horregatik, domekan bertan ere apustuak hartzen ibiliko dira Lokatzako lagunak, San Martzial eguna aprobetxatuta. Domekara itxaron barik, baina, ondorengo taberna edo komertzioetan bete ahal izango dituzue apustu-orriak: Antzuolan, Altzarte gozo-dendan eta Bergaran Usoa eta Deportivo tabernetan: "Zapatuan, baina, goiz eta arratsalde, Irala kalean mahai bat jarriko dugu edozein informazio jaso edo apostuak bete ahal izateko. Eta domekan,



lazko irabazleak, sari banaketan. | GOIENA

DATUA

492

APUSTU

lazko porran zenbateko hori batu zuten, eta 500eko muga gaintitu nahi dute.

Antzuolako eta Bergarako San Martzialetako erromerietan ere bete ahal izango dira apustuak, 14:00ak arte", adierazi dute Lokatzatik.

Apustu bakoitza egiteko 20 euro ordaindu beharko dira, eta 15 txirrindulari gogokoena aukeratu. Eta porraren gaineko gorabehera guztiak [www.lokatza.com](http://www.lokatza.com) webgunean izango dituzue.

## Denboraldi ederrari agur

Bergara Pilota Elkarteko lagunek behar den moduan agurtu zuten denboraldia, joan den zapatuan Elosuan bazkari ederra eginda. Aurten, baina, pilota sailak protagonita berezia izan du, Aspe enpresara salto egin duen Beñat Rezusta. Denek sinatutako kamiseta eraman zuen etxera.



REYES AZKOITIA

## Labegaraietako areto futboleko kopako finalak bihar

Bihar, zapatua, jokatuko dituzte Labegaraietako areto futboleko kopako finalak. Hala, 17:00etan hasita La12 eta Alytis taldeak lehiatuko dira hirugarren postuagatik. Finalan, ostera, Betigorri eta Real Sociedad taldeak izango dira zein baino zein gehiago. Finala 18:00etan hasiko dute.

Promociones

Erregetxo Plaza

Bergara



Bergarako hirigune historikoan  
63 etxebizitza, libre, tasatu,  
BOE, garaje eta lokalak

INFORMAZIO ETA SALMENTA:

ORTELBAR, S.L.: 943 76 11 18

LOTZEN, S.L.: 943 76 11 23

## GARAIZ ZABILTZA!

Bergarako hirigune historikoan  
2, 3 logelako etxebizitzak.

- ✓ Lehenengo mailako materialak
- ✓ Sukat

Etxebizitza TASATU eta BOE tarako  
zozketan parte hartzeko  
izen emate epea zabalik


Azken eguna, 2013ko Uztailak 17, Asteazkena.

UDALETXEAN

- Babes ofizialeko 12 etxebizitza
- Babes publikoko erregimen tasatuko 13 etxebizitza (garajearekin batera)

Informazio gehiago:

[www.promocioneserregetxoplaza.com](http://www.promocioneserregetxoplaza.com)  
[www.bergara.net](http://www.bergara.net)



# Mila lagun espero dituzte San Pedroko inaugurazioan

Bergarako Koro Parrokialak lehen kontzertua egingo du 11:30eko meza nagusian eta Orfeoia Mozarten 'Requiem' abestuko du 19:00etan

O.E. / M.B. | BERGARA

San Pedro egunez, bihar, zapatua, inauguratuko dute San Pedro parrokia. Bi ekitaldi antolatu dituzte inaugurazio formalerako: 11:30ean hasiko den meza nagusia eta 19:00etan egingo duten Mozarten *Requiem* mezaren emaldia, hain zuzen ere.

## Bi urte

Bi urte iraun dute San Pedro zaharberritzeko lanek. 2011ko maiatzean itxi zuten eta lan sakonak egin dituzte, "eraikina egoera oso arriskutsuan zegoelako", Jon Molina abadeak gogora ekarri duenez. Zetabi Arkitektura Bulegoak egindako proiektuan oinarrituta, bulego horrek berak eta Jesus Laskurain aparejadoreak egin dute obren zuzendaritza eta Amenabar enpresa eraikitzaileak egin ditu lanak. Honela definitu ditu Jon Molinak egindako lanak: "Obra honekin eraikina salbatu egin da. Eta kanpotik, behintzat, bere edertasunean onenera ekarri". Hiru fasetan egin dituzte lanok. Lehengoan dorrea eta teilatu nagusia konpondu zituzten, eta hori izan da prozesu guztiko lanik garrantzitsuenak. Urtebete inguru behar izan zuten horretarako. Lehen fasea egin bitartean, bigarrenari ekin zioten: fatxadak eta sakristiako teilatuak eta gainerako teilatu txikiak konpontzea. Hirugarren fase batean eliza barruko lanak egitekoak baziren ere, "diru itu-



Jon Molina abadea eta obretako teknikariak. | MONIKA BELASTEGI

rriak agortu egin dira eta aurreagorako geratu dira lan horiek. Margotu bakarrik egin dugu", esan du Molinak.

## Bisitak

Egindako lanak herritarrei erakutsi eta azaldu gura izan dizkiete, eta, horrela, bisita gidatua egin zuten eguazten iluntzean. Herritarrek bertatik bertara ikusi ahal izan zituzten egindako lanak. Besteak beste, sakristia berria ikusteko aukera izan zuten. Hango paretako koadroek, esaterako, ozta-ozta eusten zioten paretari. Hori ikusita, atzean zegoen jatorrizko paretak bistaratu dute. Goenkale hasieran dagoen atea ere bistan dago orain; arku-ko harrietan egindako lanak ere jatorrizkoak dira. Parrokiako kanpandorreen, berriz, pasabide bat jarri dute jendeak goiko aldean nolakoa den ikusteko.

## Aritzetaren emanaldia

Obren azalpenak emateaz gain, atzoko organo kontzertua eta

gaur, egubakoitza, 20:00etan egingo duten San Pedro eta San Paulo eguneko Lehenengo Bezpera kantuak ere inaugurazio ekitaldien barruan sartzen dira. Horren ostean, Aritzeta abesbatzak emaldia egingo du Ariznoa plazan, 20:30ean. Emanaldi hori San Pedro kaleko dendari eta tabernariak antolatu dute.

Bestalde, biharko meza nagusian, sortu berri den Bergarako Koro Parrokialak lehen kontzertua egingo du, Rosa Narbaizaren zuzendaritzapean.

## 'Requiem' kontzertua

Mozart-en *Requiem* meza ezaguna kantatuko dute Oñatiko Abesbatzak eta Bergarako Orfeoia espresuki obra honetarako sortutako Oñatiko Ganbara orkestrarekin. Aitor Biain oñatiarraren zuzendaritzapean egingo dute kontzertua, bihar, zapatua. 1.000 lagun inguru espero dituzte.


Emanaldi horretako sarrerak dagoeneko salgai daude, zortzi eurotan, Pikupe Produzioen bulegoan, kultura etxean eta Lazkano zapata-dendan.



San Pedro parrokiaren aurrealdea lanak egin aurretik eta ostean. | ZETABI



Sakristian, lehengo paretak utzi dute agerian. | ZETABI



Goenkale kale hasieran dagoen atea bistaratu egin dute. | ZETABI



Teknikariak lan azalpenak ematen herritarrei, eguaztenean. | M.B.

## Gipuzkoako udako txapelketako azken proba jokatu dute bihar Agorrosinen

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Gipuzkoako udako partaidetza txapelketako azken proba jokatu dute bihar, zapatua, Agorrosin kirol eremuko igerileku handian.

Gipuzkoa osotik etorriko diren gaztetxoek hartuko dute parte; besteak beste, Tolosalde, Oarsoaldetik, Legazpitik eta Oñatitik. Bergarako igeri-

lariak ere hartuko dute parte. Bergarako igeriketa taldeak eta Gipuzkoako Federazioak antolatutako proba izango da.

## Kanpoko eremua, zabalik

Igeriketa probak 09:00etatik 14:00etara izango dira, igerileku estalian. Kanpoko berdegunea eta jolas igerilekua zabalik egongo dira.

## Elosua-Plazentzia estazio megalitikoaren ezagutzeko ekintzak antolatu dituzte

O.E. | BERGARA

Elosua-Plazentzia estazio megalitikoaren ezagutzeko hainbat ekintza antolatu ditu Bergarako Udalak, Debabarreneneko Mankomunitatearekin eta Elgoibarko eta Sorluzeko udalekin batera. Horietako ekintza bat da domekan egingo duten bisita gidatua. Hiru ordu eta erdi inguruan egiten den bederatzi kilometro-

ko ibilbidea da, Karakate gainetik Irukurutzetarainokoa. Garai hartako bizimodua, indusketa arkeologikoen emaitzak eta bestelako ezagutzak bisitatzeko aukera eskainiko du bisita gidatu horrek. Irteera puntua izango da Karakateko aparkalekua, Sorluzen, 10:00etan. Irailean, bestalde, haurrentako tailerrak egingo dituzte.

## Atera duen materiala saltzeko mahaiak jarriko ditu Harrerak

Begarako Harrera elkarteak materiala saltzeko eta informazioa emateko mahaiak jarriko ditu bihar, zapatua, Irala kalean, goizean, eta etzi, domeka, San Martzialen, egun osoan. Kamisetak, kuleroak eta galtzontziloak izango dituzte salgai, besteak beste. Bazkietza egiteko aukera ere egongo da informazio mahai horietan.

# SANPEDROAK 2013

## Kulturak batzeko saiakera

'Herrixa munduan eta mundua herrixan': herriko 68 artistak egindako musika ikuskizuna

A. ARANBURUZABALA | ESKORIATZA

Eskoriatzarrak askotariko jatorri eta kulturatakoak badira ere, elkarrekin bizi izatea guztiontzako aberasgarria dela erakutsiko du *Herrixa munduan eta mundua herrixan* ikuskizunak. Gorosarri plazan egingo dute ekainaren 30ean, 22:30ean.

### Kultura arteko nahasketa

Parrokiako abesbatzakoak, txalpartariak, tai txi taldekoak, txistulariak, marrazkilariak, musika tresna joleak, dantzariak... horiek guztiak igoko dira agertokira. 68 herritar dira, gazteak eta helduak. Iaz egin zuten lehenekoz molde antzerakoa zuen ikuskizun herritarra eta hark izandako harrerak animatuta prestatu dute aurtengoa; partaideen artean, baina, badira kide berri asko.

Iazko esperientzia errepikatzeke gogoarekin lanean hasi zen talde txiki bat apirilean, eta tartean zen Mari Jose Pagaldaik idatzi zuen gero gidoia. "Kultura arteko nahasketa bat izango da. Beste herrialde batetik etorritakoei egingo diogun ohorezko-agur bat modukoa, eta, era berean, eurek euren kultura hurbilduko digute", dio Pagaldaik.

Herriko kultura adierazpen aberasgarriaren erakusle ere badela gaineratu du: "Herrikoak gara parte hartzen dugun guztiak, sekulako aberastasuna dugu, talde asko daude eta guztiak erakutsi dute hasieratik elkarrekin lan egiteko gogoia eta ilusioa".

### Artearen bidez kontatua

Elkarrekin kontatuko duten istorioan, apenas dagoela hitzik esan du proiektua koordinatu duen Mari Jose Pagaldaik: "Hizkuntzak eta ideologiak sarritan herritarren



Ekainaren 9an frontoian egin zuten entsegu orokorreko une bat. | AITZIBER ARANBURUZABALA

### Sortuko Dirak Besteak kantaldia

Mikel Urdangarinek, Alex Sarduik, Pettik, Mixel Ducauk, Olatz Pratek eta Estitxu Pinatxok elkarrekin abestuko dute Sortuko Dirak Besteak 2013 izeneko biran, ekainaren 29an, herriko plazan, 23:00etan.


Azken hirurak berriak dira Sortuko Dirak Besteak ekimenean eta berria da, era berean, errepertorioa. Iaz bezala, garai bateko kantu kuttunak kantatuko dituzte, batzuetan bakarka eta bikoteka, zein taldeka bestela. Baina oraingoan izango dira abeslari bakoitzak kantu propioak abestuko dituen uneak, atzerriko kantu ezagunen bertsoak eta baita Pier Paul Berzaitzen kantu berri bat ere. Alaitasuna, modernotasuna eta gaztetasuna duen kontzertu kolektiboa dela diote protagonistek, eta irauten duen bi ordu eta erdiak motz geratu zirela ekainaren 14an egin zuten estreinaldian.



Petti abeslaria. | JOXE ANJEL ARBELAIZ

artearen mugak ipintzen ditu eta artea tresna aproposa da muga horiek gainditzeko. Hainbat sormen diziplinaren bitartez elkarrekin gauzak egiteko kapazak garaia erakutsiko dugu".

Ikuskizuneko atalak finkatuta, talde bakoitzak bere kabuz prestatu zuen gero bakoitzari egokitutako ikuskizunaren zatia. Ondoren, frontoian egindako bi entsegu orokorretan erakutsi eta txukundu zituzten elkarrekin atal guztiak. San Pedro jaietako bigarren egunean ikusiko dugu, bada, emandako fruitua.



Ahate eta antzaratik eratorritako  
patea eta produktua

Pipareta eta Txistorra.



Aingeru Guarda Pasealekua, 18 . Eskoriatza. T. 943 71 5131

www.pateszubia.com  
ondo pasau jaixak!

## AGURRA

**BEÑAT HERCE**  
Eskoriatzako  
alkatea




## Errespetua

Udaberri hotz eta, batez ere, euritsu hau amaitzeaz bat, badatoz sanpedroak. Eguzkia lotsati edo alfer samar dabilen urte honetan ere, hotz ala bero, eskoriatzarrok gogotsu hartuko ditugun egunak izango dira. Txupinazoaz batera hasiko dira irri eta algarak, danbor zaratak, txistu eta musika doinuak, dantza eta kantuak. Denok egin eta denontzako diren jaiak. Hala izateko, bada, zaindu kale eta bazterrak eta, batez ere, pertsonak: gizon ala emakume, edozein erlijio, arraza edo sexu joerakoak. Errespetuz jokatu eta ez dezagun onartu inolako eraso eta irainik, herritarrok baikara Eskoriatzak daukanik garrantzitsuena! Urtez urte hainbat herritarren laguntzarekin antolatzen diren jaiak dira sanpedroak, herrikoiak eta parte hartzaileak. Bene-benetan eskertu gure nuke jaiak antolatzen laguntzen duzuen guztion lana eta egun hauetan laguntzeko agertzen duzuen prestutasuna. Tamalez, aurten ere ez gara denok egongo. Arrazoiak arrazoi, herriko jaietz disfrutatu ezingo egongo zarete, presente izango zaituztegu, maite zaituztegu.

Eskoriatzarrok, sanpedro bikainak opa dizkizuet. Disfrutatu, bada, mimo handiz antolatu ditugun egun hauek!

# SANPEDROETAKO EGITARRAUA



GOIENA

**TXUPINAZOA** | BARIKUA, 20 | PLAZAN | 18:00 Jaien hasiera modura txarangak alaituko ditu kaleak. Aurten, Parrokiako abesbatzak esango du pregoia. Ostean, musika bandaren kalejira egongo da.

## BARIKUA BEZPERA

# 28

**12:00** Umeentzako MARGO LEHIAKETA Fernando Eskoriatza plazan.

**13:00** Margo lehiaketaren SARI BANAKETA plazan.

**17:00** Sanpedroetako III. FUTBOLIN TXAPELKETA Gaztelekuan.

**17:00** TXOSNA gunea, zabalik.

**17:45** Leiho eta balkoietako LOREEN VI. LEHIAKETAREN sari banaketa.

**18:00** Akelarre TXARANGA.

► PREGOIA parrokiako abesbatzak egingo du.

► Ondoren: Musika Eskolako bandaren KALEJIRA eta txistulariak buruhandiekin.

**18:30** Debagoieneko emakumeak gerra zibilean ERAKUSKETAREN inaugurazioa Ibarraundi museon.

**19:00** Eskulanak ERAKUSKETAREN inaugurazioa Kultura Etxean.

**19:00** Poxpolo eta Konpainia PAILAZOAK Gorosarri plazan.

**19:00** SOKATIRA txapelketa herriko plazan.

**19:30** Parrokiako abesbatzak Eduardo Gorosarriren SALBEA abestuko du San Pedro elizan.

**22:30** Nagusien DANBORRADA.

**22:30** Ai Ene taldearekin DANTZALDIA plazan.

## ZAPATUA SAN PEDRO EGUNA

# 29

**10:00** Eskoriatzako TXISTULARI taldearekin kalejira.

**12:00** Kartoizko zezenekin ENTZIERRO TXIKIA Zaharren Egoitzatik Intxaurtxuetara.

► Bertan, ERREKORTADORE ESKOLA ibiltaria.

**12:00** MEZA NAGUSIA San Pedro elizan, parrokiako abesbatzarekin.

**13:15** Musika Eskolako BANDAREN KONTZERTUA plazan.

**17:00** GAZTE JINKANA.

**18:30** ESKU PILOTA partiduak pilotalekuan (Sarrera 10 euro).

► Otaegi eta Zubizarreta - Oartzabal eta Galartza VI.a

► Eugi eta Eulate - Capellan eta Escudera

**18:30** Turukutupa taldea *Rezikletas* KALE IKUSKIZUNAREKIN.

**19:30** KONTZERTUA txosnagunean.

**20:00** Burrenba Keleke BATUKADAREN kalejira.

**23:00** XABIER LETE GOGOAN *Sortuko dira besteak* Gorosarri plazan.

**23:00** Iñigo Cabezafuego, Sumisión City Blues eta AZ/DZ taldeen KONTZERTUA txosnetan.

**00:00** ORQUESTA CONTINENTE plazan.

**00:00 - 03:00** Borondatezko ALKOHOLEMIA kontrola Santa Mariñe arratean. Kontrola egin eta informazioa emango da.

## DOMEKA

# 30

**10:00** TXISTULARIEKIN kalejira.

**12:30** Hildakoen aldeko MEZA.

**12:30** Txosna gunetik bertso trikitixa KALEJIRA.

**13:00** CASTELLERS ikuskizuna.

**14:30** Koadrilen arteko BAZKARIA.

**15:30** XXII. MUS TXAPELKETA Gernika plazan.

**16:30** Koadrilen arteko JOKOAK: *Eskoitzako III. banderia.*

**18:00** Haurren DANBORRADA.

**22:30** *Herrixa munduan eta mundua herrixan* IKUSKIZUNA Gorosarri.

**00:00** *Una noche sin Sabina* plazan.

**00:00** DJ El Vizkainoren eskutik KARAOKEA txosnagunean.

## ASTELEHENA EUSKAL JAIA

# 1

**10:00** TXISTULARIEKIN kalejira.

**12:30** TALOGILEAK eta SAGARDO kupelak plazan.

**12:30** Musika eskolako DANTZA TALDEA plazan.

**13:30** BURUHANDIEN TXIRRINDULARI lasterketa.

**13:30** HERRI BAZKARIA Santa Mariñe plazan.

**17:30** APAR FESTA Santa Mariñen.

**19:00** VIII. SANPEDROETAKO KANTU TXAPELKETA plazan.

**22:30** AKERBELTZ taldea plazan.

**00:00** BANDERA JAITSIERA eta TRUMOIKADA.



## Gora San Pedroak!

Zure konfiantzako garbiketa enpresa

☎ 943 71 48 45

[www.hemen-garbiketak.com](http://www.hemen-garbiketak.com)



Mantentze garbiketak, obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:

- Bulego eta lokalak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegia, anbulatorioak, eta abar.



Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORIATZA • [hemen@hemen-garbiketak.com](mailto:hemen@hemen-garbiketak.com)

# ALDATZ

## TABERNA

Aranburuzabala kalea 11 ESKORIATZA

Ondo pasau  
San Pedro jaixetan!





40ko hamarkada hasieran ateratako argazkia. | ESKORIATZA IRUDITAN

## Bizikleta gainean lehiatuko dira, buruhandiak jantzita

Hanka lurrean jarri barik helmugaratzen den azkenak irabaziko du lasterketa

OIHANA ELORTZA | ESKORIATZA

Buruhandiak soinean jantzita egin behar den txirrindulari lasterketa egingo dute aurtengo San Pedro jaietako egitarauan. Jaietako berritasunetako bat da.

### Aspaldiko ideia

Duela urte asko ateratako argazki batetik sortu da ideia. 1940ko hamarkada hasieran ateratako argazki batean ageri dira hainbat buruhandi bizikleta gainean lasterka, Eskoriatzako erdiko kalean. Argazki hori ezaguna da herrian; herriarrek behin baino gehia-

gotan ikusi dute, argazki zaharren liburuan ez bada, udal webgunean zintzilikatuta dagoen argazki zaharren artxiboan.

Udaleko kultura sailak argazki hori hartu du oinarri, hain justu, aurtengo jaien egitarauaren barruan sartu duten berritasuna antolatzeko.

### Denbora neurtu

Uztailaren leian, astelehena, egingo dute buruhandien txirrindulari lasterketa. 13:30ean izango da, erdiko kalean. Buruhandi zaharrak eta egungoak erabiliko

dituzte lasterketarako, zazpi bat guztira. Parte hartzeko, baldintza bete beharko dira: 16 urte baino gehiago izatea eta nork bere bizikleta eramatea.

Lasterketa irabazteko baldintzak, baina, ez dira parte hartzeko bete behar diren bezain errazak. Izan ere, lasterketa irabaziko du hanka lurrean jarri barik, helmugan sartzen den azken txirrindulariak. Asko animatzen badira, txanda ezberdinak egingo dituzte. Bakoitzaren denborak neurtuko dituzte eta gutxien egingo duena izango da garailea.

## Giza irudi bitxiak, bata bestearen gainera igota

Falcons de Vilafranca taldeak egingo duen ikuskizuna jaietako berritasunen artean dago

O.E. | ESKORIATZA

Giza irudiak egingo ditu Falcons de Vilafranca taldeak domeka eguerdian, 13:00etan, herriko kaleetan zehar eta plazan.

### Lehenengo aldiz datoz

Bata bestearen gainean igoz osatzen dituzte giza irudiak. Askotariko zailtasun mailatakoak egingo dituzte eta altuerak, orekak, indarrak eta kide bakoitzaren ahaleginak berebiziko garrantzia izaten dute lortu gura duten irudia lortzeko. "Guztira, 50 lagun inguru etorriko gara Eskoriatzara giza irudiak egitera; 4 eta 50 urte artekoak denak. Kide bakoitzaren lana, kokapena, oso garrantzitsua da, besteena baldintzatzen duelako. Taldeko lana da egingo duguna", dio Falcons de Vilafranca taldeko kide Xavier Leceguik.

Castelleres-en kontrara, giza irudi lauak dira falcons delakoak. Katalunian, castelleresak egingo dituzten taldeak 60tik gora dira eta falconsak egingo dituztenak, berriz, 14 bat. Horietako bat da Eskoriatzara datorren Falcons de Vilafranca taldea, Kataluniako Penedes eskualdetik dator eta 53 urteko esperientzia du. Pozik daude Eskoriatzara datozelako. "Orion eta Lasarten egon izan gara, adibidez, eta jendeari asko gustatu zaio gure lana. Eta gu ere oso pozik egon gara herri bi horietan, ondo hartu gaituzte beti. Eskoriatzara lehenengo aldiz etorriko gara aurten, eta gogotsu gaude", dio Falcons de Vilafranca taldeko kide Xavier Leceguik. "Tamaina askotariko piramideak, zutabeak eta irudi bitxiak egingo ditugu Eskoriatzara", gaineratu du.



Horrelako irudiak egingo dituzte Eskoriatzan. | FALCONS DE VILAFRANCA



## BENTA MOTZ taberna-jatetxea

- Bazkariak
- Afariak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak...



Proba ezazu gure karta berria: arrain-hanburgesak...

Gaztainadui kalea 21 • Eskoriatza • Tel.: 943 25 29 39





Ezkerretik eskuinera: Mari Mertxe Biteri, Rosarito Pagaldai, Rosarito Eraña eta Ixiar Eraña. | TXOMIN MADINA

## Pregoia eta txupinazoa, Parrokiako Abesbatzak

Pozik daude kideak jaiari hasiera emateak dakarren erantzukizunarekin

TXOMIN MADINA | OÑATI

Urtetan egindako lanaren errekonozimendu gisa, Parrokiako Abesbatzak pregoia irakurri eta txupinazoa botako du, jaiari hasiera emateko. Halaxe erabaki du Udalak.

"Ez genuen espero, sorpresa izan da", diote, pozik, abesbatzako kide Mari Mertxe Biterik, Rosarito Erañak, Ixiar Erañak eta Rosarito Pagaldaik. "Ez gara herrian gauzak egiten dituzten bakarrak, baina aurten guri tokatu zaigu, eta pozik gaude", gaineratzen dute.

Pregoia abesbatzako zuzendari Jesus Iriak idatziko duen arren, Ixiar Erañak irakurriko du, eta Erañak berak botako du txupinazoa. Irakurtzearekin ez ei dago urduri, mezetan ere irakurri ohi duelako; txupinazoak, baina, arduratuago dauka. 18:00etan izango da jaiari hasiera emango dien ekitaldia; abesbatzakoek, baina, ez dute ospakizunetarako asti handirik izango, 19:00etan Gorosarriren salbea abestu beharko dute eta. San Pedro eguneko mezan ere izango dira, gainera.

**Mende laurdeneko historia**

Duela 25 urte inguru sortu zuten abesbatza, eta egun, hamazazpi kide ditu, denak emakumeak. Egiten duten lana ez da makala, parrokiaren egiten diren hileta guzti-guztietan abestu ohi dute-eta; baita Gabonetan eta Dorletan ere.

Abesbatzara jende berria animatzen den galdetuta, ezetz erantzuten dute. Baina horrek ez ditu askorik atsekabetzen: "Hau gurekin amaituko da, baina berdin dio, ahal den artean jarraituko dugu". Eskoriatzarrek eskertu egingo dute, seguru.

## Koadrilen indarrak neurtzeko aukera aparta

Sokatira txapelketa antolatu dute aurten lehenengo aldiz; gaur bertan izango da lehia

T.M. | ESKORIATZA

Aurtengo Eskoriatzako jaietako nobedadeak lehenengo egunetik nabaritu dira. Izan ere, gaur bertan sokatira txapelketa egingo dute, lehenengo aldiz. "Iaz bolatokia jarri genuen, eta aurten, kirolez aldatu gura izan dugu eta sokatira aukeratu dugu", dio Jose Anjel Petralanda zinegotziak. Arratsaldeko zazpitan hasiko da lehia eta herriko plazan ibiliko dira taldeak euren indarrak neurtzen.

**Talde mistoak**

Bada, Petralandak emandako azalpenen arabera, sokatira txapelketa bi kategoriatan banatu dute: lehenengo kategorian, 14 eta 18 urte bitartekoek hartuko dute parte; eta bigarrenean, aldiz, 18 urtez gorakoak lehiatuko dira.

Lehiatzeko interesa dutenek hainbat baldintza bete beharko dituzte. Hasteko eta behin, talde bakoitzak sei eta zortzi kide bitartean izan beharko ditu. Baina, kide kopuruaz gainera, badago beste baldintza bat: taldeak mistoak izatea, hain zuzen ere. Parte hartzeko gaur bertan eman behar da izena, txapelketa hasi aurretik.

Txapelketaren irabazleek, herriko koadrila indartsuena izateak dakarren ohoreaz gain, jasoko dute bestelako saririk. Hala, nagusien kategorian gailentzen den taldeak urdaiazpiko bat eroango du etxera; garetxoaren saria, bestalde, merienda eder bat izango da.

Zure koadrila Eskoriatzako indartsuena dela uste duzu? Gaur arratsaldeko sokatira txapelketan duzu hori frogatzeko aukera aparta.



Sokatirak lehenengo aldiz izango du lekua San Pedro jaietan. | GOIENA



Maulanda  
merenderoa

Maulanda auzoa ESKORIATZA  
Tel.: 943 71 47 20 eta 678 62 74 85

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Eguneko menua
- Karta



Ondo pasa  
jaixak!



San Juan Kalea 12 ESKORIATZA Tel: 652 77 53 58

**MARTIN** frutategia  
Frutan eta txarkuterian  
espezialista

*Ondo ibili San Pedrotan!*

# Udazkenerako zabaldu gura dute Santa Mariñeko aparkalekua

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak badaki erdialdean aparkatzeko arazoak daudela, eta, hori konpontzeko, Goitu eta Razkin eraikuntza enpresek Santa Mariñe plaza ondoan erabili barik dituzten lur-zatiak aparkaleku bihurtzea pentsatu du.

Berez, aurreikusita dago eremu zabal horretan etxebizitzak eraikitzea; baina epe motzera begira, behintzat, ez da horrelakorik egingo, eta, hortaz, bestelako erabilera ematea adostu dute orain Udalak eta esandako bi enpresek: 120 ibilgailurendako aparkaleku moduan egokitzea.

Kontraprestazio moduan, alokairua kobratu beharrean, enpresek ez diote ondasun higiezin gainerko zerga ordaindu beharko Udalari. Kontratua urtebeterako da, eta, gehienez, hiru urte luzatu ahal izango da.

Egun, belarrez beteta daude lur horiek. Jabeak arduratuko dira dena txukuntzeaz. Horrez gain, Santa Ana auzoa eta Arbiñoste kalea lortzen dituen zubia ere indartuko dute. Gogoratzekoa da erdialdea oinezkoendako egokitu dutela udako oporren ostean, eta, ondorioz, Gasteizerantz doazen ibilgailuak zubi horretatik

pasako direla. Obrak ez dira hor amaituko. Izan ere, ibilgailuendako zubi ondoan egurrezko beste zubi bat jarriko dute; oinezkoendako izango da azken hori. Dena ondo baldin badao, irail edo urrirako herritarren eskura jarri gura dute guztia.

## Ibon Biteri bake epailea

Martitzenean egindako osoko bilkuran eman zuten horren berri. Batzar berean beste hainbat gai ere onartu ziren. Esaterako, bake epailearen izendapena onartu zuten. Ibon Biterik beste lau urtez jarraituko du kargu horretan.

## Gerrako emakumeen gaineko erakusketa zabalduko dute gaur

Sanpedro jaiak direla-eta, Arrasateko Ekin emakume taldeak egindako *Debagoieneko emakumeak gerra zibilean eta frankismoan* erakusketa inauguratuko dute gaur, egubakoitza, 18:30ean, Ibarraundi museoan.

Gerra garaiko hezkuntza, erlijioa, etxeko eta kanpoko lanak, aisialdia, politika zein familiarekin lotutako askotariko pasarteak ezagutu eta objektuak ikusteko aukera eskainiko du erakusketak. Eta *Eskoriatzarrak berbetan* proiektuko hiru emakume eskoriatzarren zenbait pasarte entzuteko aukera ere izango da erakusketa berean.

## Domekan amaitzen da Udaero programan izena emateko epea

Gazteei zuzendutako Udaero programan izena eman daiteke domekara arte, Udal Gazteria Zerbitzuan edo gaztelekuan. Uztailaren 4tik 23ra bitartean egingo diren ekintza bakoitzak prezio zehatza du: *paintball*-a egiteko Debara egingo duten irteerak eta Zarauzko surf ikastaroak 15 euro balio dute; Atxorrotz eta Uxar inguruan izango den lau eguneko mendi irteerak, 12 euro; eta Usakora bizikletan joateak eta azken jaiak, ostera, bi euro. Dirua Udaero programaren harira egindako izen-emate orriarekin batera eroan beharko da lehen aipatutako tokietara.



AGURTZANE GAINZARAIN

## 1996an jaiotako kintoen ardura izan da aurten makala

Zapatuan, ekainak 22, makalaren bila joan, eta domekan, bapo bazkaldu eta zuhaitza apaindu ostean, 1996ko kintoez jaso zuten Eskoriatzako plazan makala; denera, 26 lagunek. Berezitasun bat badu aurtengo makalak: loreekin eta bestelako apaingarriekin batera, Panaman hil zuten Mikel Illarramendiren argazki bat ere badarama, haren semea 1996ko kintoa delako.

## Ederlanera joan da Aste Zapatistaren saria

Dagoeneko agertu da Aste Zapatistaren bueltan egindako zozketaren irabazlea. Fagor Ederlanek Torrebason dituen instalazioetara joan da saria; Pedro Ugartetxek du 1.153 zorbaki irabazlea. Postugu landa-turismoan bi lagunendako asteburuko egonaldia irabazi du. Zorionak, Pedro!



GOIENA

**LENIZ**  
E S K O R I A T Z A

**SUZUKI**

ondo pasa  
jaietan

## KONPONKETAK:

Txapa

Margoa

Mekanika

Aingeru Guarda Pasealekua 31. Eskoriatza. • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 40 10

Ondo pasatu  
jaietan!

**MONDRAGON**  
UNIBERTSITATEA

HUMANITATE ETA  
HEZKUNTZA ZIENTZIEN  
FAKULTATEA

## HUHEZI

Dorleta auzoa z/g  
ESKORIATZA

Tel.: 943 71 41 57

Faxa: 943 71 40 32

E-posta: [harrera.huhezi@mondragon.edu](mailto:harrera.huhezi@mondragon.edu)

<http://www.huhezi.mondragon.edu>

# Herriko lorategiak itxura ederrarekin

Herria handitu, eta lorategi gehiago ere badago

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Atsegina izaten da herrietako lorategiak txukun-txukun ikustea. Belarra zainduta, lorez josita, zuhaitzak inausita... Aretxabaletan egiteko horren ardura Makai kooperatibak dauka azken bi hamarkadetan.

## Sasoiko landareak

Urte hauetan guztietan gora egin du herriko lorategien kopuruak, Manolo Hernandez lorazainaren esanetan. "Herria bera ere han-

ditu da eta berarekin batera lorategien kopurua. Lanik ez zaigu falta!".

Urtean birritan egiten dituzte landaketak Makaiko hiru lorazainek: udaberrian eta neguan, hain zuzen ere. Hori horrela, denboraldiko landare eta loreak ipintzen dituzte, zaintzeko askoz errazagoak dira eta modu horretan jardutea, gainera, merkeagoa da. "Gutxi gorabehera, beti eduki izan dugu irizpide hori lanean".

Neguan pentsamenduak landatu zituzten. Orain, aldiz, batez ere begoniak ipini dituzte Aretxabaletako lorategietan eta Durana kaleko faroletatik eskita eta udaletxe kanpoko loreontzietan, aldiz, surfiniak. "Zergatik? Gehiago irauten dutelako, horrexegatik".

Gertakari puntual batzuetan izan ezik, lorategien itxura ederra zaintzen dute herritarrek, Hernandezen esanetan. "Edertasuna begitik sartzen den zerbait izanda, gehienek gustuko dute txukun mantentzea". Baina ez du ukatzen zenbaitetan lana izaten dutela hondatutakoa konpontzen.

## Txakurren kakak, kaltegarri

Bestalde, urtetako borroka bati amaiera eman guran dabilta: txakurren kaken arazoari, hain zuzen. Izan ere, lorategien itxura zatartzeaz gainera, kaltegarria da landareentzat. "Jendeak ez du bere txakurrak lorategian egindakoa jasotzen; ongarrria dela uste du, baina ez da horrela, daukan azidoak min egiten die loreei eta baita belarrari ere, dena erretzen du eta. Baina ez kakek bakarrik, txizak eragin bera du".

Ana Bolinaga alkatearekin ere egin dute berba herriko lorazainek arazoari irtenbidea topatu guran: "Zakarrontzi bereziak ipiniko dituztela esan digu".



Aretxabaletako lorategi bat. | Z.V.D.M.



Neska-mutilak iaz udalekuetan. | MIRARI ALTUBE

## Jolaserako ordua iritsi zaie 280 neska-mutili

Uztailaren 2tik 23ra bitartean zer egin izango dute herriko gaztetxoek udaleku irekietan

Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Herriko kaleak eta inguruak jolastoki bilakatuko dira datorren astetik aurrera, udalekuetan murgilduko baitira herriko neska-mutilak.

Guztira, 3 eta 12 urte bitarteko 280 aretxabaletarrek hartuko dute parte; txikiak goizez elkartuko dira eta nagusiak, goiz zein arratsaldez.

Eta guztiak zer egin izango dute, Gazteria teknikari Maider Etxanizek azaldu bezala: "Egitarau borobila prestatu dugu, beste behin ere".

## Irteerak, eskulanak...

Herriko kaleetan aritzeaz gainera, auzoetara-eta egingo dituzte irteerak, esaterako: "Urkulura joango dira, Otala Zelaira, Apotzagara...". Baina, gainera, Galartzako baserri

batean gaua igaroko dute udalekuetako zenbait parte hartzailek. Eta oraindik erabaki ez badute ere, hondartzara edo Gamarrako igerilekuetara joango dira.

Bestalde, udalekuetan ingurumena eta kirola uztartzen saiatuko dira, eta, horretarako, patinajea egingo dute, adibidez. Irudimena lantzeko eskulanak egingo dituzte eta sukaldean ere sartuko dira.

## Udaero, uztailaren 4an

Bestalde, uztailaren 4tik 23ra Aretxabaletako eta Eskoriatzako gaztelekuetako Udaero ekimena egingo dute. Hala, datorren egunean Lastur aldera joango dira gaztetxoak; *paintball*-ean ibiliko dira eta horren ondoren, berriz, hondartzara abiatuko dira.

## Kaleak iraz jantzita usadio zaharren eredua jarraituta

Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Antzina, baserrietako atarietan iratzea ipintzen zuten udako solstizioarekin batera, zorte ona erakarri eta txarra uxatu guran. Bada, azkeneko sei urteotan, Aretxabaleta osora zabalduta den usadioa da hori.

Hori horrela, San Juan egunez herriko kaleek itxura berezia zuten: hain zuzen, iraz estalita esnatu ziren astelehenean. Sorgin talderen batek landare-hostoak atariz atari banatu izan balitu bezala. Kalera irteteko haien gainetik pasatu behar...

## Gurutzeak, lore sorta...

Baina atarteak iraz josi baldin bazituzten sorginek, zenbait tokitan, gainera, gurutze bereziak ipini zituzten, arantza beltzarekin lotuak; horietariko batzuk ikusi ahal izan ziren Pausokan, udal-txe zaharrea eta Murruxiko mendi elkartearen lokalean.

Horrez gain, egun batzuez Arkupen ikusgai egon da datorren urteko San Juan bezperako suan erreko duten eta gariz, oloz eta garagarrez egindako lore sorta.



Iratzea lurrean eta gurutzea atean. | Z.V.D.M.

## TXALOAK ETA TXISTUAK

## Loreontziak hartu eta apurtu dituzte



Ekainaren 22an Belar Meta dendako loreontziak famatu egin den

kabinaren gainean utzi zituen norbaitek; gainera, horietariko bat apurtuta eta beste bat egoera txarrean azaldu ziren. "Orain arteko txantxak atseginak ziren, baina honek ez du graziarik."



IDOIA ELEXPURU

## Internet erabiltzeko ikastaroa eskainiko du KZguneak uztailean

Uztailean zehar Internet erabiltzen irakatsiko dute Aretxabaletako KZgunean. Hilaren 15etik 30ra bitartean eskainiko dute ikastaroa, astelehentik egubakoitzera, 09:00etan hasi eta 11:00ak bitartean. Gaztelaniazko saioa izango da. Izen-emateak: 943 02 36 14 zenbakian edo [tutor.aretxabaleta@kzgunea.net](mailto:tutor.aretxabaleta@kzgunea.net) helbidean.

## Udan EGA azterketa prestatzeko ikastaro trinkoak euskaltegian

EGA azterketa prestatzeko ikastaro trinkoak eskainiko du udan Aretxabaletako Leintz Udal Euskaltegiak. Uztailaren 1etik 17ra goizez elkartuko dira eta irailean egunero, arratsaldean; ordutegia zehazteke dute. Oraindik eman daiteke izena, 943 79 21 68 telefonora deituta edo euskaltegira bertara joanda.



# Bigarren aldiz antolatu dute koadrilen arteko futbol lehiaketa

Uztailaren 20an izango da, Ibarra futbol zelaietan; ireki dute izen-ematea

## ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Uztailaren 20an egingo da koadrilen arteko Debagoieneko Zazpiko Futbol Txapelketa Aretxabaletako Ibarra zelaietan, bigarren aldiz.

"Iaz 13 taldek eman zuten izena eta aurten ere antzerako kopurua espero dugu. Baina, gainera, emakumezkoen presentzia handitzea gurako genuke". Hala azaldu du UDAko zuzendaritzako kide Ibai Zangituk. "Ez da derrigorrez emakumezko talderik apuntatu behar, talde mistoek ere eman dezakete-eta izena".



Iaz Ibarra eginiko txapelketa. | ARANTZAZU EZKIBEL

## Portasolgo jailetan

Aurten ere Portasolgo jaiak aprobetxatu dituzte koadrilen arteko zazpiko txapelketa antolatzeko. "Gure harri-koskorra ipintzen diogu modu horretan festari".

Egun osoko jardunaldia izango da uztailaren 20koa: goizean kanporaketak jokatu dituzte parte-hartzaileek eta arratsaldean izango da finala. Oraindik ere zenbait kontu zehazteke dituzte antolatzaileek: "Iaz moduan, jatekoa eta edatekoa egongo da, baita musika eta sari bereziak ere. Baina oraindik ez dugu den-dena zehaztu".

## ESANAK

**"Koadrilen arteko futbol txapelketan emakume gehiagok parte hartzea gurako genuke"**

IBAI ZANGITU | UDA-KO KIDEA

## Uztailaren 15a azken eguna

Txapelketan 16 urte baino gehiagokoek -1997an jaiotakoak barne- eman dezakete izena. Adin mugarik ez dago; iaz gazteenak 16 urte zituen eta helduenak, berriz, 50.

Izena emateko azken eguna uztailaren 15a da. Eta, hain zuzen ere, hainbat bide dituzte interesatuek horretarako: Twitter, Tuenti zein Facebook bitartez (*Udaretxabaleta*); Orly tabernan; eta *udaretxabaletake@gmail.com* helbidean.

## Uztailean zinema emanaldiak itzuliko dira Zaraiara

### Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Apirila ezker ez da zinema emanaldiak egon Zaraiara aretoan. Izan ere, maiatzean eta ekainean antzerkiak eta dantzak izan dute protagonismoa, batez ere, kultura agendan.

Edozelan ere, uztailean berriro ere Aretxabaletan filmak ikusteko aukera egongo da. Sarri izango dira emanaldiak, Kultura teknikari Inma Miguelek aipatu duenez.

Hiru film eskainiko dituzte: batetik, uztailaren 11n (22:00), 12an (22:00), 14an (19:30) eta 15ean (19:30), Scott Fitzgeralden eleberrian oinarritutako *El Gran Gatsby* emango dute.

Egun horietan, gainera, haurrei zuzendutako *Monstruos University* animaziozko komedia eskainiko dute Zaraiara, 18:00etan eta 17:00etan.

Aretxabaletan emango duten hirugarren pelikula, berriz, *After Earth* izango da, Will Smith eta haren seme Jaden Smith protagonista diren filma, hain zuzen. Lau egunean emango dute: hilaren 18an (22:00), 19an (22:00), 21ean (19:30) eta 22an (19:30), hain zuzen ere.

## JOAN ZAIGU

**Fernando Aguilar Camacho**  
'Galgo de Aretxabaleta'  
Atleta



Fernando Aguilar. | GOIENA

J aengo Frailes herrian jaio zen Fernando Aguilar, 1938an, baina 1952an iritsi zen Aretxabaletara eta bertan hazi zen. Ekainaren 21ean hil zen atleta ohia, egungo bere bizilekuan, Torrevejan.

*Galgo de Aretxabaleta* atleta ezagun egin zen Estatuan, 10.000 metroak 29 minutu baino gutxiagotan egin zituen aurre-

neko pertsona izan zelako. Hain zuzen ere, 1964an errekorra egin zuen -28.59 minutuko denboran- eta 1988ra arte mantendu zuen marka. Besteak beste, Tokioko Olinpiar Jokoetan ere hartu zuen parte, 1964an.

Pistan eta mendian zehar egiten zuen korrika atletak.



Ainhoa Cabero, Arkupen. | Z.V.D.M.

Ainhoa Cabero | Margolaria

## "Pintura oso zabala, erabat subjektiboa eta positiboa da"

1987tik 2013ra bitartean hark egindako lanak ikusgai egongo dira uztailean zehar Arkupen

### Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Arte Ederrak ikasi zituen Ainhoa Caberok eta bere lanen errepasoa jasotzen duen erakusketa irekiko du Arkupen. **Astelehenetik aurrera zure lanak egongo dira ikusgai Arkupen.**

*Inbentarioa* deitzen den erakusketa da. Ilusioz egiten dut, baina ez da erakusketa tematikoa izango. Beharra neukan pinturaz disfrutatzen hasi nintzenetik honako nire lanen errepasoa egiteko; atzera begirako bat dela esango nuke.

**Orduan, zure ibilbidearen bila-kaera jasotzen duzu bertan?**

Bai. 6-7 urte nituenean egindako marrazki batetik hasita fakultate garaira egiten dut salto; orduan, esperimentazio garaia bizi izan nuen, eta hori islatzen da. Eta karrera amaituta, gaur arteko zenbait lan biltzen dira. Gutxi gorabehera, 35 lan aukeratu ditut. Guztiak ez dira koadroak izango: tinta txinatarrez eta akuarelaz egindako lanak daude, baita argazki batzuk ere...

**Gazte-gaztetatik erakarri zaitu alor honek.**

Egia esateko, ez dut nire bizitza pintura gabe gogoratzen. Etxera fakturak iristen zire-

nean, barrukoa atera eta gutun-azalak margotzen nituen txikitant! Afizio bat baino gehiago da, daukadan behar bat.

**Eta ogibidea.**

Bai. Kultura etxeko pintura irakaslea naiz. Haurrei, gazteei eta helduei irakasten diet. Izan ere, nire filosofia pinturaren bitartez ongi pasatzen irakastea da. Pinturak ez du beste ekintzekin zerikusirik, zabalagoa da eta askotariko emaitzak ditu. Oso gauza subjektiboa da eta gauza positiboak ematen ditu: autoestimua erantzako ona da, psikomotrizitatea lantzen da eta frustrazioa ezabatu... Eta hori guztiori erlaxatuta egonez gero lortzen da; zure buruarekin erlazio berezia sortzen da orduan, eta disfrutatzen ikasten duzu. Oro har, emaitza aitzakia bat da, ongi pasatzea eta une berezia bizi izatea baita helburua.

**"Ongi sentitzeko eta frustrazioa kentzeko balio du margotzeak"**

**Mobiliario**  
**ARENAZA**

**ALTZARIAK**  
**DISEINUA**  
**APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

**zenbaki**  
aholkulariak-abokatuak

### • Juridikoa:

- Zibila: banantzeak, herentziak, edozein motatako erreklamazioak.  
- Penala: hutsegite epailetak, salaketak, zirkulazio istripuak.  
- Administratiboa: zigortzaile txostenak, errekursoak.  
- Merkataritzakoa: sozietateen eratzeak, ordaingabeak, hartzekodun konkursoa.

• **Laborala:** erretiroak, kaleratzeak, enplegu-erregulazioko espedienteak.  
• **Fiskala:** enpresen balorazioak, bideragarritasun-txostenak, likidazioen elaborazioa.  
• **Kontabilitatea:** pertsona fisiko eta juridikoak.

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA • Tel.: 943 71 21 12  
[www.zenbaki.es](http://www.zenbaki.es)



# Gimnasioak lau ikastaro berri emango ditu udan

Ohiko saioek osatuko dute ikastaroen eskaintza eta gaur izango da izena emateko azken eguna

IURE EIZAGIRRE | ANTZUOLA

Udak askorako denbora ematen du eta ohikoenak kalean egiteko ekintzak badira ere, batzuek ez diote uko egiten gimnasia joan eta urte osoko kirol jarduerarekin jarraitzeari. Hori kontuan hartuta, uztaileko eskaintza berria prestatu du udal gimnasioak: osasunarekin eta fitnessarekin zuzenean lotutako bi eta programa bereziaren barruan sartutako beste bi.

Astelehenean hasiko dira gimnasia abdominal hipopresibo eta tonifikazio ikastaroak. Biak astelehen eta asteazkenetan eskainiko dituzte. Gimnasiako ikastaroren bi saio izango dira, bat goizean, 10:15ean, eta bestea arratsaldean, 19:30ean. Ikastaroetan parte hartzen dutenek doan egin ahal izango dute tonifikazio ikastaroa.

Azken boladan hainbeste lekutan ikusten den eta gimnasia eta dantza batzen dituen zumba praktikatzeko aukera ere izango da



Udal gimnasioko kideak, spinningeko klase batean. | GOIENA

uztailean udal gimnasioan. Astearte eta ostegunetan izango dira klaseak eta gazteendako eta helduendako saioak eskainiko dira. 15 urtetik beherakoen ikastaroa izango da lehenengo, 16:30ean, eta helduagoena gero, 17:30ean.

Baina eskaintza guztia ez da indibiduala izango, udan familian egoteko denbora ohikoa baino gehiago izaten baita. Horretarako patinaje ikastaroa programatu dute gimnasioan. Gurasoek eta umeez batera hartu ahal izango dute parte astearte eta ostegunetan 19:00etan eskainiko duten saioan. Helduek euren kabuz ikasteko, berriz, hastapen ikastaroak egingo dituzte egun berean, 20:00etatik aurrera.

Ikastaro berri horiez gain, urte osoan ematen dituen ikastaroak eskainiko ditu gimnasioak; hau da, pilates, spinning eta hiru garren adinekoen gimnasia saioak.

## Gaur bukatuko da izen-ematea

Datorren astelehenean hasiko dira ikastaroak, eta, ondorioz, gaur izango da horietan izena emateko azken eguna. Matrikula gimnasioan bertan, 943 76 66 61 telefono zenbakira deituta edo [antzuolakogimnasioa@gmail.com](mailto:antzuolakogimnasioa@gmail.com) helbide elektronikora idatzita egin daiteke.

Hilabeteko ikastaroak izango dira eta, normalean, hamar eta hamabost pertsona arteko taldeak osatzen dituzte. Uda honetan badago, beraz, ekintza eta kirol berriak probatzeko aukerarik.

## San Martzial jaiak ospatuko dituzte Lizarragan

I.E. | ANTZUOLA

Herriko jai nagusiak heldu bitartean, auzoetan ez dago aspertzeko aukerarik azken asteotan. Asteburu honetan San Martzial jaiak ospatuko dituzte Lizarraga auzoan.

Bihar, 10:00etan botako dute hasierako etxafuegoa. 16:30ean izango da herri mailako plater tiroketa, baina goizean probak egin ahal izango dituzte parte-hartzaileek. Umeendako ohe elastikoak eta gaztelu puzgarria egongo dira egun osoan zelaian. 18:30ean txokolate-jana egingo dute eta trikitilariak alaituko dute afari aurreko giroa. Su artifizialak eta izozkia egongo dira afalostean, baita erromeria ere, Elustondo anai-arebekin.

Domekan, txistularien ostean, bizikleta challengeko azken proba jokatu dute eta ondoren meza izango da herriko abesbatzarekin. Oinarinen dantza emanaldira sabela ondo beteta helduko dira herriarrak. Erromeria eta ahari jokoa izango dira arratsaldean, eta 21:00etan amaituko dira jaiak.

## Arrola Mendi Taldea asteburu-pasa doa uztailean Pirinioetara

Arrola Mendi Taldeak Pirinioetara irteera antolatu du uztailearen 13rako eta 14rako. Zapatuan bost ordu inguruko ibilaldia egingo dute Ordesan, Gorizko aterperaino igota. Domekan, berriz, Goriztik Gavarniera joango dira. Izena astelehenean eman beharko da, 19:00etatik 19:30era, Olanen edo helbide honetan: [arrolamtb@gmail.com](mailto:arrolamtb@gmail.com). Mendi aseguruak Fedmerekien dutenek 60 euro ordainduko dituzte eta ez dutenek, 70 euro; gazteek, aldiz, 35 edo 40 euro.

## Gaztetxeko herriko bideo zaharren emanaldiak, amaituta

Antzuolako Gaztetxeak herriko bideo zaharren azken emanaldia egin zuen bart. Ekainean, eguenero, bertan biltzen diren gazteek txikiak zireneko irudiak erakutsi dituzte, herriaren orduko izaera lagun artean gogoratzeko asmoz. Hileroko ekintzen barruan egin dituzte emanaldiak. Bestalde, Gaztetxeak eta Ez Dot Moztuko Bizarra elkarteak gaur egingo den euskal presoen aldeko elkarretaratzeko dei egin dute. 19:00etan izango da, Zurrategi plazan.

## Zikinkeria eta apurketen harira, nolako herria nahi dugun galdetu du Udalak

Azkenaldian agertu diren zikinkeria eta apurketekin kezkatuta daude

I.E. | ANTZUOLA

Azkenaldian kalean botatako zikinkeria gero eta ohikoagoa delako eta hiri-altzarien apurketa dela-eta kezkatuta dago Udala. Horregatik, ondoko ohar hau helarazi dio GOIENARI: "Herria denok gara, denona da. Horrelako Antzuola nahi dugu? Gero eta sarriago lagatzen ditugu herriko hainbat txoko argazkietan ikus daitekeen bezala. Nabarmenena, Ibarrodo. Apurketei dagokionez, berriz, eskolako patioan 2011n ipini zirenean 168 jarleku zeuden eta gaur egun, erabilera okerraren ondorioz, 21 gutxiago ditugu".

### Jatekoen zorroak

Argazkietan ikusten denez, plastikozko zorro eta ontziak eta latak agertzen dira kalean botata, baita zenbait poltsatuko soberakinak ere. Frontoian pipa-azalak eta zenbait gozoki ere agertu izan dira. Beheko argazkian ageri denez, etxez etxe banatzen diren papezko iragarkiak ere heldu dira eskolako patioan. Han bertan daude puskatutako jarlekuak, baita erretako zenbait ere, horrek eragiten duen zikinkeriarekin.

Egoeraz ohartarazi nahi ditu Udalak antzuolarrak.



Latak eta jatekoen zorroak, Ibarrodo kalean. | ANTZUOLAKO UDALA



Apurketak, eskolako patioan. | ANTZUOLAKO UDALA

## Antzuola Kirol Elkartearen batzarra, uztailean

I.E. | ANTZUOLA

Antzuola Kirol Elkarteak uztailearen 12an egingo du urteko batzar orokorra. 18:30ean izango da lehen deialdia eta 19:00etan bigarrena.

Futbol taldetik jakinarazi dutenez, 2013-2014 denboraldiari begira aldaketak izango dira aurrekontuan eta erabaki garrantzitsuak hartuko dituzte batzarrean. Horregatik, bilerara joateko dei egin diete bazkideei, erabakiak ahalik eta adostasun handienarekin hartzeko.

Antzuolako talde nagusiak Ohorezko Erregionaleko lehen mailan jokatu dute datorren denboraldian eta horrek gastu gehiago eragingo ditu, bidaietan eta epaileen tarifeetan, adibidez. Gainera, klubak beste bi talde sortu nahi ditu: gazte mailakoa eta infantil mailako neskena. Ondorioz, fitxetan ere dezente igoera aurreikusten dute.

Bestalde, aurrean ez dago batzordean sartzeko kide berririk eta zaharrak geratzera derrigortuta daude. Horretaz ere egingo dute berba.



Debagoieneko Kaleratzeak Stop plataformako kide bat Aramaioko udalbatzaren atxikimendua jasotzen. | JOKIN BEREZIARTUA

# Etxe kaleratzeak ekiditeko indarrak batu ditu Udalak

Bilduk, Aramaioko Alkartasunak eta EAJk aho batez onartu zuten HMEI indizea ordezkatzeko eskaera

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Aramaioko udalbatzak Debagoieneko Kaleratzeak Stop plataformako kideen bisita izan zuen eguazteneko osoko bilkuran. Plataformako kideek HMEI indizea ordezkatzua izateko eskatu zuten udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Hipoteka-mailegu baten interesak kalkulatzeko erabiltzen den indizeetako bat da HMEI, eta

iazko apirilaren 28ra arte erabil zitekeen. Egun hori pasa ostean banku zerbitzuek etorkizunean erabil zezaketen indizeak jakinarazi zituzten, baina HMEIren kasuan ez zen hala izan. Mailegu asko HMEIren arabera eginda daude eta horietarako bi aukera daude: maileguak berak alternatiba bat izatea kontratuan –hori da Kutxabanken kasua; horietan

ESANAK

"HMEI indizeak familia askori dakarkio zulora erortzea"

SALVA GONZALEZ | KALERATZEAK STOP

Euriborra gehi bat erabiltzeko alternatiba dago. Beste erakunde batzuetan, berriz, maileguen kontratuan ez zen alternatibarik zehaztu eta horietarako Espainiako Gobernuak esan behar du indize berria zein izango den.

"300 edo 400 euro gehiago"

Kaleratzeak Stop plataformako kideek salatu dute balio berria ez dela argitaratu: "PPko Gobernuak ez du ordezkorik proposatu eta horregatik ezin da HMEI indizea desagerrarazi. Legea betetzeko eskatzen diogu Gobernuari, iazko apirilean egin behar zuen-eta". Errealitatea da, azaldu zuten bezala, Euriborra gehi 1 indizearen interesa %1,5era ez dela iristen eta, aldiz, HMEI indizeak %4,1eko interesa duela: "Etengabe igotzen doa eta horrek edozein familiari ordaintzea ez dagokion 300 eta 400 euro gehiago ordaindu beharra dakarkio hilerro. Hala, HMEI indizeak familia askori dakarkio hipoteka ordaindu ahal izatea edo ez; hau da, zulora erortzea edo ez", esan zuen Salva Gonzalez plataformako kidea. Era berean, salatu zuten Espainiako Gobernuak erakundeak lehenetsi dituela familien gainetik: "Ez da ahaztu direlako izan, hausnarketa eta interesen azterketa baten ondorioz hartutako erabakia izan da. Hala, erakundeendako onuragarria den eta familiendako erabat kaltegarria den egoera mantentzea aukera dute". Udalbatzak aho batez onartu zuen proposamena; deitzaileek biziki eskertu zuten Udalaren babesa.

Kutxabanki ere eskatu zioten HMEIren berehalako ordezkape-na eskatzea: "Horretarako ez du behin-behineko erregimenaren ezartzea gauzatu arte itxaron behar, horren edukia garrantzirik gabekoa da-eta".

## Eguzki taldeko kideek botako dute jaietako txupinazoa

Gainean ditugu dagoeneko San Martin jaiak, astebete eskas falta da festa giroak herriko kaleak har ditzan. Jaiak datorren egubakoitzean hasi eta astelehenean amaituko dira, uztailaren 5etik 8ra. Hasiera ofiziala 19:00etan izango da; Eguzki erromeria talde mitikoko kideak izango dira txupinazoa bota eta pregoia irakurtzearen arduradunak. Nicolas Gardoki soinu jole nekazainak eta haren iloba diren Joxe eta Felix Gardoki igoko dira udaletxeko balkoira. Antolatzaileek aurreratu dutenez, taldeak ezagun egin dituen kantuak entzun ahal izango dira.

## Zaintzaile, begirale eta entrenatzaile bila dabil Zuiako Koadrila

Zuiako Koadrilako euskara zerbitzua, urte hasieran euskara planerako hitzartutako helburuetako bati eutsiz, aisialdiko begirale, ume-zaintzaile eta kirol-entrenatzaile euskaldunen zerrenda osatu guran dabil. Helburua da euskararen erabilera handitzea eta eskualdeko herritarrei, batez ere gazteei, lan egiteko aukerak erraztea. Eskualdeko edozein udalerritan bizi direnek eta euskara tituluren bat dutenek –berdin da zein mailakoa izan– eman ahal izango dute izena. Zuiako Koadrilak ez du inor kontratatuko, bitartekari lanak egingo ditu. Harremanetarako: 945 43 01 67 (Manex Agirre).

## Euriak eta elurrak sortutako kalteak arintzen

Kaltetuei udal bideak erabiltzeagatik ezarrita dagoen tasa ez aplikatzea onartu zen osokoan

J.B. | ARAMAIO

Aurtengo eurite eta elurteen ondorioz Aramaioko hainbat egur esplotaziotan kalte handiak izan dira. Hazten zeuden zuhaitz asko apurtu ziren eta derrigorrez basoetatik atera behar izan zituzten, eta lurjabeen inbertsioak kaltetu.

Kalte horiek kuantifikatzeko lurjabeen zerrenda bat prestatu du Udalak kalteak jasan dituzten jabeak zeintzuk diren zehazteko. Udalak, eskura dituen baliabideak aztertuta, egoki ikusi du landa-bide eta auzo-bideetan ibilgailu astunen erabileraren eta landa-bideen zabaltzearen gaineko Ordenantza Erregulatuarekin udal bideak erabiltzeagatik ezarrita dagoen tasa ez aplikatzea. Helburua da lurjabeek jasandako kalteak arintzea.

Bost alde eta bat kontra

Hala ere, ordenantza aldatzeko beharrezko epea luzeegia denez, eta jasandako kalteen larritasuna kontuan hartuta, berehalako neurriak hartu behar direla ondorioztatu du Udalak. Hala, Ramon Ajuria alkateak 0,39 euroko tasa ez aplikatzea proposatu zion udalbatzari eguazteneko osoko bilkuran. Gaia landu ahal izateko bozkatu egin behar izan zuten eta gaia lantzea bera aho batez onartu zen. Bozkatzeko orduan, Bildu eta Aramaioko Alkartasuna taldeek neurria begi onez ikusi zuten –aldeko bost boto–, baina EAJko Iñaki Nafarratek kontra bozkatu zuen. Neurriarekin ados egon edo ez, Mendietako batzordean gaia landu ez izana salatu zuen zinegotzi jeltzaleak.



Papargorri abesbatzaren talde argazkia kultur etxean, iaz egindako kontzertuaren ostean. | BLANCA MENDIALDUA

## Papargorriren kontzertua gaur kultur etxean (20:00)

San Martin jaietako egitarauan sartu dute haur eta gaztetxoek ikasturte amaierako kontzertua

J.B. | ARAMAIO

Papargorri abesbatzako kideek ikasturtean zehar ikasitakoa herri osoari erakusteko kontzertua eskainiko dute gaur kultur etxean, 20:00etan. San Martin jaietako egitarauaren barruan sartu dute

eta Blanca Mendialdua ardura-dunak azaldu digu zergatik egingo duten gaur: "Uztailan haur eta gaztetxo batzuk kanpora joango dira, eta, ahalik eta kide gehien egoteko, ekainera aurreratu dugu". Hasieran, gazteenek abestuko

dute, Eli Izagirre eta Larraitz Arriolabengoa zuzendarien aginduetara; Mixel Ducauren *Kolore kolore* eta Sorotan Bele taldearen *Arratsalde honetan* abestuko dute, besteak beste. Gero, helduagoen txanda izango da. Gurutze Uriarren piano jolearen eta Arantza Uriarte zuzendariaren laguntza hainbat kantu abestuko dituzte: Itziar Orejaren *Iluntzean*, Harold Arlenen *Somewhere over the rainbow* eta *Grease* filmak ospetsu egin zuen John Farrar musikariaren *You're the one that I want*, besteak beste.

## ELGETA

# Protagonistak, gaur, umeak, erretiratuak eta musika

Biharko Herri Egunerako 600 lagunendako paella prestatuko dute plazan

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Mozorro gauaren ostean umeak eta erretiratuak izango dira gaur, barikua, protagonista nagusiak. Umeendako jolasparkea 11:00etan zabalduko dute Salbador kalean, eta etxeko txikiak egun osoa izango dute gozatzeko. Hiru puzgarri, zezen mekanikoa eta *super jumping* deritzona izango dituzte 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.

Gorabehera askoren ostean, umeen bazkaria ere izango da aurten. 14:00etan egingo dute, herriko plazan.

## Erretiratuak

Herriko nagusiendako ere egun garrantzitsua izango da gaurkoa. Meza entzungo dute parrokiaren, 14:00etan hasita. Jarraian, urteroko argazkia aterako dute, eta Espaloia kafe antzokian egingo dute bazkaria. Bazkalosteko dan-



Paella plazan, iaz. | J. ARANTZABAL

tzaldia, aurten, Jose Gardokirekin egingo dute.

## Vendetta gaur plazan

Musikak ere protagonismo berezia hartuko du hurrengo egunotan. Gaur, Vendetta eta Gora Herria izango dira plazan, 23:00etan hasita. Bihar, berriz, klasiko bat Elgetan: Egan taldea.

## Musika barra-barra

Herri Egunean ere musikak pisu handia izango du Elgetako jaietan. Bazkalostean, Jainaga eta Narbaiza trikitilariak egingo dute plazako erromeria.

Gazteen lokalean ere kontzertua iragarri dute 18:00etarako. Taldeak izango dira Brutal Calling, Kruders eta Zantarrak. Sarrera hiru euro da.

Iluntzean, Egan taldea izango da herriko plazan erromeria egiten, eta gauerdian, gaztetxean Descantilleos eta Margot taldeak.

## Bost hezitzaileekin, astelehenean zabalduko dute udaleku zerbitzua

L.Z. | ELGETA

Jaien biharamunean, astelehenean, zabalduko ditu ateak uztaileko udaleku zerbitzuak. Uztailearen 1etik 24ra izango da zerbitzua aste barruko egunetan, 09:00etatik 13:00etara. Udaleku irekia izango da. Udaletik aditzaera eman dutenez, 55 neska-

mutiko daude izena emanda, guztiak Haur Hezkuntzakoak eta Lehen Hezkuntzakoak.

Aurrekoetan moduan, adinka antolatuko dituzte taldeak. Astelehenean, 09:00etatik aurrera elkartzeko dira neska-mutiko eta hezitzaile guztiak Torrealdeako udal ludotekan.

## Bost hezitzaile

Inoiz baino lagun gehiago aurkeztu da aurten udaleku irekitako hezitzaile edo begirale lanpostuak betetzeko; 63 lagunek eman zuten izena lanposturako eta 38k egin zuten azterketa ekainaren 17an. Azkenean, bost elgetar izan dira hautatuak, aurretik ere Elgetako udalekuan begirale lanetan ibilitakoak: Kepa de Vega, Nerea Iturricastillo, Nerea Villa, Etor Garate eta Adrian Gorostiza.

## Astelehenean ipiniko dute martxan Bergara-Elgeta taxi-bus zerbitzu berezia

L.Z. | ELGETA

Hamabost lagun elkartu ziren astelehenean Bergara-Elgeta taxi-bus zerbitzu berriaren inguruko informazio batzarrean. Oxel Erostarbe alkateak azaldu zuen aste tarteko egunetan bost garraio zerbitzu berri izango ditugula Bergara eta Elgeta artean: hiru finakoak eta bi eskarripekoak. Eskarripekoetarako 943 00 01 17 telefono zenbakira deitu behar da zerbitzua behar den egunaren bezperako 18:00ak baino lehen. Mugi edo Lurral-

debus txartelak derrigorrezkoak izango dira. Hilaren 15era arteko epea zabaldu dute orain herritarren ekarpenak jasotzeko. Bileran bi eskaera jaso ziren: Agorrosinen eta Labegaraitan geralekuak ipintzeko eta 11:30eko zerbitzua ez kentzeko.

## Eibar-Elgeta zerbitzua

Eibar-Elgeta taxi-bus zerbitzuak erabiltzaile kopuru polita du. Erostarbek esan zuen urtarrietik maiatzera bitartean 2.592 bidaia egin direla bertan.

## Udako ordutegia izango du uztailean Elgetako udal liburutegiak; abuztuan itxita egongo da

Herritarrendako egokiagoa izango delakoan udarako ordutegi aldaketa proposatu dute udal liburutegitik. Martitzenetan eta egunetan neguko ordutegia mantenduko dute; 16:30etik 19:00etara, alegia. Ordutegi aldaketa astelehenean, eguaztenetan eta barikutan emango da. Egun horietan, Geaxi Ezpeletak 14:00etatik 16:30era zabalduko du zerbitzua. Abuztuan liburutegia itxita egongo da. Informazio gehiagorako kontsultatu liburutegiko bloga: <http://liburutegiak.blog.euskadi.net/elgeta/>.

## V. FRONTENIS TXAPELKETA

### Jaietan ez da partidurik jokatu

Fronteniskoek atsedean hartuko dute jaietan. "Ez genuke pilota ikusi ere egingo", entzun diogu antolatzaileetako bati. Jaien ostean ekingo diote, berriz, txapelketari.

#### AZKEN EMAITZAK

Adrian Gorostiza-Asier Osoro / Jon Ugarteburu-Josu Mañarikua	25-21
Andoni Elortza-Mikel Beretxinaga / Mikel Zubiaurre-Aitor Errarte	25-07
Oskar Sarasua-Xanti Dosuna / Julen Barrutia-Imanol Albizu	25-21
Odei Zenitagoia-Fernando Zenitagoia / Etor Vallo-Ander Gorosabel	25-06

## LEINTZ GATZAGA

Imanol Saez de Biteri | Mendi zinegotzia

## "Gatzagarendako garrantzitsua da ehiza larria egitea"

- Duela urte asko ez da ehiza larririk egiten herrian
- Basurdeek kalteak eragin dituzte zelaietan

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Gatzagak aurten diru-iturri garrantzitsua eskura dezake ehizaren kontura. Udalbatzaren azkeneko bileran aho batez onartu zuten udalerriko ehiza barrutia lehia-terara ateratzea, 51.300 eurotan. Burokraziak agintzen dituen pleguak prestatzea besterik ez da falta. Mendi zinegotzi Imanol Saez de Biterirengana joan gara, xehe-tasun bila.

**Lehiaketa-enkantearen data zehaztuta dago?**

Ez, oraindik Diputaziotik bidali behar dute plegu teknikoak. Guk

administratiboa egingo dugu, Udaletik.

**Dena den, asmoa adjudikazioa aurtent egitea da?**

Bai; iaz azkeneko aldiz egin genuen Federazioarekin, eta kontuan hartuta ehiza larraren denboraldia irailean hasiko dela, asmoa da ordurako dena gertu egotea, uztaile tarteko dago... Gero, gainera, usoak eta oilagorak datoz [urrian], eta gero atzera ere ehiza larria egingo litzateke. Izan ere, ehiza larria irailean hasi eta otsailean bukatu arren, hemen nagusia uso-pasea da, eta gure asmoa

da uso sasoian ehiza larria mugatzea, ze, bestela, arazoak sor daitetzeko-eta ehiztarien artean.

**Ehiza larria egin ahal izatea garrantzitsua da, ezta?**

Guretzat bai. Beti egon da beldur handia ehiza larriarekin, zelan egiten den... Urte asko da ez dela hemen halakorik egin. Izan ere, azken urteotan, arazoak egon izan direnean, kalteak... Diputazioak baimena eman du uxaldiak egiteko ehiza babesleku barruan. Baina pentsa, iaz otsailerako zegoen uxaldi bat egiteko asmoa, eta, elurra egin zuenez (ezin da ehiza larririk egin elurrarekin), ez zen egin. Eta azkeneko uxaldia orain dela lau urte egin zen.

**Kalte handiak izan dira?**

Zelaietan-eta. Istripu bat ere gertatu da: errepidean orkatz bat hilda azaldu zen. Eta basurde eta orkatz kopuru handia dugu. Ekos enpresaren plan teknikoaren arabera, ehiza larria egiteko beste.

**Horren arabera, zeintzuk izango dira ehiza larraren ezaugarriak?**

20 basurde eta 20 orkatz ehizatu ahal izango dira.

**Postuen zozketa enkante-lehiaketaren datoren arabera egingo da?**

Bai, lehiaketa irabazten duenak



Imanol Saez de Biteri. | U.M.

## "Ehiza larrian 20 basurde eta 20 orkatz ehizatu ahal izango dira"

erabakiko du zelan egin: egunero, astero edo hilero.

**Garrantzitsua da lehiaketaren prezioa herriko, ezta?**

Bai; orain dela lau urte 31.000 euro ziren (BEZa barne) eta KPI gehitu zitzaion urtez urte. Orain

handitu egiten da, batetik, %21eko BEZa aplikatuko zaiolako kirol jarduera guztiei moduan, eta beste %20 mendian hobekuntzak egiteko. Baina azken kopuru hori Diputaziora doa. Beraz, lehiaketaren kopuruaren 51.300 euroak ez dira netoak guretzeko. Eta prezioa handitu egin dugun arren, 45 postuendako eta basurde eta orkatzak ehizatzeke, gure ustez, prezio ona da. Hala ere, Diputazioak du azken berba.

**Gatzagak ehiza barrutia eta ehiza babeslekuak, biak ditu; zelakoak?**

1.002 hektarea ditu ehiza barrutiak (ehiza larria egiteko 1.000 hektarea behar dira), eta hortik %10 erreserbakoak dira. Babeslekuak, berriz, 300 hektarea pasa ditu. **Zenbat postu daude barrutian?** 45 postu zozketan ateratzeko, 15 herriarendako eta beste bost, aktibatuta daudenak, baina pleguetan sartu ez ditugunak.

**Zer dela eta?**

Hobekuntzak behar dira. Hasieran, aurten ez dira erabiliko.

**Ehiza barrutia legezatu duzue...**

Postuen arteko distantzia (50 metro) errespetatzeko. Zozketako lau postu kendu ditugu lege barruan sartzeko; beste hiru herrikoak.

## Bazkideentzat abantaila eksklusiboak



# Eraman ezazu beti txartela aldean!



### ADI EGON!

Astelehenean, hilaren 1ean, EKAINeko SARI hauen guztien IRABAZLEAK izan diren GOIENA KLUBeko bazkideen izenak emango ditugu aditzera. 300 parte-hartzaile baino gehiago eta honako sariak! Zorte on!

- **Nintendo Wii** kotsola.
- **Arrikutz Kobak** bisitatzeko, 6 sarrera.
- **Baserriko produktuz osotutako 4 otarre**, Debagoieneko Baserri Sareari esker!
- **'Bazen behin... bizitza'** 2 joko ospetsu.
- **'Bértikal'** 5 joko berri gazte zein helduentzako.
- **Liburu sorta**, lpuinez osatutako umeentzako bost liburu sorta bikain.



DESKONTUAK: [www.goienakluba.com](http://www.goienakluba.com)



#### Beste abantaila batzuk:

- Astelehenean eta ostiraletan *Goiena* papera buzoian.
- Deskontuak iragarki saikatuetan eta eskeletan.



**goienakluba**  
Abantailaz betetako klubak!

Urteko kuota: 50 €.  
943 25 05 05  
[kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com)  
[goienakluba.com](http://goienakluba.com)

## TXIRRINDULARITZA

# Irizar: "Andy Schleck izango da liderra, baina Haimarrek ere babesa izango du"

RadioShack-eko ziklistak zail ikusten du taldeak podiuma lortzea, baina protagonista izan nahi dute

XABIER URZELAI | ARRASATE

RadioShack Leopard Trek taldeak Markel Irizarren aldeko apustua egin du ostera Tourreko bederatzikora begira, liderren ondoan lan egiteko, eta Korsikara bidea hartu aurretik Goiena oñatiarrarekin egon da, lasterketaren aurrean dituen sentsazioen gainean galdetzeko.

Hasteko, taldeak orain momentuan duen zalantza handiena liderrari dagokio: "Andy ez dago beste urte batzuetan moduan, baina bere aldeko apustua egin du taldeak. Ikusteko dago ze maila emango duen Tourrean, baina bai, podiumeko postuak garesti egongo dira aurrean".

## Haimar Zubeldia ere lider

Ez da, baina, taldeak izango duen erreferente bakarra, Zubeldia ere ondo zainduko duelako taldeak. Iazko Tourrean 17. etapan gertatutako Oñatikoa kritikoa izan zen, bosgarren postuan zegoen Zubeldiari lider izaera aitortu ez, eta taldekideek -batez ere Kloden-Peyragudes mendatean bakarrik utzi zutelako (3 minutu galdu zituen eta 7. postura egin zuen salto). Oñatiari gertaera hura gogorarazi diogu: "Horrelakorik ezin da errepikatu; gainera, taldean oso giro ona dugu, eta Haimarrek erakutsi du hutsik egiten ez duen txirrindularia dela, oso erregularra dela; aurten ere aurrean ibil daiteke. Ez dakit ni egongo naizen Haimarrendako lanean, baina lagun handia dut, eta gustura beteko nuke jardun



Irizar eta Schleck, Kalifornian. | EMILY MAYE / RADIOSHACKLEOPARDTREK.COM/

hori. Tourrera begira izango dugun beste liderretako bat izango da hura". Hala, Oñatikoak ondo ikusten du Usurbilgoa, nahiz eta iazkoaz alderatuta puntutxo bat falta zaiola aitortu digun: "Iaz sasoi honetan oso-oso indartsu zegoen, baina orain koska bat beherago egotea ondo etorriko zaio, batez ere Tourreko hirugarren astera begira".

Sailkapen orokorretik harago, taldeak urteko lasterketa entsutetsuenean protagonista izan nahi du: "Ihesaldietan sartzen ahaleginduko gara, eta egun batzuetan askatasunez jokatu

ahal izango dugu. Babesle handiak ditugu, baita exigenteak ere, eta taldeak aurpegia eman behar du. Aurten 15 garaipen daramatzagu, klasikoetan garaipen garrantzitsuak lortu zituen taldeak, baina Giroan edo Euskal Herriko Itzulian ez dugu gure maila eman".

## Erlojupeko ona egin nahi

Arlo pertsonalean, Irizarrek berak onartu digu taldekako erlojupeko ona egin nahiko lukeela: "Hori da bederatzikoa egotearen arrazoi nagusia, erlojupekoan egin dezakedan lana. Eta egun horretan lan ona egin nahiko nuke".



Sergio Gartzia, ezkerretik bigarrena, iaz, aurrealdeko taldetxoan. | J.A.

## ATLETISMOA

# Torrauzoko krosa egingo dute domekan Oñatin

Egunean bertan eman ahal izango da herri lasterketan izena, 12 euro ordainduta

X.U. | OÑATI

Domekan egingo dute, Antxintxiketan taldeak antolatuta, Torrauzoko krosa (11:00 San Pedro auzoa, Etxe-Aundi jatetxe parean). Eta antolatzaile lanean dabilen Asier Osinagak aitortu digu atleten egutegian apuntatuta izaten ez duten lasterketa bada ere, azken egunean korrikalari mordoxka animatzen dela: "Egunean bertan jende askok ematen du izena, eta giro polita izaten da. Ez da egutegian gorritz markatuta egoten den

lasterketa bat, baina iaz 120 korrikalari batu ziren, eta espero dugu domekan ere jende asko animatzea".

Torrauzokoa umiltasunez antolatutako lasterketa da, ez du dirutan sari potolorik, baina parte-hartzaileen artean opari mordoa banatzen dituzte, eta gogortasunak ez du inor baztertzeko, gehienek egiteko moduko proba da-eta (7,6 kilometro ditu). Iaz, Sergio Gartzia oñatiarra eta Gurutze Frades izan ziren onenak.

## ARETO FUTBOLA

# Zaldibarko 24 orduko areto futbol txapelketan izena eman daiteke uztailearen 10era arte

Uztailearen 13an hasita jokatu dute Zaldibarren 24 orduko areto futbol txapelketa, eta uztailearen 10a, eguaztena, izango da izena emateko azken eguna. Talde bakoitzak 60 euro ordaindu beharko ditu txapelketan jokatu ahal izateko. [Zaldibarko24orduk@gmail.com](mailto:Zaldibarko24orduk@gmail.com) helbidera idatzita edo 637 38 74 41 zenbakira deituta (Whatsapp bidez eman ahal izango da izena).

## SQUASHA

# Debagoieneko Squash Txapelketa egingo dute uztailearen 6an Musakolako kiroldegian

AKE Squash taldeak antolatuko du Debagoieneko txapelketa, eta uztailearen 1a da, datorren astelehena, izena emateko azken eguna. Partiduak Musakolako kiroldegian jokatu dituzte eta izena emateko 10 euro ordaindu beharko dira. Hala, izena emateko, idatzi [iuribetxeba@akesquash.com](mailto:iuribetxeba@akesquash.com) helbidera edo deitu 656 73 60 17 telefono zenbakira.

## AUTOMOBILISMOA

# Arlabango maldek Euskal Herriko pilotu onenak batuko dituzte datorren asteburuan, uztailearen 6an

Iaz Aitor Arakistain eta David Ardions izan ziren Arlabanen azkarrenak, eta bi horiek dira, hain zuzen, uztailearen 6ko lasterketarako faboritoetako bi, aurten ere sasoiaren daudela erakusten dabilzalako -Udanako igoeran protagonista izan dira bi gizonak-. Lasterketak 3,5 kilometro izango ditu, eta, Gatzaga zaharreko errepidea beharrez, Arlaban igoko dute.

## TXIRRINDULARITZA

# Uztailearen 14an, domekan, egingo dute Antzuola sariaren 68. edizioa, Iñaki Lete memoriala

Antzuolako jaien aitzakian Lehendakari Txapelketako lasterketa izango dugu Debagoienean, urtero antolatzen duten Iñaki Lete memoriala. Lasterketak 130 kilometro izango ditu, eta, edizio gehientsuenean moduan, Deskargak egingo du lehenengo auke-raketa eta Asentzioko maldek erabakiko dituzte zeintzuk dauden garaipenagatik borrokatzeko moduan.

## MENDIA

# Paiju Peak-en hegoaldean ez dago bromarik

Goitik behera datozen izotz blokeak, harriak eta elur-jausiak. Hori da Ifurrategik, Zabaltzak eta Vallejok Paiju Peak igotzeko aukeratu duten bideak gordetzen duena. Karakorumgo mendi eder horren hegoaldean eguzkiak jotzen duen momentutik ez da giro. Eta jabetu dira horretaz, susto bat baino gehiago izan dute-eta.



BASQUE TEAM



Beñat Rezusta atzelari bergararra jokoan, Eibarko Astelena pilotalekuan. Ondoan, Erik Jaka aurrelaria; biek egin zuten debuta profesionaletan, eta maila ona erakutsi zuten. | JOKIN BEREZIARTUA

## PILOTA

# Rezustak, profesionaletan debuta eta lehen garaipena

Aritz Lasarekin batera 22-17 menderatu zituzten Jaka eta Peñagarikano

JOKIN BEREZIARTUA | BERGARA

Beñat Rezusta pilotariak nekez ahaztuko du astelehenean Eibar-ko Astelena pilotalekuan bizi izan zuena: profesional mailan debuta egin, San Juan egunean, eta, non eta esku pilotaren katedrala den Astelena pilotalekuan. Osagai horiek guztiak borobiltzeko, Aritz Lasa aurrelariarekin batera 22-17 menderatu zituzten Peñagarikano eta Jaka.

Bergarako hainbat lagun izan zituen ondoan atzelari bergararrak; lehia amaieran aitortu zigun asko laguntzen duela halako egun baten lagunak ondoan izateak: "Astelehenean kamisetak eta pankartak egiten aritu dira. Asko eskertzen da keinua; halako lagunekin, partidu onak egiten ahalagindu behar...". Partiduan sartzea kostatu egin zitzaioela esan

zigun: "Hasieran pilotetara sartzea kosta zait, baina gero, altuera ona eman didan tarte bat izan dut. Pilotak gozatzea kosta zait orokorrean, baina lehen partidua izateko ez dago gaizki, hobetzen saiatuko naiz". Egundin ezin hobea aukeratu zuen Aspe enpresak Rezustaren debutaren data, bizi osorako geratzen den egun hori, zehazteko: "San Juan eguna da, egun handia Eibarren".

## 20 urteko pilotari heldua

Mutil serioa da Rezusta, eta, 20 urte eskas izateko, oso heldua. Kantxan ere hori erakutsi zuen; behin partiduan sartuta, ez zirudien hasiberria zenik.

Pilotari profesionalekin gutxi entrenatu da oraindik, baina horrek ez du askorik kezkatzen: "Maila berrira egokitzea kostako



Beñat Rezusta animatzera joandako Bergarako lagun koadrila Astelena. | J.B.

zait, baina normala da, eta entrenamenduak eta partidua jokatzeko joan ahala ohitzen joango naiz". Era berean, hitz ederrak izan zituen ondoan izan zuen bikote-kidearendako: "Oso gustura aritu naiz Aritzekin. Hasieratik egin dit berba pilota bakoitzera nola sartu aholkatzen. Gainera, hainbat pilota txar kendu dizkit eta horrela askoz erosoago jokatzeko da". Erik Jaka pilotari lizartarrak ere debuta egin zuen egun berean; lagun onak dira: "Tanto batzuetara arinegi sartu da, baina normala da. Urduritasuna igarri egiten da, gauzak ondo egiten dakizula erakutsi gura duzu eta horrek hainbat akats eragiten ditu. Gaur [astelehenean] jokatu duena baino gehiago jokatzeko duela uste dut".

Amaitzeko, buruz buruko finalaren atarian Martinez de Irujok pilota biziegiak aukeratu zituela eta izandako polemikaren gainean ere galdetu genion Bergarako pilotariari: "Enpresek aukeratzen dituzte pilotak, eta, beraz, pilotaria libre da horietako edozein aukeratzeko".

## Bi urterako kontratua

Aspek bi urterako kontratua egin dio Rezustari eta haren helburua da bi urte horiek ondo aprobetxatzea. "Ahalik eta mailarik onena" ematea da haren asmoa.

## ESANAK

"Lehen partidua izateko ez dago gaizki, hobetzen saiatuko naiz"

"Egokitzea kostako zait, baina normala da; joango naiz ohitzen"

BEÑAT REZUSTA | ASPEKO PILOTARIA

REYES AZKOITIA | BERGARAKO PILOTA TALDEA

"Ez naiz sekula horren urduri egon"

Astelehenean Bergarako pilotarendako "oso egun polita" izan zela aitortu zigun hainbat urtez Rezustaren entrenatzailea izan denak.

## Nola ikusi duzu Beñat?

Hasieran urduri zegoela iruditu zait. Ez da harrizkoa, ni neu ere ez naiz sekula horren urduri egon. Hala ere, profesionaletan partidu baten presioa ondo jasaten jakin du. Horrez gain, Lasak asko lagun-



J.B.

du dio. Oso garrantzitsua da debuta egiten duen pilotari batendako laguntza hori, batez ere hasierako tantoetan.

## Egun handia Beñatendako, baina baita zuretako, ezta?

Bai, baita Bergarako pilota taldeko zuzendaritzako kide guztiondako eta pilota eskolako pilotariendako ere. Oso egun polita izan da eta emaitzak lagundu egin du, gainera.



XABIER ETXANIZ  
BERGARAKO ZALEA

"Beñat animatzera etorri gure babesa izan dezan. Urduri hasi du partidua, baina gero oso ondo ikusi dut. Aitarekin eta osabarekin etorri naiz autoan eta ederra izan da Bergarako zenbat jende elkartu garen ikustea. Animorik ez zaio falta izan".



MIKEL GALLASTEGI  
BERGARAKO PILOTARIA

"Beñat hemen ikustea sekulako poza da. Hasieran kosta zaio, baina Aritzekin laguntzaz ondo aritu da. Profesionaletan egotea merezi du; burua oso ondo jarrita duen pilotari handia da eta pertsona ona. Gu hura baino urduiago egon gara, ziur".

# Kalea agertoki bihurtuta, eskaintza aberatsa gurean

- ▶ Antzerkia, zinema, dantza eta musika emanaldiak
- ▶ Atzerriko eta bertako artistak gonbidatu dituzte

**A. ARANBURUZABALA | ARRASATE**  
Udan sartuta, kultura eskaintza kalera ateratzeko joera izaten da, eta horrela izango da Debagoienean ere. Izen propioa duten programazioan bilduta herri batzuetan eta ekitaldi solte moduan beste batzuetan, antzerkia, zinema, dantza eta musika emanaldiak izango dira gurean aste honetan hasi eta iraila bitartean, kaleak, plazak eta parkeak agertoki bihurtuta.

Debagoieneko aukerak jasotzeko helburuarekin, herriz herri egingo dugu osteratxo; hona hemen aurrerapena.

**Arrasaten, musika eta dantza**  
Gaur, egubakoitza, ekingo diote Arrasaten *Udazabal* programari. Ohiturari jarraituz, Arrasate Musikaleko Big Band-ek zabalduko du egitaraua, Monterron parkean (22:30) egingo duen emanaldiarekin. Askotariko musika estiloek osatuko dute, baina, *Udazabal*-eko musika eskaintza: Kubako doinuak ekarriko ditu Nabori taldeak; Igelaren Banda talde berrituak euskal musika tradizionalen oinarritutako emanaldia egingo du eta musika anglosaxoia gozatuko dugu, berriz, La Maravillosa Orquesta del Alcohol taldearekin.

Egubakoitzetako Monterron parkeko zinema emanaldiez gainera, izango da parkean dantzaz gozatzeko aukerarik ere, aurten ere ez du eta hutsik egingo Nazioarteko Folklore Jaialdiak. Horrez gainera, Ertza laukoteak *4x4* kaleko dantza ikuskizuna (break dance...) egingo du Seber Altube plazan.

Antzerkizaleentzako ere badira hainbat aukera: uztailearen 5ean Kolektibo Monstrenko taldeak umore absurdoa eta ukitu beltza duen *Entre lombrices* ikuskizuna egingo du Herriko Plazan; eta 70eko hamarkadarainoko bidaia proposatuko digu Gaupasa Producciones taldeak, *Typical* lanarekin, uztailearen 12an, Seber Altube plazan.

**Bergaran, 'Berumuga' jaialdia**  
Hamahirugarren edizioa du aurten, musika beltza oinarri hartuta, Espoioan uztaileko egubakoitzetan izaten den *Berumuga* jaialdiak; aurtengoa herriko Belceblues taldeak zabalduko du.

AEBetan, Menphisen, egiten duten munduko blues lehiaketan izan ziren bergararrak otsailean eta bidaia hartan bizi izandakoak jaso dituzte *Road to Memphis* dokumentalean. Espoioiko agertokian aurkeztuko dute, bada, uztailearen 5ean, DVDa, eta kontzertuarekin borobilduko dute emanaldia. Hurrengo egubakoitzetan, berriz, honako taldeak igoko dira agertoki kuttunera, 22:00etan, hurrenez hurren: The Lucilles (Madril-Mexiko), Edu Manzanos Project (Madril-Frantzia) eta Beatnblow (Alemania). Abuztuaren 7an, berriz, Kirkit Ensemble euskal taldeak borobilduko du *Berumuga*. Abuztuaren herriko parkeetan beste bi kontzertu lotzeko asmoa azaldu dute Kultura Sailetik.

Antzerkirako aukera bikoitza izango da uztailearen 19an: Muni-be plazan *Pon ta Pa* kale-antzerkia egingo du Bapatean Zirko taldeak goizean, eta *Gezurtiak* lana ekarriko du iluntzean Trapu Zaharrak taldeak. Horrez gainera, aurten lehenengoz lotu

dute magia saioa: abuztuaren 21ean Txan Magoa igoko da Irala kaleko agertokira, *Txantxetan* ikuskizunarekin.

Iaz ez bezala, aurten pantaila handia aterako dute kalera, abuztuko martitzenetan San Martin plaza aterperik gabeko zinema areto bihurtuta. Lau film erakutsiko dituzte: bi gaztelera eta beste bi euskaraz.

Dantzazaleentzako ere badute zer eskaini: Argentinako euskal etxeko dantzariak izango dira uztailearen 25ean eta Turkiakoak, berriz, hurrengo eguneko folklore jaialdian.

**Oñatin, Hegoafrika gertutik**  
Uztailearen 19an abiaraziko dute Oñatin *Kalean* programa, Toochwood taldearekin. Aurreko edizioetako filosofia berarekin jarraituz, musika eta antzerki emanaldiak batu dituzte, gehienbat; aurten, baina, ez da txinatarren zirkurik izango.

Hegoafrikako Toochwood eta BCUC taldeak gonbidatu dituzte oraingoan Oñatira, *Vis a vis* lehiaketa irabazita Europako hainbat herrialdetan egiten ari diren bira aprobetxatuta. Herrialde beretik datozen arren, musika estilori begiratuta apenas dute antzekotasunik. Biolinak, ukelelea, txeloa, gitarra, marimbak eta bateria erabilia, gipsy-afro-folk estiloko musika egiten du Lurmutur Hiriko Toochwood taldeak. Sowetoko BCUC taldeak, berriz, euren arbasoen musika hip-hoparekin ederto ezkonduko emanaldia ekarriko du Ona tabernaren aurreko agertokira.

Herriko musikariei ere lekua egin diete aurten ere; Eco de Bul eta Bagauda taldeak gonbidatu dituzte abuztuaren 30erako Atzeko kaleko agertokira. Kontzertu horretako karteleko izarra, baina, ibilbide luzea duen eta rock gogorra ikur duen Leize taldea izango da; Andoni Regueiro oñatiarra da, egun, taldeko bateria jolea.

Antzerkia da *Kalean* programaren beste adar nagusia. Eskojokoak, sua eta beste hainbat osagai batzen dituen Teatrakalalle taldeak zabalduko du aurtengo zikloa. Emanaldi bikoitza egingo du uztailearen 19an: kalejiran egingo dute lehenengoa eta Herriko Plazan gauean ikuskizun nagusia. Bergarako Iñaki



Deabru Beltzak taldearen *Les Tambours de feu* ikuskizuneko une bat. | DEABRU BELTZAK



Oñatin izango da, uztailearen 24n, Sowetoko BCUC taldea. | BCUC



4x4 ikuskizuna egingo du Ertza taldeak Arrasaten uztailearen 19an. | ERTZA



Bergarako Belceblues taldeak *Road To Memphis* DVDa egin du, otsailean Memphiseran egin

## ESANAK

**"47.549 euroko aurrekontua du gaur hasiko den 'Udazabal' programak"**

KARMELO ALBERDI | ARRASATE

**"Herriarrek ondo erantzun izan diote beti gure 'Kalean' programari"**

JON LOPEZ | OÑATI

**"Berumuga'-k sortzaile berrientzako tranpolina ere izan nahi du"**

MAIDER OSA | BERGARA





Kepa Junkera Eskoriatzan izango da uztailearen 19an. | KEPA JUNKERA

Mataren *Oztopoz* lanak hartuko du uztailearen 24an lekukoa, eta *Kanpanolue* haurrentzako antzerki eta dantza emanaldiarekin amaituko da aurtengo *Kalean*. Aipatutako gainera, abuztuaren 31n surf festa egingo dute.

#### Aretxabaletan, antzerkia

Uztaileko lehen hiru eguztenak kale antzerkiaren gozatzeko egunak izango dira Aretxabaletan. Herriko Plaza eta Durana kalea bihurtuko dituzte, aurtengo ere, *antzoki*; 19:00etan izango dira emanaldi guztiak. Hertz-Muga taldearen *Libertia* lana izango da lehenengo; askatasuna gaitzat hartuta, eta txotxongilo, panpin handi eta hezur-haragizko aktoreekin, familia giroan ikusteko umorezko ikuskizuna da. Deabru Beltzak taldearen *Les tambours de feu* izango da eskainiko duten hurrengo; zuzeneko musika, piroteknia eta efektu bereziki osatutako lan ikusgarria da. Trapu Zaharrak taldearen *Gezurtiak* lanak osatuko du egitaraua.

Aterpean bada ere, zinema eskaintza zabalagoa ere izango da uztailean; eguenetik domekara zabalduko dituzte Zaratza aretoko ateak helduentzako zein haurrentzako filmak erakusteko asmoz. Abuztuan, berriz, Andramaixa jaien aitzakian, batuko dituzte beste hainbat proposamen.

#### Eskoriatzan, Jeka Junkera

Gaur zortzi abiatuko da *Errekan Gora* egitasmoaren seigarren aldia, sei anaiak osatzen duten Travelling Brothers bandarekin. Irailaren 14a bitartean, besteak beste, blues, country, trikiti eta rock doinuek hartuko dituzte herriko txokoak. Maila handiko taldeak izango dira, eta, horien artean, izar nagusia: Kepa Junkera, uztailearen 19an. Santa Marina plazan izango da, Iñigo Olazabal perkusionista eta Jose Luis Canal teklatu-jotzailea oholtza gainean lagun dituela.

Aurtengo berritasuna, baina, Debagoieneko musikariei lekua egin gura izan dietela da: Arrasateko The Potes, Oñatiko Ganbara Abesbatza eta Eñaut Zubizarreta aretxabaletarrak gonbidatu dituzte.

#### Gainerako herrietan, jaiak

Udako sasoiaren aroa, herrietako edo auzoetako jaiak dituzte gainerako herrietan. Atzo hasi zituzten, Elgetan, Ferixa Nagusiko jaiak, eta, besteak beste, gaur, egubakoitza, Vendetta eta Gora Herria taldeen kontzertua izango da, 23:00etan, plazan; eta domekan, Trapu Zaharrak taldearen *Vive soñando* antzerki emanaldia. Aramaion San Martin jaiak ospatuko dituzte datorren asteburuan hasi eta martitzena bitartean. Egubakoitzean, uztailearen 5ean, Betagarri, Zain eta Emon taldeen kontzertua izango da. Antzuolan Lizarraga auzoan San Martzial jaiak ospatuko dituzte asteburuan eta uztailearen 20an: *Gatz Topaketa* egingo dute, besteak beste, Euskal Herriko gatzagak gonbidatuta. Gurel, guraso elkarrekin, bestalde, asmoa du uztaileko gauetan zinema eskaintza kalera ateratzeko.

Gatzagan, baina, ezohiko ekitaldia izango da uztailearen 20an: *Gatz Topaketa* egingo dute, besteak beste, Euskal Herriko gatzagak gonbidatuta. Gurel, guraso elkarrekin, bestalde, asmoa du uztaileko gauetan zinema eskaintza kalera ateratzeko.

# Oñatiko ahotsak Austriako nazioarteko lehiaketara

Munduko abesbatza onenekin lehiatuko dira Ganbara Abesbatzakoak

AITZIBER ARANBURUZABALA | OÑATI  
Austriako Spittal herriko nazioarteko lehiaketan izango da Oñatiko Ganbara Abesbatza uztailearen 5etik 7ra.

50. urteurrena betetzen duen nazioarteko lehiaketan parte hartuko duten herrialdeetako ordezkaritza bat izango da Oñati, Indonesia, Italia, Austria, Polonia, Serbia, Eslovenia, Txekia, Hungaria eta AEBekin batera. Aitor Biain zuzendariak dio prestigio handiko lehiaketa dela eta han sartzeko aurre-aukeraketa gogorra dagoela. "Bideo bat, diskoa eta beste hainbat gauza bidali genituen. Munduan era honetako bospasei nazioarteko lehiaketa besterik ez dago eta horietako bat Spittalekoa

da. Bertara joatea, berez, opari handia da!". Oso maila handia dagoela aitortzen du, baina ilusio handiarekin prestatzen ari dira. Oraingoa hirugarrena izango da txantxiarrentzat; aurrez, Eslovenian eta Tolosan lehiatutakoak dira.

#### Bi atal ditu lehiaketak

Polifonia eta folklorea dira lehiaketaren bi atalak. Lehenengoak bi zati ditu, behartutakoa bat eta askea bestea. Behartutakoa, hiru obra berberak kantatu behar dituzte abesbatza guztiek, kantatzeko oso zailak direla diote. Askean, berriz, bakoitzak aukeratutako beste hiru dituzte. Historian zehar bidaia bat eginen dute Ganbarakoek. Folklorea, oster, nork bere jatorriko kantak abesten ditu; besteak beste, Guridiren pieza bat aukeratu dute.

35 abeslarirekin batera 15 lagun joango dira Oñatitik. Lan eginda, opor txiki batzuk egiteko asmoa ere badute hainbatek, bidaia aprobetxatuta.

DATUA

# 10

ABESBATZA

Lehiatuko dira datorren asteburuan, Austriako nazioarteko lehiaketan.



Ganbara Abesbatzakoek Oñatiko Lazarraga lorategian emanaldia egin zuten egubakoitzean. | AITOR BIAIN

## Amaia antzokia bete egingo dute bihar Leo Harlem eta Sergio Olalla monologistek

Orain artekoen bide beretik doa maiatzaren estreinatutako '¿Qué hay de nuevo?' ikuskizuna

A. A. | ARRASATE

Leo Harlem monologista bihar, zapatua, Amaia antzokian izango da, 20:00etan. Sergio Olallarekin egingo du *¿Qué hay de nuevo?* ikuskizuna.

Sarrera gutxi gelditzen badira ere, salgai daude *Kutxasarrerak.net* atarian, 24 eurotan.

#### Eguneroko gauza txikiak

Aurrekoan GOIENA paperean egindako elkarrizketan Harlemek kontatzen zuen ez zaiola Elizako kontuez ezta krisiaz jardutea gustatzen. Aipatutako gaiak lankide askoren gidietako ardatzak direla zioen arren, Harlemen ustetan, arrikutsuak dira, umorearen aitzakian bada ere, ez

zaio-eta inor mintzea gustatzen. Tipo arrunta eta klasikoa dela zioen eta eguneroko gauzez barre egitea eta barre eragitea nahia- go duela: "Ni neu naiz antzeztan dudana pertsonaia", gaineratu zuen umorista ezagunak.

Gidoia aurrez prestatuta izaten duen arren, ikuslearen erantzunaren arabera, tokian tokira eta unean unera moldatzen ditu esan beharrekoak. Orain arteko bideari jarraituz, Arrasatera ekarriko duen *¿Qué hay de nuevo?* ikuskizuna ere jende arruntarentzako umore saio berria dela dio, inon argitaratu gabeko testuekin osatutakoa.

Sergio Olallarekin etorriko da, nork bere zatia egingo du

eta gero elkarrekin borobilduko dute saioa. Harlemenek gorripatu egin zuen Olallak duen umorea egiteko modua.

#### Publiko euskalduna gustuko

Tolosan izango dira gaur eta orain dela gutxi izan dira Eibarren eta Donostian. Egun Madrilen bizi den Valladolideko umoristak gustuko du Euskal Herria lanera etortzea. Umorea egiteko publiko onenetakoa dela dio, sentitzen duena argi adierazten duena. Barre asko egin eta ondo pasatzera joaten den publikoa dela dio eta aktoreei energia handia ematen diena.

#### Gaztetan, gurean oporretan

Aretxabaletan familia zuen Valladolideko laguna zuen gaztetan, eta harekin hainbat alditan etorri zen Debagoienara oporretan. Azkeneko aldiz orain 16 urte izan zen arren, oroitzapen politak gordetzen ditu. "Ondo ezagutzen dut Leintz bailara. Gustura asko ibiltzen ginen, herrian txikitean, Urkulu inguruan pasean eta Getaria zein Mutrikuko hondartzetan ere bai", dio aktoreak.



zuten bidaia oinarri hartuta. | BELCEBLUES



Hodei Esnaola amasarra, Aretxabeletako campusean. Argazki txikietan, Fermin Muguruzari eta Maite Iturberi egindako elkarrizketetan.

ANDER LARRAÑAGA

Hodei Esnaola | MU telebistako aurkezlea

## "Gazte ekintzaileei bidea ireki eta formatu berriak sortzea irtenbide ona izango litzateke"

**ANDER LARRAÑAGA** | ARETXABALETA  
Hodei Esnaolak (Amasa, 1992) Mondragon Unibertsitatean Ikus-entzunezko Komunikazioa gradua dihardu ikasten, Aretxabeletako Huhezi fakultatean, eta bertan bizi da. Hirugarren ikasturtea amaitu du eta MU telebistako hirugarren denboraldiko aurkezlea izan da. Horregatik, eta Mondragon Unibertsitateko publikitate kanpainako aurpegia izateagatik, ezagun egin da Debagoiengan.

**Azken ikasturte honetan MU telebistako aurpegia izan zara. Nola baloratuko zenuke esperientzia?** Esperientzia positiboa izan da; positiboa bezain gogorra. Egun osoan gogorra da klaseez gain lanera joan behar izatea; hala ere, lana gustukoa denez, atsegi-

na izan da MU telebistan leku bat izatea.

**Aurkezle lan honek ate asko irekiko dizkizu, seguruenik; Debagoiengan jendeak badaki nor zaren. Nolako da zure burua ezaguna izatea?**

Ez dut uste horrenbesteko izan denik. Jendeak ezagutzen banau, neurri batean nire lana ondo bete dudalako izango dela pentsatu nahi dut. [Barrea]. Hala ere, hainbat txokotan ibili gara eta jendeak ondo hartu gaitu beti.

**Kamera aurrean, atzean eta honi bueltaka ibili zara. Zein profiletan kokatuko zenuke zure burua?**

Gaur egungo errealitate komunikatibora egokitzeko, arlo guztietan moldatzeko gai izan behar dugu. Kamerari aspaldi galdu nion beldurra, bai aurrean aritzeko eta baita atzean aritzeko

ere. Etorkizunari begira, ez dakigu non egotea egokituko zaigun; beraz, oraingoan, hobe da gure buruak inon ez kokatzea.

**Zeintzuk izan dira, orain arte, parte hartu duzun edo argia ikusi duten zure lan garrantzitsuenak?**

*Off* ahotsen grabaketan egin ditut lan gehienak: MUREn hainbat gradutako bideo korporatiboen ahotsa izan naiz. Bestalde, Etxeondo bizikleta arroparen bideo korporatiboa zuzentzeko aukera izan nuen, baita Lain taldearen *Utopia* kantuararen bideoak ere.

**Gipuzkoako bihotzean bizi izatetik, Debagoienera. Nolako izan da aldaketa?**

Aldaketa handiena, dudarik gabe, independentzia hori da; amaren ondotik urrundu eta bizimodua ateratzen ikasi beharra. Bestalde,

Debagoiengan hotz handiagoa ere egiten du. Hala ere, hemengo gune politenak Urkuluko urtegia, Udaltax eta Atxorrotz dira.

**Nola ikusten da Debagoiena, eskualde moduan, kanpotik?**

Egia esan, dagoeneko hiru urte igaro dira Debagoiengan bizi naizenetik eta gune industrial egonkorra dela bistakoa da. Parrandak ere badu ospe berezia, baita pintxo-poteoak ere. Inguru geografiko nahiko konplexuan egoteagatik ere ezaguna da.

**Komunikazioaren alorrean, non egon gurako zenuke etorkizun hurbil edo urrunean?**

Egoera kontuan hartuta, zaila egiten zait nire burua inon ikustea. Gradu bat ikasten gabiltza, formakuntza horren alorrean lan egitea da gure helburu nagusia. Etorkizunari begira, komunikatzaile gisa gurako nuke lan egin. Ez, ordea, kamera aurrean bakarrik; izan ere, ehunka modu dau-

de komunikatzeko: film laburren bidez, dokumentalekin, aurkezle modura edota irrati estudio batean.

**Nola definituko zenuke hedabideen panorama gaur egun?**

Medioen egoera nahiko delikatua dela esango nuke. Murrizketek gogor eragin dute edukietan; hedabide lokaletan zer esanik ez... Telebistaren kasuan, asko dira programa berrien aldeko apustua egiten dutenak; ikusleak, aldiz, gehiago jotzen du telebista komertzial estataletara. Inbertsio txikiekin egin daitezke gauza txukunak eta horren aldeko apustua egitea ezinbestekoa da. Gazte ekintzaileei bidea ireki eta formatu berriak sortzea irtenbide ona litzateke. Apustu ausartagoak egiten ez badira, oraindik eta ikusle gutxiago izango dituzte euskal hedabideek. Nire iritziz, ondoen eta sendoen errotuta dagoen hedabidea irrati da.

### PERTSONALA

**Bizitzeko leku bat:** Amasa bizi izateko leku paregabea da.

**Janari gustukoena:** Pasta.

**Zaletasunak:** Musika eta zinema.

**Egindako bidaiak ahaztezina:** Budapest.

**Musikari gustukoena:** Pink eta Gose.

**Sare sozial bat:** Instagram.

**Erronka bat:** Gaur egungo egoera ikusita, lanpostu bat aurkitzea.


**Kirol gustukoena:** Mendia.

**Pelikula bat:** *Shutter Island*.

**Liburu bat:** *Los pilares de la tierra*.



ASTEAGOIENAN



GOIENA

Arrasateko jaien programa berezia

San Juanetako saio berezia ikusgai dago gaur gauean Goiena telebistan. Pasa berri diren festetan gora eta behera ibili dira kazetariak; hainbat ekintzatan ikusitakoa kontatu eta herrian egondako giroa azalduko dute saio koloretsuan.

'Arrasateko jaiak' Egubakoitza, 22:30:



AMAIA TXINTXURRETA

Jai-giroko programa izango da hurrengoa

Gauean ditugu Eskoriatzako eta Elgetako jaiak. Asteleheneko saioan horiei begira jarriko dira. Txomin Madinak aurkeztutako saioan egitarauari begiratu emango die eta azpimarratzeko moduko hitzorduei arreta jarriko die.

'Magazinea' Astelehena, 20:18

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA 28	ZAPATUA 29	DOMEKA 30	ASTELEHENA 01	MARTITZENA 02	EGUAZTENA 03	EGUENA 04
12:00 Planik bai?	10:00 28 Klip	10:00 Magazinea	12:00 Magazinea	12:00 Magazinea	12:00 Magazinea	12:00 Magazinea
12:20 Magazinea	10:30 Beranduegi.tv	11:00 Zorion agurrak	13:00 Jaiak: San Juanak	12:45 Gurean Gaur	12:45 Gurean Gaur	12:50 Gurean Gaur
13:05 Gurean gaur	11:15 Magazinea	11:05 Huhezinema	13:50 Pedalka	13:15 Zorion agurrak	13:10 Harmailatik	13:15 Huhezinema
13:30 Onein	12:15 Ikusmira: Ekinn Azaro	11:35 Onein: Zainzuri pastela	14:18 AsteON	13:22 Harmailatik	13:55 Pedalka	13:40 Onein: Bakailo kurruskaria
14:00 Pedalka	12:38 Klaketa	12:05 Jaiak: San Juanak	14:45 Berriak	14:04 Ikusi irratia: Ion Fontenla	14:23 Ikusmira: Ekinn Azaro	14:11 Ikusi irratia: Ion Fontenla
14:28 Planik bai?	13:14 Onein: Ijito besoa	13:05 Ikusi irratia: Ion Fontenla	15:15 Eguraldia	14:37 Zorion agurrak	14:45 Berriak	14:45 Berriak
14:48 Berriak	13:40 Berriak	13:39 Onein: Vienar erako pastak	15:18 Zorion agurrak	14:45 Berriak	15:10 Eguraldia	15:10 Eguraldia
15:13 Eguraldia	13:55 AsteON	14:02 Magazinea	15:23 AZK2012	15:10 Eguraldia	15:13 Klaketa	15:13 Zorion agurrak
15:16 Planik bai?	14:25 Magazinea	15:02 AsteON	16:23 Pedalka	15:13 Harmailatik	15:49 Onein: Zainzuri pastela	15:43 Atik Zra
15:36 AZK2012	15:25 Zorion agurrak	15:39 Zorion agurrak	16:53 Zorion agurrak	15:58 Onein: Lainoen azpian	16:19 Harmailatik	16:57 Zorion agurrak
16:06 Altxorren bila	15:30 Onein: Bakailo kurruskaria	15:37 Ikusmira: Ekinn Azaro	16:58 Berriak	16:25 AsteON	16:59 Zorion agurrak	17:02 Berriak
16:39 Beranduegi.tv	16:01 Pedalka	16:00 Pedalka	17:28 Eguraldia	16:55 Zorion agurrak	17:04 Berriak	17:27 Eguraldia
17:24 Zorion Agurrak	16:21 Huhezinema	16:30 Planik bai?	17:31 Onein: Lainoen azpian	17:00 Berriak	17:29 Eguraldia	17:30 Onein: Ijito besoa
17:30 Planik bai?	16:51 Ikusmira: Urgatz musika taldea	16:50 Beranduegi.tv	17:58 Ikusi irratia: Ion Fontenla	17:25 Eguraldia	17:32 Huhezinema	17:56 Planik bai?
17:50 Berriak	17:16 Onein: Vienar erako pastak	17:35 Klaketa	18:32 Atik Zra	17:28 AZK2012	18:05 Ikusmira: Ekinn Azaro	18:16 Huhezinema
18:15 Eguraldia	17:39 Zorion agurrak	18:11 Ikusi irratia: Ion Fontenla	19:45 Zorion agurrak	17:58 Zorion agurrak	18:27 Harmailatik	18:46 Ikusmira: Urgatz musika taldea
18:18 Planik bai?	17:44 Jaiak: San Juanak	18:45 Magazinea	19:50 Berriak	18:03 Lamien artean	19:12 Ikusmira: Urgatz musika taldea	19:10 Zorion agurrak
18:38 Altxorren bila	18:44 Magazinea	19:45 Berriak	20:15 Eguraldia	19:01 Harmailatik	19:36 Zorion agurrak	19:16 Planik bai?
19:11 Zorion Agurrak	19:44 Planik bai?	20:00 Zorion agurrak	20:18 Magazinea	19:46 Zorion agurrak	19:44 Berriak	19:41 Zorion agurrak
19:17 28 Klip	20:04 Berriak	21:05 AsteON	21:03 Gurean Gaur	19:51 Berriak	20:14 Eguraldia	19:47 Berriak
19:47 Beranduegi.tv	20:19 AsteON	21:05 AsteON	21:33 Berriak	20:16 Eguraldia	20:17 Magazinea	20:12 Eguraldia
20:32 Zorion Agurrak	20:49 Beranduegi.tv	21:35 Magazinea	21:58 Eguraldia	20:18 Magazinea	21:02 Gurean Gaur	20:14 Magazinea
20:37 Berriak	21:34 Berriak	22:35 Klaketa	22:03 Berriak	21:03 Gurean Gaur	21:32 AsteON	21:04 Gurean Gaur
21:07 Eguraldia	21:49 Pedalka	23:11 Beranduegi.tv	22:28 Eguraldia	21:33 Huhezinema	22:02 Berriak	21:34 Pedalka
21:12 Planik bai?	22:19 Jaiak: San Juanak	23:56 Magazinea	22:45 Magazinea	22:03 Berriak	22:27 Eguraldia	22:04 Planik bai?
21:32 Zorion Agurrak	23:19 Magazinea	00:19 Berriak	23:45 Berriak	22:28 Eguraldia	22:29 Magazinea	22:24 Berriak
21:37 Gurean gaur	00:19 Berriak	01:04 Ikusi irratia: Ion Fontenla	00:10 Eguraldia	23:18 Klaketa	23:14 Harmailatik	22:49 Eguraldia
22:02 AsteON	00:34 AsteON			23:54 Berriak	00:24 Eguraldia	22:52 Magazinea
22:32 Jaiak: Arrasateko jaiak				00:19 Eguraldia	00:27 Magazinea	23:37 Klaketa
23:22 Berriak						0:13 Berriak
23:47 Eguraldia						0:38 Eguraldia
23:50 AsteON						

ARRASATE IRRATIA

Uda Giroan programa hasiko dute irratian astelehen honetan

Uztailaren 1etik aurrera udako programa hasiko dute Arrasate Irratiko arduradunek. Ohiko kontuen jarraipena egiten jarraituko duten arren, entzuleek uda-sasoiko edukiak ere izango dituzte euren irratietan. Goizeko 10etatik 11etara uhin freskoekin gozatu ahalko dute.

Irratsaioko zozketak puzzle eder bat dauka sari moduan

Egubakoitzeko Uda Giroan irratsaioan zozketa egingo dute entzuleen artean. Parte hartzen dutenek puzzle eder bat jaso dezakete. Hori bai, horretarako lotsarik gabe 943 25 05 05 telefonora deitu edo irratia@goiena.com posta elektronikora idatzi beharko dute. Adi belarriak, beraz.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE			
Egubakoitza, 28	IRIZAR	Erguin 11	943 79 12 39
Zapatua, 29	AMEZUA	Sta. Marina 32	943 79 09 74
Domeka, 30	ESPAÑOL MORALES	Araba kalea 11	943 79 18 65
Astelehena, 01	RUIZ	Nafarroa kalea 1	943 79 14 09
Martitzena, 02	ETXEBERRIA	Zarugalde 38	943 77 16 30
Eguaztena, 03	ALBERTO AZKOAGA	Ferrerías 1	943 79 15 15
Eguena, 04	M.FCA. AZKOAGA	Iturriotz 17	943 79 79 99
BERGARA			
Egubakoitza, 28	MOZOS	Iparragirre 2	943 76 12 15
Zapatua, 29	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza 4	943 76 11 74
Domeka, 30	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza 4	943 76 11 74
Astelehena, 01	ZABALA	Barrenkale 25	943 76 16 87
Martitzena, 02	GUALLAR	San Antonio 5	943 76 11 05
Eguaztena, 03	ESTELLA	Matxiategi 5	943 76 19 63
Eguena, 04	MOZOS	Iparragirre 2	943 76 12 15
ONATI			
Egubakoitza, 28	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Zapatua, 29	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Domeka, 30	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Astelehena, 01	GARATE	Kale Barria 42	943 78 05 58
Martitzena, 02	GARATE	Kale Barria 42	943 78 05 58
Eguaztena, 03	JULDAIN	Kale Berria 6	943 78 11 28
Eguena, 04	JULDAIN	Kale Berria 6	943 78 11 28

Farmazien eskuko telefonoetarako 2013 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehieneko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altitria TICek kudeatuta (www.altitria.es).

EGURALDIA ASTEBURUAN

DEBAGOIENA



Max. 21°  
Min. 10°




Max. 20°  
Min. 10°

ZAPATUA, 29 Bihar eguraldi egonkorra egingo du, baina zerua ez da garbi egongo. Iparreko haizeak eraginda, ez du asko berotuko.

DOMEKA, 30 Etsizako antzeko giroa espero da. Akaso, arratsaldean hodei gehiago izango da. Ez da bero handirik egongo. Iparra.

EUSKAL HERRIA



Zapatuan giro egonkor baina fresko samarra izango dugu. Domekan laino gehiago izango dira.

GAZTE INFORMAZIOA

BEKAK

**Australia.** Australiako Hezkuntza, Lana eta Lan Harremanen Ministerioa. Gradu edo graduondoko ikasketak burutzeko, edo master edo doktortutza ikasketen esparruan ikerketak egiteko, edo australiar enpresa edo erakundeetan praktika profesionalak burutzeko. Epea: ekainaren 30a.

**Graduondoko ikasketak egiteko 60 diru-laguntza.** Mapfre Fundazioa. Baldintzak: ikertzaileak edo ikerketa-taldeak. Ikerketa arloak: Osasuna, Prebentzioa, Ingurumena eta Aseguruak. Epea: irailaren 10a.

**Nazioarteko praktikak egiteko bekak.** Nafarroako Unibertsitateko Enpresa Fundazioa. Baldintzak: Espainian unibertsitateko tituladuna izatea eta

ikasketak 12 urteren buruan eta deialdiaren datararte (2013ko uztaila) burutuak izatea. Aldez aurretik Leonar-do beka jasoa ez izatea. Epea: uztaialaren 5a.

**Kazetaritza-ikasleentzako bekak.** La Caixa Fundazioa eta EFE. Kazetaritza ikasleei EFE agentzian 18 hilabetez praktikak egiteko bekak. Epea: uztaialaren 19a.

LANA

**Hik Hasik langilea behar du.** Lanaldi osoko lanpostua, urtebeteko kontratuarekin. Irailaren 1etik aurrera hasteko. Baldintzak: prentsa idatzian esperientzia edukitzea, hazieta eta heziketa gaietan esperientzia eta interesa izatea. Informatikako programak: InDesign, QuarkXPress... Epea: uztaialaren 5a.



INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO: Arrasateko Gazte Bulegoa: Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea: Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net



### Leire eta Zigor

Leire Arana eta Zigor Masip arrasatearrak ekainaren 29an ezkonduko dira Untzillako San Pedro elizan. Gure-Ametsa jatetxean ospatuko dute. "Zorionak, familiakoen eta lagunen partetik! Bereziki, Beñaten eta Unaxen partetik! Ondo pasatu eguna eta ondo ibili eztei-bidaian!".



### Egoitz eta Estitxu

Egoitz Leibar eta Estitxu Olalde ekainaren 29an ezkonduko dira Oñatiko udaletxean. "Zuekin egun berezi hau ospatzeko desiratzen gaude! Disfrutatu eta zoriontsu izaten jarraitu. Musu bana, etxeko eta lagun partetik. Askok disfrutatu eta ondo pasatu, *atsuren* partetik!".



### Zorione eta Peio

Zorione Aizpurua eta Peio Romero ekainaren 29an ezkonduko dira Arantzazuko santutegian. "Zorionak, bikote! Disfrutatu ezkontza-eguneari eta ondo ibili Peruñ! Zareten modukoak izaten segitu; ez aldatu. Besarkada bat, familiakoen, lagun eta Arkauztarren partetik!".



### Aixibar eta Olatz

Aixibar Urteaga eta Olatz Korkostegi ekainaren 29an ezkonduko dira Oñatiko udaletxean. "Oso zoriontsu izaten segitu, hirukote! Patxo erraldoia, familia eta lagun partetik!".

## HILDAKOAK

- Jose Lodoso Bergaretxe.** Arrasaten, ekainaren 20an. 85 urte.
- Emiliana Arnaiz Ruiz.** Arrasaten, ekainaren 20an. 98 urte.
- Antonio Irazola Altuna.** Bergaran, ekainaren 21ean. 88 urte.
- Pedro Morales Sanchez.** Aretxabaletan, ekainaren 22an. 90 urte.
- Lorenzo Loidi Astigarraga.** Angiozarren, ekainaren 22an. 90 urte.
- Joxe Guridi Egaña.** Oñatin, ekainaren 23an. 90 urte.
- Eliseo Garcia Salas.** Antzuolan, ekainaren 25ean. 75 urte.
- Jose Larrañaga Arizaga.** Bergaran, ekainaren 25ean. 88 urte.
- Julia Fernandez Frutos.** Arrasaten, ekainaren 25ean. 87 urte.

## MEZA

### Karlos Ezkibel Urtaza



2013ko ekainaren 8an hil zen.

Haren aldeko ondrea meza zapatuan izango da, ekainaren 29an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean. Oñatin, 2013ko ekainaren 28an.

## ESKER ONA



### Antonio Irazola Altuna



Bergaran hil zen 2013ko ekainaren 21ean, 88 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2013ko ekainaren 28an.

## ESKER ONA

### Lorenzo Loidi Astigarraga



Angiozarren hil zen 2013ko ekainaren 22an, 90 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.

Haren aldeko meza domekan izango da, ekainaren 30ean, 11:00etan, Angiozarko San Migel elizan. Bertaratuko zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko.

Angiozarren, 2013ko ekainaren 28an.

## ESKER ONA

### Joxe Guridi Egaña



Oñatin hil zen 2013ko ekainaren 23an.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.

Oñatin, 2013ko ekainaren 28an.

## OROIGARRIA

### Lorenzo Loidi Astigarraga



Angiozarren hil zen 2013ko ekainaren 22an, 90 urte zituela.

Anaia, tio jator goxoa  
Loitxebarriko zutabe  
beti denonizat harera ona  
umoretsu ta xuabe  
Etxe aldean ze hutsunea  
orain, Lorentxo, zu gabe!  
Gure bihotzek zure inifarra  
betikio gordeko dabe.

Anai-arrebak eta lokak.  
Angiozarren, 2013ko ekainaren 28an.

## OROIGARRIA

### Joxe Guridi Egaña



Kalezaharra elkartereko ohorezko bazkidea.

Oñatin hil zen 2013ko ekainaren 23an.

Zure oroimena  
beti izango da gure bihotzetan.



Kalezaharra elkartera.  
Oñatin, 2013ko ekainaren 28an.

## URTEURRENA

### Felipa Baiñ Anduaga

R. Etxabururen alarguna



Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, ekainaren 29an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Zauden tokian zaudela  
zurekin bizitako une goxo guztiak  
gure bihotzetan gordeko ditugu betirako.  
Maite zaitugu, amona.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean. Oñatin, 2013ko ekainaren 28an.

## OROIGARRIA

### Joxe Guridi Egaña

Ulma Forjako bazkidea



Oñatin hil zen 2013ko ekainaren 23an.

Nahiz eta gure artekin urrutitan  
beti izango zaitugu gogoan.



Ulma Forjako lagunak.  
Oñatin, 2013ko ekainaren 28an.

## ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 130 euro.

Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.

**Goiena: irakurriena Debagoienean.**

### ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

**ARRASATE** Goiena: Oñatiko Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

**BERGARA** Jardun elkartera: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.

**OÑATI** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

**ARETXABALETAKO** Goiena: Basabe poligonoa E05. 943 25 05 05.

**ARAMAIO** Kintelena janari-denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22.

**ELGETA** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.

**ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.





GOIENA

**BERGARA** San Martzial eguneko erromeria

Domekan San Martzial eguna ospatuko dute Bergaran. 7:30ean letania eta meza izango dute. 10:00etan San Martzialera igoko dira gurdiaekin, eta ondoren meza nagusia izango dute. 12:00etan bertsolariak eta ohiko aurrekua izango dute.

Bihar, domeka, San Martzialen, 12:00etan.



DEAD BRONCO

**OÑATI** Dead Broncoren emanaldia Pako tabernan

Dead Bronco algortako taldeak *In hell* disko berria aurkeztuko du Oñatin. Esperientzia handiko musikariak dira Dead Bronco taldekoak; nabarmentzekoa da, Pako Sanchez abeslariaren indarra. Punka, countrya, bluesa... nahasten dute.

Gaur, egubakoitza, Pako tabernan, 20:30ean.

**HITZALDIAK****OÑATI** Atez atekoa berba

Hitzaldiaren izenburua da: *¿Es el Atez ate un sistema más ético de gestionar los residuos? ¿Por qué?* Hizlaria da: Antonio Casado de la Rocha (Filosofo eta ikerlaria. Bioetika eta biologiarren filosofia ikertzen du EHU)

Gaur, egubakoitza, Kultura etxean 18:30ean.

**DEIA****OÑATI** Kanta afaria Josu Zubiarekin

Josu Zubia musikariaren eskutik, atzoko eta gaurko euskal kantua afalostean

Bihar, zapatua, Arranon 21:00etan.

**ANTZUOLA** Euskal presoan aldeko elkarretaratzea

Euskal presoan aldeko elkarretaratzea 19:00etan Zurrategin. *Ez dot moztuko bizarra* elkarteak eta Gaztetxeak deituta.

Gaur, egubakoitza, Zurrategin 19:00etan.

**IKASTAROAK****ELGETA** Dinamizatzailea Kzgunean

Uztailako lehen bisita hilaren 2an egingo du; 09:00etatik 13:00etara. Kontsultak edo ikastaroak egiteko aukera.

Uztailaren 2a, martitzena, Elgetako Kzgunean 09:00etan.

lerako txirrindulari igoera. Aste bukaeran, San Martzial auzoan.

**OÑATI** Torreazoko jaixak

Egubakoitzean, 20:00etan, etxafuego jaurtiketa, eta txakolin eta gazta dastaketa. Zapatuan, Potx eta Motx pailazoak. Domekan, 11:00etan, XVI. Torreazoko kroa. Ondoren sari banaketa.

Aste bukaeran, Torreazoon.

**ESKORIATZA** Txupinazoa

Sanpedro jaiari hasiera emateko festa-kanpaiak eta txupinazoa izango da plazan. Aurtengo pregoia parrokiako abesbatzak egingo du. Jarraian, musika eskolako bandaren eta txistularien kalejira egingo dute, buruhandiek

batera. 22.30ean danborrada. Gaur, egubakoitza, Herriko Plazan 18:00etan.

**OSPAKIZUNAK****ELGETA** Meza nagusia

Iazko jaietatik hildakoen alde meza nagusia.

Gaur, egubakoitza, parrokiaren 13:00etan.

**ERAKUSKETAK****ARETXABALETA** Pintura erakusketa

Ainhoa Caberoren pintura erakusketa irekiko dute uztailaren 2an. Ordutegia: 11:00etatik 13:00etara,

eta 18:00etatik 20:00etara. Zapatuan: 11:00etatik 13:00etara. Domeka eta jai egunak itxita. Uztailaren 1a, astelehena, Arkupen 11:00etan.

**ESKORIATZA** 'Eskulanak' erakusketa

Sanpedro jaiaren harira, *Eskulanak* izeneko erakusketa inauguratuko dute egubakoitzean kultura etxean.

Gaur, egubakoitza, Kultura etxean 19:00etan.

**ESKORIATZA** 'Debagoieneko emakumeak gerra zibilean' erakusketa

Sanpedro jaiaren bueltan, urteroko erakusketa izango da Ibarraundin. Aurten Arrasateko Ekin elkarteak egindako *Deba-*

*goieneko emakumeak gerra zibilean* izeneko erakusketa inauguratuko dute.


Gaur, egubakoitza, Ibarraundi museoan 18:30ean.

**IRTEERA****ARAMAIO** Gamarrako igerilekuetara irteera

Aramaioko neska mutikoen Gamarrako irteera egingo dute uztailaren 2an. Lagun artean egun aparta pasatzeko aukera izango dute. Aurrez eman behar da ize-na parte hartzeko.

Uztailaren 2a, martitzena, Udaletxean 11:00etan.

**Carrefour**  
GORBEIA



**Oparia**

**% 10**

Deskontua erregaletan

Trukagarria **AVIA** zerbitzugune hauetan:

- Arrasate
- Gasteiz: Foronda, Urartea kalea - 23 (Alibarra izkina) eta Zurbano.

**3x2** 5.000 produktu baino gehiago 3x2 promozioarekin

Uztailaren 15era arte

**60 €** baino gehiagoko erosketengatik Club Carrefour zure txartela aurkeztuz



Abuztuaren 3ra arte

**Doan**  
Autobideko bidesaria

**Joan-Etorria**

**Autobideak:**

Carrefour Gorbeia etortzeko AP-1 (Eibar -Etxabarri Ibiña) eta AP-68 (Laudio-Altube)

- Erosketa tiketa aurkeztuz + egun beraren bidesariko frogagarria.

Zenbatekoa opari-txarteletan ordainduko da.

AP 68

Laudio - Amurrio - Urduña

AP 1

Arrasate - Aretxabaleta - Eskoriatza

**JOXE TA PIKV** konekta zaitez! **zuntz azkarrena**

**G4**  
150Mb speed  
wireless  
screen LCD

GUAZEN BARRURE

ETA KOBERTURIE?

HILDEKUEKIN BE KONEKTAU ZEIKE

ETA TARIFA PLANUE BETIKO

# goiena

2013-06-28

BUKATZEKO

## Larrinagaren kasua azkena izan dadin

- ▶ Errepidean ibiltzen diren guztion artean errespetu handiagoa eskatzeko iragarkia egin du Goienak
- ▶ Joseba Larrinagaren heriotza abiapuntu hartuta, txirrindulariek bizi duten arriskua erakusten da

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Denon gogoan dago oraindik Joseba Larrinaga txirrindulari aretxabaletarraren heriotza, auto batek harrapatuta bizikletan zihola. Ibilgailu motordunak eta bizikletak oraindik izaten dira istripuetako zoritzarreko protagonistak. Bide publikoak erabiltzen dituzten guztiokin pentsatuta, telebistako iragarkia grabatu du Goienak, eta dagoeneko Goiena telebistan ematen ari dira. *Errespetu dezagun, errespetu gaitzazu* da mezu nagusia.

### Debagoieneko zale asko

Minutu eta erdi inguruko iragarkiko protagonista Larrinagaren lagun eta bizikletazale Alfredo Meabe da. Bere gogoeta konpartitzen du ikusleekin, zergatik irteten den bizikletan ibiltzera eta ekintza horrek zer ematen dion kontatzen du; gero, bizi dituzten arriskuak ikusten ditugu: abiada handiegian doazen autoak edo bestelako errespetu faltak, txirrindulariek ere non hobetu badaukatela aipatu barik utzi gabe: hau da, erabiltzaile guztiok elkarrekiko errespetuan hobetu behar dutela.

Iragarki bukaeran, txirrindulari talde handi batekin bat egi-



Joseba Larrinagari egindako omenaldian grabatu ziren irudi batzuk. | XABIER URTZELAI



Alfredo Meaberekin, grabatzera irteteko gertatzen. | XABIER URTZELAI

ten du Meabek; hain zuzen ere, Larrinagari omenaldi ekitaldirako batu ziren zaleak.

### Ekainaren 13an grabatua

Eguzkia egin zuen lehenengo eguna aprobetxatu zuen Goienak, eta, hala, ekainaren 13an grabatu zituzten kanpoko irudiak, Aretxabaleta eta Arrasate arteko errepidean eta Aramaion. Erabili zuten kameretako bat GoPro delakoa izan zen, esku batekin eroan eta erabil daitekeen oso kamera arina.

### AZKEN BERBA

AGURNE BARRUSO



Erasoz eraso

Astelehenean goiz jaiki eta igandean San Martzial dugula etorri zitzaidan burura. Bergararra izanda, agendan txoko garrantzitsua betetzen duen eguna.

Lanera iritsitakoan berriz mahai gaineratu zitzaidan San Martzial eguna; igandean Irunen ere San Martzial ospatuko dute eta aurten ere oraindik emakume irundarrek alardean parte hartu nahi badute, aparteko alardean egin beharko dute. Irungo Udalak egoera hau babesten du oraindik ere.

Egunean sanferminak ere badatozela entzun nuen. Notizia honakoa zen: Nagore Lafagereen erailketa gogoratzeko uztailearen 3an egin nahi zuten antzerkiari baimena ukatu dio Iruñeko Udalak. Duela 5 urte eraso sexista baten ondorioz, jaien testuinguruan hil zuten Nagore eta hura gogoratzea ere debekatu egin nahi digute. Lotsagarria Iruñeko Udalaren jarrera.

Ez nekien oraindik egunak bazekarrela emakumeon aurkako indarkeriaren bestelako berririk. Zarautzen adin txiki-ko neskatila bati eraso egin diotela esanaz deitu dit bertako lagun batek. Aste Santuan beste eraso bat egon zen.

Plaza politikoan ari garenok badugu zer egina honi guztiari amaiera emateko. UPNk Iruñean, PSEk Irunen agertutako jarre- rarekin aurrerapausorik ez, atzerapausoak galantak.

R.P.S. Nº 149/10 I.L.G.

Konbinatu

GRADUATUAK +  
EGUZKITAKO  
GRADUATUAK

97€

\* kontsulta itzazu zure zentroan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95  
ARRASATEIbargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75  
BERGARA

BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRETERIA • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

MULTIÓPTICAS  
lehen zerbiztu optikoetan